



Perretxikoak, udazkeneko lorerik preziatuenak

Silvana Pissano, aktibista feministari elkarrizketa



ERREKA AUZOLANEAN GARBITZEKO DEIA

Debagoiengan Errekak Bizi Auzolanean ekimenaren bigarren edizioa urriaren 21ean izango da, Arrasaten, Bergaran, Oñatin, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Antzuolan, Aramaion eta Elgetan. Parte hartzeko, izena emateko deia egin dute antolatzaileek / 2

Debagoiengan Errekak Bizi Auzolanean egitasmoaren antolatzaileak eguaztenean Elorregin, Deba ibaian.

XABIER URZELAI

250 bazkide izatea helburu duen Goienagusi elkarteak udazkeneko egitaraua aurkeztu du / 4

Antzuolako Aiastru Txirrindulari Elkarteak mende erdi bete du pedalei eragiten / 24



MARITXU KAJOI 2023 / 10

Memoriaren Eguna Elgetan domekan, Intxortako frontea ezarri zela 87 urte betetzean / 26

Gaurtik urriaren 28ra bitartean, Organo Erromantikoaren Nazioarteko zikloa; 3 emanaldi Bergaran / 35

SINADURAK

XABIER MUGARZA / 6	AINHOA PARDINA / 23
ANDER GARAY / 9	HORACIO ARGARATE / 30
JULEN ABASOLO / 17	AINTZANE OIARBIDE / 40

Hemen
garbiketak
Ura bezain garbia



T.- 943 71 48 45





Debagoiengan Errekak Bizi Auzolanean egitasmoaren aurkezpena, eguaztenean. XABIER URZELAI

Erreka garbiketa bateratua, hilaren 21ean

Debagoiengan Errekak Bizi Auzolanean ekimenaren bigarren edizioa egingo da eskualdeko herri guztietan, eta parte hartu nahi duen orok urriaren 18ra bitartean du aukera izena emateko; iaz, 600 lagun inguruk hartu zuten parte

Idoia Aranbarri Arzuaga DEBAGOIENA Debagoiengan Errekak Bizi Auzolanean ekimenaren bigarren edizioa urriaren 21ean egingo da Arrasaten, Bergaran, Oñatin, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Antzuolan, Elgetan eta Aramaian. Leintz Gatzagan, berriz, urriaren 28an izango da. Asteon aurkeztu dute egitasmoa Elorregin bailarako nahiz herrietako or-

dezkariek. Gatzagan Gatz Eguna ospatuko dute hilaren 23an, eta hori dela eta astebete atzeratu dute eguna. Hango ordezkari Joannes Mendizabalek gogorazi du komeni dela urtean behin ibaiari "pasadatxo bat" ematea.

Erreka garbitzeaz gain, ibaira hurbiltzea, Debagoieneko herriak inguratzen dituzten bailarako errekek ezagutzea eta herritarren

arteko bilgune izatea du helburu bailara mailako egitasmoak. Ibarreko ordezkari den Iker Agirrerren esanetan, auzolane-rako urratsa eman dute, egun hau ez baita ibaitik ateratako zakar kopurura mugatzen soilik, eta bide beretik jarraitu nahi dute datozen urteetan: "Sortzen den giroa eta herritarrekin elkartze horrek badu unitatea

batzeko sena, eta urtez urte sendo jarraitu nahi dugu".

Ekintza ezberdinak

Erreka garbiketa egun bateratua da, baina Agirrek azaldu duenez herri bakoitzak "bere dinamikak eta egitarau propioa" izango ditu egun horretan. Elgetan eta Aretxabaletan, adibidez, luntxarekin amaituko dute saioa. Aretxabaletako ordezkari Laura Perezek aipatu du hortxe izango dutela aukera "bakoitzaren goizeko abenturak" komentatzeko.

Bergaran 11. aldiz egingo dute erreka garbitzeko eguna, baina oraingo honetan berritasun batekin dator; izan ere, Kuku-baso elkartearen laguntzarekin landare inbaditzaileen inbentarioa egingo dute. Oñatin, berriz, Uraren Astea aprobetxatuko dute hitzaldia, dokumentalaren proiektzioa eta ibilbide gidatua egiteko.

Izen-ematea zabalik

Modu batera edo bestera, hortaz, herri bakoitzean bere berezitasuna izango du egun honek, eta dei egin diete herritar nahiz eragileei auzolanean egingo duten Deba ibaiaren eta horren adarren garbiketara parte hartzeko. Horretarako eta aseguruia izan ahal izateko datu pertsonalak behar dituztela adierazi dute ordezkariak eta labur.eus/ErrekaAuzolana webguneko inprimakia bete beharko da urriaren 18a baino lehen. 14 urtez azpiko haurrek ez dute aseguruirik izango; dena den, datuak edo kopurua behinik behin beharko dituzte, taldekatzeak egin eta hamaiketarako kontuan hartzeko. Herri bakoitzak izango ditu bere topalekuak, eta hortik abiatuko dira bakoitzari dagokion auzolan generu.

33 gradu gainditu dituzte termometroek

2004tik urriaren hasieran erregistratu den tenperaturarik altuena izan da urriaren 1eko

I.A.A. ARRASATE

Irailaren 23an udazkena heldu bazen ere, udako sentsazioa izan da azken astean zehar nagusi, termometroek 30 gradutik gora markatu baitituzte. Egunk berroenak urriaren 1a eta 2a izan dira, eta Debagoienaren kasuan, 33 graduko langa pasatu zuten termometroek Arrasaten eta Oñatin. Arrasaten, esaterako, 35,6 eta 35,1 gradu izan ziren maximoak; Oñatin, berriz, 33,8 eta 33,5 gradu. Astelehenean Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak abisu horia ezarri zuen tenperatura altuengatik. Iazko datuekin alderatuz, urte sasoi honetan, termometroek ez zituzten 25 graduak gainditu bi herri horietan.

Maximo historikoak

Urriaren hasieran 35 graduak gaindituta, garai honetako maximo historikoa neurtu dute termometroek. 2004tik ez da halako tenperaturarik erregistratu urriaren hasieran Hego Euskal Herrian; ordu hartan 30 gradu egin zituen gehienez ere; beraz, marka historikoak dira.

Asteburuko iragarpena


Euskalmetek giro eguzkitsua iragarri du gaurko Maritxu Kajoi egunerako. Baliteke goizean goiz lanbro pixka bat sortzea, baina behin jasotakoan, giro eguzkitsua gailenduko da. Hai-zeak hego ukitua izango du goizean; arratsaldean, bizitu egingo da. Maximoak 29 graduren bueltan ibiliko dira.

Zapatuan, berriz, euskal meteorologia agentziak aurreratu duenez, aldaketa handirik ez da izango. Giro eguzkitsua eta lehorrak eta balio altuenek 30 gradutik gorakoak izaten jarraituko dute. Domekan zerua oskarbi egongo da, baina haizea izango da nagusi. Tenperaturan ez da aldaketarik espero.




PILI GARCIA
BERGARAKO ORDEZKARIA

"11. aldiz egingo dugu Bergaran erreka garbiketa. Kuku-baso elkartearen laguntzarekin egingo dugun landare inbaditzaileen inbentarioa da berritasuna".




IKER OÑATE
OÑATIKO ORDEZKARIA

"Uraren Astea aprobetxatuko dugu erreka garbitzeaz gain, hitzaldia, dokumental proiektzioa eta ibilbide gidatua egiteko. Jendea animatzea espero dugu".



LAURA PEREZ
ARETXABALETAKO ORDEZKARIA

"Aretxabaletan halako ekintzetara jendea animatzen da. Iaz morderoxka elkartu ginen eta iazko kopurua animatzea ederra izango litzateke".



UNAI ANDRES
ELGETAKO ORDEZKARIA

"Lehen urtean egin genuela ikusita ea kontzientzia horrek hobera egiten duen eta jendeari parte hartzeko gogoia jartzen zaion eta lanera agertzen den".

"Lorpena izan da, baina hasiera besterik ez da"

NATI ROA FRANKISTEK ERAILDAKO FLORENCIA OLAZAGOITIA ZEZIAGAREN BILOBA Eusko Legebiltzarrak Memoria Historikoaren Legea onartu zuen irailaren 28an, EAJ, EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos-Ezker Anitzaren aldeko botoekin

Idoia Aranbarri Arzuaga ARRASATE 1936ko azaroan erail zuten Florencia Olazagoitia frankistek. Haren biloba Nati Roa legebiltzarrean zegoen Memoria Historikoaren Legea onartu zuten. Dekretuaz eta orain arteko bidez aritu da GOIENArekin. **Bi urteko tramitazioaren ondoren, Memoria Historikoaren Legea onartu du legebiltzarrak.**

Pozik gaude, lorpena izan da. Egia da, ordea, hasiera besterik ez dela. Orain dator lana. Memoria historikoaren elkarteek lan asko egin dute, Gogora Institutuak ere bai. Haiengatik ez balitz, ez genuke memoriarik edukiko, tabua zelako.



Roa Espainiako barne arazoetako ministerioak bidalitako dokumentazioarekin. I.A.A.

Hasiera besterik ez dela diozu. Hemendik aurrera zer dator?

Makinaria martxan jarri da. Gogorak lanean jarraitu behar du: biktimen datu-baseak osatu behar dira, memoriaren lekuak aurkitu... Memoria historikoaren elkarteek gusturago lan egin ahal izango dute instituzioek babesa emango dietela suposatzen delako. Gainera, kasu batzuetan, Gogorak aholkularitza juridikoa emango du, baina kasurik kasu aztertu behar da. Niretzat artxiborako sarbidea da garrantzitsuena. Lan asko dator; 87 urtez artxiboak itxita egon dira. Komisarietan dago informazioa, eta horrek guztiak memoria historikoaren artxiboan egon behar luke.

Zure amona Florencia Olazagoitia-ren erailketa argitzeko epaitegitara jo duzu.

Donostiako bi epaitegietan eta Madrilgo Auzitegi Konstituzionalean jarritako kereilek ez dute aurrera egin. 1977ko Amnistia Legea dela-eta, ez daukat ezer egiterik. Beraz, Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordera jo nuen. Kereila aurkeztuta dago, baina luze joko du. Nire ustez,

momentuz, bide bakarra da gehiago jakiteko.

lazko urrian Espainiako senatuan onartu zuten lege bera. Orain EAEn. Informazio berririk lortu duzu?

Aurtengo martxoan lehen aldiz jaso dut Espainiako Barne Ministeriotik Donostiako komisariorian zegoen familiako hiru kideren dokumentazioa; 2022an egin nituen eskaerak. Aintzane Ezenarro Gogora Institutuko zuzendariak eta Paco Etxeberria forentseak ezin zuten sinetsi. Paperen arabera, amona Guardia Zibilak atxilotu zuen 1936ko irailaren 26an Arrasaten; Ondarretako kartzelara eraman, eta 1936ko azaroaren 5ean hil zuten. Zertaz akusatatu zuten ere jartzen du. Halaber, 1936 eta 1945 bitartean frankismoak EAEko kartzelatan preso hartutako 37.000 pertsona identifikatu dituzte; horietako 500 hemengo bizilagunak dira. Kontsulta egiteko zerrendan izena eman dut.

Zergatik itxaron duzu 2022ra arte? Beldurragatik. Aitak ez zuen horretaz hitz egin nahi, lotsagatik, baina nik jakin egin nahi dut zer gertatu zitzaizen nire amona eta aitari.

Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Lege Berria

Askoz gehiago ekartzeko eratua

- + Erraztasun gehiago ulertu eta tramitatzeko orduan.
- + Laguntza gehiago gehien behar duenari.
- + Babes gehiago, arreta bereziarekin genero indarkeriaren biktimen direnei.
- + Arreta pertsonalizatu gehiago.
- + Jasangarritasun eta eraginkortasun gehiago bere kudeaketan.
- + Gizarte kohesio gehiago.

Zu bezalako pertsonen zuzendua:

- Pentsiodunak pentsio baxuekin.
- Emakumeak guraso bakarreko familien arduradun.
- Biktimak indarkeria matxista, sexu jazarpena edo terrorismoagatik.
- Desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonak.
- Langileak diru-sarrera baxuekin.
- Gazteak bizitza independentearekin une larri batean.



Lanbiden zure laguntza-eskaeran babesten zaitugu.

Informatu hemen:
www.lanbide.eus
945 160 600

lanbide
EUSKAL ERREPUBLIKAREN
LANTZARTEAREN
ERAKUNDA

Eskubide, eragileak, bizi onak
EUSKO JARDUKARITZA GOBIERNO VASCO
EUSKAL ERREPUBLIKAREN
LANTZARTEAREN
ERAKUNDA

GARAIA INVESTORS

GARAIA INVESTORSek deialdi berri bat du Debagoiengan ekintzailtza eta inbertsioa bultzatzeko, 0km-ko inbertsore-ekintzaileen sare bat eraiki eta enpresen arteko lankidetzak aukerak garatzeko.



Urriaren 26an, 09:00etatik 11:30etara, jardunaldi IREKIA.

• 09:00. Fuckup Night.

Gaztenpresaren laguntzarekin, enpresa-esperientzien bi kasu erreal aurkeztuko dira, ekintzailtzean sortzen diren zailtasunei buruz ikasi eta hausnartu ahal izango da.

• 10:00. Crea y Crece Legea & Startup legea.

Crea y Crece eta Startup legeen aplikazioa eta Gipuzkoarako dituzten inplikazioak ezagutu ahal izango dituzte. ENISA, Gipuzkoako Foru Aldundia eta LKS Next Legal erakundeen hitzaldiak eta Galbain moderatzaile lanetan.

• 11:00. Startup-en pitch-ak eta inbertsio-erronda Mondragon Goi Eskola Politeknikoak sustatutako Mondragon Industrial Sustainable Entrepreneurship Awards saria irabazi duten startupak, eta erronda honetarako hautatutako beste proiektu batzuk, pitch formatuan aurkeztuko dira, inbertsioa eta networkinga erakartzeko.

Nori zuzendua:

- Startupen edo inbertsioen munduan interesa duen orori irekia.
- Startupak sortze- edo garapen-prozesuan.
- Inbertsioari buruz ikasi nahi duten norbanakoak/profesionalak/enpresak.
- Startup, ekintzailtza eta inbertsio sare batean parte hartu nahi duten norbanako/profesionalak/enpresak.



IZENA
EMAN
HEMEN



Goienagusiren ikasturte berriko aurkezpena. IÑIGO BARRENA

Helburu eta erronka asko aurten Goienagusirentzat

Ikasturte berrirako dituzten erronka eta helburuen berri eman zuten Bergarako Seminarixoan. Gainera, lehen hiru hilabeteetarako programatuta dituzten ekintzak zeintzuk izango diren ere azaldu zuten aurkezpenean zuzendaritzako kideek

Iñigo Barrena DEBAGOIENA

Goienagusik 2023-2024 ikasturtearen aurkezpena egin zuen eguaztenean Bergarako Seminarixoan. Zuzendaritzako kideek, Jesus Mari Ugarte lehendakari berriarekin batera, elkarrearen egoera zein den erreparatu zuten, baita ikasturte berrirako erronka eta helburuak zehaztu, eta egutegiaren berri eman ere.

Elkarrekin oraintsu bete dituzte hamar urte. Urtetik urtera egoera hobetzen doala azpimarratu zuten. Guztira 230 bazkide dituzte gaur egun, eta, gainera, aurten zortzi batzorde izango ditu; batzorde bakoitzak bere lantaldea eta egitaraua izango ditu. Egoera onaren adierazgarri dira Goienagusik sinatuta dituen hitzarmenak eta laguntza ezberdinak. Halaber, Jesus Mari Ugarte Goienagusiko lehendakariak egoera berean jarraitzeko asmoa agertu zuen: "Hezkuntza eta ikerkuntzako entitateekin hitzarmenak ditugu, eta handitzeko aukera ere bai; gure moduko beste elkarte batzuekin ere harremanak ditugu; udalek ere laguntza ematen digute eta jarraitzea espero dugu, baita eskualdeko komunikabideekin ere".

Bazkide kuota txikitu

Ikasturte berriko aurkezpenean aurtengo erronkak eta helburuak zeintzuk izango diren ere azaldu zuten Jesus Mari Ugarte elkar-

teko lehendakariak. Erronka nagusia bazkideek gaur egun egiten duten diru ekarpena "murriztea" dela esan zuen. Une honetan, bazkideek 80 euroko kuota ordaintzen dute, eta irtenbidea topatu nahi dute, kuota hori txikitu ahal izateko. "Udalekin hitzarmenak sinatu, administrazioei dirulaguntzak eskatu, eta enpresa eta bankuei ere laguntza eskatzea da gure asmoa", dio Ugartek.

Beste helburu nagusien artean dira, elkarte eskualdean gehiago ezagutaraztea, elkarrearen barne antolaketa hobetzea, bazkideen partaidetza sustatzeko baliabideak jartzea, Goienagusiren eskualde-izaera hobetzea edo Goienagusiren bazkideetza handitzea. Azken horri dagokionez, Goienagusik dituen 230 bazkideen ordez 250 izatea arreikusten dute datorren urterako.

Ekintza eta ekitaldiak

Helburuak zehaztu ostean, aurten izango duten programazioa nolakoa izango den ere azaldu zuten zuzendaritzako kideek. Ekitaldi

ASIER BLASEN HITZALDIA IZANGO DA EGUTEGIKO LEHENA; ASTELEHENEAN (10:00) KULTURATEN

"garrantzitsuenak" hitzaldiak izango direla azpimarratu zuen Mikel Goenaga idazkariak, eta astelehen eta asteazkenetan izango direla; asteazkenetakoa Oñatin eta Bergaran txandakaturaz joango da; astelehenetakoa, berriz, Arrasaten izango da. Mendi ibilaldiak eta bisitak hilabetearen behin egingo dituzte, eta irteera kulturalak, aldiz, hiru hilabetearen behin. Ikuskizunen eta ikastaroen kasua bestelakoa da. "Ikuskizunak tokatzen direnean egingo ditugu, eta, ikastaroak antolatzerako garaian, gainontzeko ekintzen datak hartuko ditugu kontuan", adierazi du Goenagak.

Programazioa nolakoa den ikusita, jada zehaztuta dute lehen hiru hilabeteetako ekintza eta ekitaldien zerrenda. Astelehenean bertan hasiko dira Arrasaten, Asier Blasen hitzaldiarekin, goizeko 10:00etan, eta beste hemeretzi dituzte programatuak, hemendik eta gabonak bitartean. Irteera kultural bat eta beste bisita gidatu bat dira, momentuz, egutegian sartu dituztenak. Era berean, egutegian finkatuta dauden hitzaldiak bertan behera geldituz gero, pelikula edo dokumental bat ikusiko dute horren ordez. Bestalde, ekintzak ordaintzeko garaian, aurtengo berritasunetako bat izango da transferentzia bidez ere ordaindu ahal delako.



Munduko 13 hizkuntza gutxiagotuetako 16 kide eguaztenean, Aretxabaletan, Garabideko kideekin eta alkatearekin. GOIENA

Hizkuntza gutxituetako ikasleak formatzen

Hamahiru hizkuntza gutxitutako komunitateetatik etorritako hamasei pertsona izango dira gurean, azaroaren 9ra bitartean. Aurrez aurreko formakuntza saioak jasotzeaz gain, bisitak egingo dituzte euskararen inguruko dinamika ezberdinetan

Iñigo Barrena DEBAGOIENA

Garabidek antolatuta, Hizkuntzak Biziberritzeko Aditu Formazio Programaren hasiera ekitaldia egin zuten atzo Aretxabaletako udaletxean. Aurten, 13 hizkuntza gutxitutako komunitateetako 16 pertsona etorri dira Euskal Herrira Garabideren programaren eskutik, eta azaroaren 9ra arte egongo dira. Gurera etorri aurretik, online bidezko formakuntza saioak jaso dituzte eta orain, aurrez aurreko saioak izango dituzte. Honez gaiz, euskararen inguruan mugitzen diren dinamika ezberdinetara ere bisitak egingo dituzte, besteak beste, hedabideetara, ikastolara edo administrazioetako euskara zerbitzuetara.

Helburua, nola ez, gurean ikasitakoa ondoren euren herraldeetan aplikatzen saiatzea da, nahiz eta erraza ez den izaten. Hain zuzen, Iñaki Martinez de Luna Garabideko lehendakariak azpimarratu du, etortzen direnak harrituta gelditzen direla gurean azken hamarkadetan egin dugunarekin. "Ilusioa pizten die jakiteak Europa moduko toki batean, hizkuntza gutxitu baten

alde nola borrokatzen den ikus-teak, eta honek bizipoza ematen die, lan eginez gero posible dela ikusten dutelako", dio Martinez de Lunak.

Programa baliagarria

Nicacia Lino Mexikoko nawat komunitateetik etorri da Euska Herrira, eta "amets" egin daitekeela azaldu du hemengo egoera ikusita, ama hizkuntza belaunaldiz belaunaldi transmititu daitekeelako. "Guretzat ohorea da hemen egotea. Eredua zarete gure lurraldeen barruan borrokan jarraitu dezagun, eta ez dezagun ahaztu ama hizkuntza bat dugula", adierazi du Linok.

Hasierako ekitaldian, Gari Iturbe Aretxabaletako alkateak ere hartu zuen parte, eta uste du Garabideren programa honi esker guk ere asko ikasi dezakegula borrokan jarraitzeko: "Gu ez gara munduaren zilborra, eta Euskal Herrian daukagun egoera den modukoa da. Pertsona hauek gurera datozenean eta euren komunitateetan nola lan egiten duten jakiteak asko ematen digu guri ere".

**BISITATU
PISU PILOTUA**









Neinor HOMES

SAN ANDRES HOMES
• ARRASATE •

EZ OHIKOA

ZURE - ZUREA

Bizimodua aldatzeko etxebizitza estilo berri bat iritsi da

**GUSTATZEN ZAIZUNA
ALDATU GABE**

Bizikleta-aparkalekuak • Jolasguneak
Gourmet aretoa • Gimnasioa

900 11 00 22 • neinorhomes.com



ZABALIK

XABIER MUGARZA

Errebeldia 'gesto'-a

Normalean, momentuko gobernuaren edo ezarritako beste edozein botereren aurkako ekintzekin identifikatzen dira errebeldia-zeinuak; kasu gehienetan horrela izanda ere, azken 40 urteetan Euskal Herrian benetako errebeldia indarkeriaren aurka agertzea izan da; bereziki, E'TAren terrorismoaren aurka. Nire ustez, Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundea izan zen jarrera errebelde horretan nabarmendu zen elkarte.

Hori horrela izanda, askotan galdetu izan diot nire buruari zergatik ez nintzen Gestoren kontzentrazioetara sekula joan; ez Donostian, unibertsitatean, ezta Oñatiko plazan ere. Koldarra, eroso, epela... horiek guztiak egongo ziren tartean. Kontraesankorra dirudien arren, eredu garria iruditu zitzaidan Gesto hasiera-hasieratik. Hasiera haietako hainbat

OZENAGO ESAN DEZAKET GERTURATU EZ GINEN GUZTIOK OKER IZUGARRIA EGIN GENUELA

gestokide ezagutzeko aukera izan dut eta oraindik ozenago esan dezaket gerturatu ez ginen guztiok oker izugarria egin genuela, bazegoela zer egin herri honen odol jarria gelditzeko.


Biolentziaren inguruko ikus-entzunezko material ugari daukagun honetan, iaz Donostia Zinemaldian estreinatu zen eta duela aste pare batetik Filmin plataforman ikusgai dagoen Xuban Intxaustik zuzendutako *Gesto* dokumentala gertatutako hori ezagutu edo gogoratzeke tresna itzela iruditzen zaidanez, bailarako udal zein eskolei eskatu nahiko nieke beraien eskuetan dagoen dena egin dezatela, alde batetik, udal zinema aretoetan programatzeko eta, bestetik, DBHko ikasleekin lanketa egiteko erabili dezaten.

Nire generazioko guraso guztiei gomendatuko nieke ikustera joateko; seme-alaba nerabeak ondoan dituztela bada, hobeto.

Elkarbizitza lantzeko lagungarri izango dela ziur naiz, urte latz haietan bailarako herrietan isilean kontzentratzen zirenen lana izan zen bezalaxe. Izan bedi beraientzat nire zorion eta eskerrik ozen eta beroena.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Artelanak

ANDONI EGAÑA
'BERRIA'-N ARGITARATUA
[HTTPS://LABUR.EUS/HKFH](https://labur.eus/hkfh)

Vienako Arte Ederren Akademian eman nahi izan zuen izena Adolf Hitlerrek gaztetan. Ukatu egin zioten sarbidea. Batek baino gehiagok dio frustrazio horrek eraman zuela gerora ahalik eta artelan gehien harrapatu eta biltzera. Europako arte museorik osatuena egin nahi zuen Linz hirian...

Artelanen harrapaketa naziek egindakoak izango dira ezagunenak. Artelan horietako asko berreskuratu ahal izan ziren, eta egiazko jabeen eskuetara itzuli. [...]

Nola artelanez sosa mugitzen dituzten, legedia ere zorroztu zen garai batean. Eta baita hizkuntza ere. Berezi egiten dira espolioa eta sakeoa. Ez dakit zehatz-mehatz zertan datzan aldea. Segur aski, gerra garaian eginari deitzen zaio sakeoa, eta beste garai batzuetan eginari, espolioa. Noiz-nola da gutxienekoa, ordea. Lapurreta. Eta kito. Horregatik, Nafarroako Gobernuak bizkor azaldu behar luke non dauden Artozkin duela hogeitau urte harrapatu eta oraindik ere falta diren artelan haiek. Irudikatzen dut pertsona bat edo beste, itolarrian, etxetik koadroa hartu eta egoitza ofizialen batera eramanez...

ZUZENKETA

Joan den asteko GOIENAn, 4. orrian, *87 urte geroago "egia osoa" jakitea eskatu dute* izenburuko artikuluan, informazio okerra argitaratu zen. Espainiako gerrako errepresaliatuek eta haien senideek "erreparazioa eta justizia" eskatzen dutela zioen Intxorta 1937 Kultura Elkarteko Juan Ramon Garaik. Eta gehitu zuen: "Justiziak jarraitzen du beste albo batera begiratzen". Testu nagusian hala jasotzen zen, baina testua nabarmentzeko leihoan, *Justiziak* ordez *Eusko Jaurilaritzak* jartzen zuen. Ez zen zuzena; *Justiziak* behar zuen leiho hartan.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tifada: 18.500 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Erakundea osasuntsu dago, baina hobeto egon liteke"

ENKO ZIARSOLO ASPACEKO GURASOEN ELKARTEKO KIDEA

Julen Murua Mesonero BERGARA 2023ko Aspace Eguna ospatuko da zapatuan Donostian, eta, hori dela eta, Eneko Ziarsolok (Bergara, 1970) egunaren inguruan hitz egin eta erakundearen egoera zein den azaldu du.

Zein izango da Aspace Eguneko egitaraua?

Eguaztenean, Santa Maria basilikan, Donostian, Aspace Gipuzkoaren ongintzako kontzertua egon zen, Donostiako Orfeoiaresen eskutik. Bihar, zapatua, martxa inklusibo bat egongo da, Donostian. Alderdi Ederren hasiko da martxa goizeko 11:00etan, eta Ondarretaraino joango gara. Gonbita egiten diegu martxara datozeni Aspaceko kamiseta ekartzeko.

Gogotsu zaudete?

Bai. Aspace Egunean familiak eta erabiltzaileak elkartu egiten gara, eta bizi izan ditugun esperientziak elkarbanatzeko momentua izaten da. Jai eguna izaten da,



Eneko Ziarsolo eta, bere semea, Julen. ENKO ZIARSOLO

baina aldarrikapen egun bat izatea ere gure helburu nagusia da.

Horrelako egunek zer nolako garrantzia dute?

Oso garrantzi handia dute. Gure kolektiboak mugikortasun arazoak ditu, eta askotan ez da erraza jendea mugitzea. Horregatik da oso garrantzitsua kalera ateratzea eta ikusaraztea. Egunero egin beharreko

zerbait da, egia esan; baina bai, horrelako egunetan, batez ere, garrantzi handia hartzen duen kontua da.

Zer esan nahi du egun honek erakundearentzat?

"Piña" egiteko egun bat da, pilak berriro ere kargatzeko egun bat. Talde handia gara, baina talde are handiago bat sortu nahi dugu; gainera, ondo pasatzeko egun bat dela ere uste dut.

Duela bost hamarkada inguru sortu zen elkarte. Zein bilakaera izan du ordutik hona?

Asko aldatu da. Duela bost hamarkada ez zegoen garun paralisia duen edonoren egunerokoa aurrera eramateko aukera askorik; ez zeukaten eskolarik, eta asko etxean gelditzen ziren. Hori kontuan izanda, familiak hasi ziren sortzen eskolak – lehenengo Donostia inguruan eta gero gainerako herrietan–, eta familien bultzada horri esker joan da sortzen egitura. Gauzak asko aldatu dira horrenbeste urtetan; ezer ez izatetik zerbitzu on batzuk eskaintzera igaro gara. Baina oraindik badago zer egin inklusiorako bidean.

Zein dira eman beharreko hurrengo urratsak?

Hezkuntza aldetik inklusioa bermatu beharko litzateke. Eskola batzuk Aspaceko eskolak dira eta ez daude "eskola tradizionalen" barruan. Hori aldatu egin beharko litzateke eta inklusioa bermatu beharko litzateke era horretara, bertako jendearekin ahal duten ekintza guztiak partekatuz: jolas-ordua, heziketa fisikoa, musika... Oso garrantzitsua da eskolen inplikazioa eta bertako zuzendaritzako kideen eta

irakasleen partaidetza sustatzea. Hezkuntzaz gain ere badaude zereginak. Familietako kideok gure arnas momentuak behar ditugu: gure seme-alaba eta anai-arrebek lan asko ematen digute, eta noizean behin arnasa hartzeko beharra izaten dugu. Zaintzailea ere zaindu egin behar da batzuetan. Norbere bikotearekin egoteko momentuak behar izaten ditugu... Laguntza, azken finean.

Gizarteak ematen dio nahikoa garrantzia Aspace bezalako elkarte baten lanari?

Ez dakit. Ez dakit zenbateraino ezagutzen duen gizarteak Aspace eta zenbaterainoko barneratuta duen.

Nola dago elkartearen osasuna?

Badauzkagu boluntarioak, baina beti behar ditugu gehiago. Ikasleak eta lagundu nahi duen jendea etortzen da guregana. Erakundea osasuntsu dago, baina egoera fisiko hobean egon daiteke. Besoak zabalik dauzkagu, eta eskertuko genuke jendea etortzea gure erabiltzaileekin kalera irtetera edo kafe bat hartzera, esaterako. Aberasgarria da beste pertsona batzuk ezagutzea eta haiekin tarte bat igarotzea.



Realaren eta Mallorcaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Mallorca norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek:

Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik. Partida urriaren 21ean, 14:00etan, izango da.

Parte hartzeko azken eguna: urriak 15



Egin Goienakide eta Realak ikusteko aukera izango duzu!

goiena" kide

Okm: batzen gaituen distantzia

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!





Ordenantza fiskalak bozkatu zituzten unea. Aldeko hamaika bozka izan ziren. E.A.B.

Udal tasek %4ko igoera, 2024an

Datorren urteko ordenantza fiskalak onartu ditu Arrasateko udalbatzak, oposizioak aurka bozkatu arren; hala, %4ko igoera izango dute, oro har, tasek eta zergek, eta arazo ekonomikoak dituzten familiendako dirulaguntzak izango direla dio Gobernuak

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE 2024an %4 inguruko igoera izango dute, oro har, zergek eta tasek, udalbatzak hala onartuta. Joseba Ezpeleta Ogasun zinegotziak azaldu du "arduratik abiatuta eta arduratik egindako proposamena" aurkeztu diola Gobernuak udalbatzari: "Errazagoa izango litza-teke mantentzea, baina ez dugu egingo. Aurrera begiratu behar dugu eta epe ertainera begira ditugun beharrei erantzuten dien proposamena da honakoa".

Era berean, argi utzi gura izan du egoera zaugarrian dauden familiak eta arazo ekonomikoak dauzkatenak ez dituztela ahaztu. "Zergak ordaindu ditzakeenak ordainduko ditu eta ordaindu ezin dituenari lagundu egingo diogu, dirulaguntzen zein hobarien bitartez".

Jeltzaleek zein sozialistek aurka bozkatu dute. Ander Garay jeltza-

leen bozeramaileak argudiatu du ez dela beharrezkoa herritarrei zergak igotzea, Udalak badaukalako diru poltsa bat gordeta. Bide beretik jo du sozialisten bozeramaile Aritz Muruak ere. "Ja bost milioi euroko superabita daukagu. Ez genituzke zergak eta tasak igo beharko".

Kepa Urteaga EH Bilduren bozeramaileak nabarmendu du igoera beharrezkoa dela kalitatezko zerbitzua bermatzeko, eta Eva Abuin Elkarrekin Arrasateko zinegotziak gaineratu du diru-sarrerera handiak dituztenek gehiago ordainduko dutela eta arazo eko-

GOBERNUAK ADIERAZI DU BEHARREZKOA DELA IGOERA, "ZERBITZU DUINAK" ESKAINTZEKO

nomikoak dituztenek, aldiz, ez dutela ordainduko, "dirulaguntzak eta hobariak daudelako".

Igoera orokorra eta hobariak

Onartuta geratu dira 2024ko ordenantza fiskalak, eta aurrera egin du Gobernuaren proposamenak. Beraz, %4ko igoera izango da, esaterako, jarduera ekonomikoen gaineko zergan eta ondasun higiezin zergan. Azken horretan, familia ugariendako hobariak izango dira.

Halaber, %50eko erretegia aplikatuko zaie "ezohiko" etxebizitzetara, hau da, Gipuzkoako Katastroan etxebizitza erabilera duten eta subjektu pasiboaren edo hirugarren baten ohiko etxebizitza ez diren alokatu gabeko ondasun higiezinak.

Era berean, ibilgailu txikiei ez zaie igoerarik aplikatuko, baina bai ibilgailu ertainei eta

Kaleratzeak Stop taldearen mozioa

Osoko bilkuran, Kaleratzeak Stop plataformak mozio bat aurkeztu zuen, Arrasaten, alokairuen prezio altuak direla eta, tentsio handiko eremuak izendatzeari eta horietan estatuko Etxebizitza Legeak ezartzen dituen mugak gauzatzeari buruzkoa. Juan Luis Merino plataformako kideak hartu zuen berba, etxebizitza eskubidearen aldeko borrokaren garrantzia nabarmenduz. "Bide luzea dugu oraindik egiteko; etxebizitzarekin daukagun arazoa larria da. Beraz, Arrasateko Udalari eskatzen diogu Eusko Jaurilaritari eska diezaion Arrasate tentsio handiko eremu izendatzeko". Adibide batzuk ere jarri zituen: "Uribe auzoan, 1.000 euroko alokairuak daude, eta San Andresen, 800 eurokoak. Prezio onartezinak dira; etxebizitza funtsezko eskubide bat da guztiontzat".

Kepa Urteaga EH Bilduren bozeramaileak zera azpimarratu zuen: "Arrasaten etxebizitzarekin daukagun arazoa larria da eta ados gaude mozioak eskatzen duenarekin". Era berean, Johanna Sanchez sozialista eta Podemos Arrasateko Eva Abuin ere ados azaldu dira, aldeko botoa emanez. Ander Garay jeltzaleak, bestalde, estatuko Etxebizitza Legeak Euskadiren eskumenak ukatzen dituela argudiatu zuen eta, beraz, jeltzaleak abstenitu egin ziren. Edozelan ere, aurrera egin zuen mozioak.

handiei, %4koa eta %5ekoa, hurrenez hurren. Halaber, hobariak izango dituzte ibilgailu elektrikoek eta hibridoek, zerga kuotaren %95eko eta %75eko hobariak, hurrenez hurren. Ibilgailu historiko gisa katalogatutakoek, azkenik, %100eko hobaria izango dute.

Hiri-lurren gaineko balioa gehitzearen gaineko zerga ere %4 igoko da, eta 10 eta 15 urte arteko karga-tasak, aldiz, %10eko igoera izango du. Eraikin, instalazio eta obren gaineko zergan ere hainbat hobari izango dira. Baserrietako birgaitze obrek, adibidez, %90eko hobaria; baserrietan teilatua konpontzeko obrek, %95ekoa; edota babestutako etxebizitzetako birgaitze lanek, %50ekoa. Horiez gain, askotariko hobariak egongo dira energia berriztagarriak sustatzeagatik, pertsona ezinduen irisgarritasuna xede duten obretan eta abarretan.

Bestalde, Ezpeletaren esanetan "oso defizitarioak" diren zerbitzuen kasuan, %5eko igoera aplikatuko da, hala nola hauetan: hilerriaren zerbitzua, edateko uraren hornikuntza eta saneamendua, azpiegitura hidraulikoaren tasa, kontagailuak man-

tendu eta kontserbatzeko tasa, hiri hondakin solidoak biltzeko zerbitzuaren tasa.

Gainontzeko hauetan, aldiz, igoera %4koa izango da: etxez etxeko zerbitzua, tutoretzapeko etxebizitza zerbitzua, azoka, Udal Euskaltegia, ingurumen hezkuntzari buruzko jarduerak, ibilgailuak bide publikotik eramateko eta ibilgailuok zaindu eta ibilgetzeko zerbitzua, TAO-ren tasa, adinekoentzako jantoki zerbitzuagatik tasa, hautaketa prozesuetan parte hartzeko tasa, eta Garagartzako ortu ekologikoen zerbitzuaren tasa.

Kiroldegiko tarifetan ere aldatetak egongo dira, %4ko igoera orokorrarekin, eta, berrikuntza gisa, 65 urtetik gorakoendako urteko abonua tasa egongo da.

Hiru zinegotzi berri

Bestalde, EAJko Ibon Arrupek, Amaia Zeziagak eta Xabier Arrizabalagak zinegotzi kargua hartu dute –Maria Ubarretxenaren, Jon Apraizen eta Asier Muxikaren ordeez–.

Mozio bat erretiratu dute

Katearen Loturak elkarteak mozioa erretiratu du, Gobernuak hainbat konpromiso hartu dituelako: osasun mentalaren zaintzaren politikak aurrera eramatea, patologia dualen inguruko formazioa eta ezagutza zabaltzea, elkarrekin eta udalaren harremana sendotzea eta mantentzea, eta lan-ildoak elkarrekin diseinatzeko konpromisoa.

OPOSIZIOAK DIO EZ DAGOELA ZERGAK ETA TASAK IGOTZEKO BEHARRIK: "UDALA OSASUNTSU DAGO"

"Janari ultraprozesatuak identifikatzea zaila da"

JAVIER SANCHEZ PERONA ZIENTZIALARIA ETA KOMUNIKATZAILEA

Nagusien Astearen baitan, arrasatearrak hitzaldia eta tailerra egin zituen joan den astean, berak idatzitako 'Los alimentos ultraprocesados' liburua ardatz hartuta

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE CSICeko zientzialaria da Javier Sanchez (Arrasate, 1973), eta irakaslea ere bada Sevillako Pablo de Olavide unibertsitatean. **Zer harrera izan zenuen Arrasaten?** Zoragarria izan zen. Esaerak dio inor ez dela profeta bere herrian. Ez dakit profeta naizen, baina aurreikusitako baino jende gehiago etorri zen; beraz, oso pozik nago harrerarekin.

Zer da elikagai ultraprozesatu bat? Definizio zaila eta anbigua da, baina nik hala laburbilduko nuke: prozesu industrial bat jasan duen elikagai bat, lehengai ezagutzen ez duguna. Azken batean, elikagai berri bat. Azukre, koipe ase eta gatz kantitate altuak izan ohi dituzte, kolozatzaile, aroma eta bestelakoekin batera.

Nagusien Astearen zinen. Zer garrantzi du nagusiengan elikagai ultraprozesatuak sailhesteak?

Oraindik ez da zehazki landu gai hori. Izan ere, ultraprozesatuen gaineko ikerketak oso berriak dira, terminoa bera 2009an proposatu baitzen eta definizioa 2015ean egonkortu. Bestalde, adin nagusikoek ez dituzte gazteek beste kontsumitzen janari ultraprozesatuak. Hala ere, edozein adinetan saihestu edo murriztu beharko genituzke. Evidentzia zientifikoak diosku elikagai hauen kontsumoak obesitatea pairatzeko arriskua %40 hazten duela, eta diabetesaren kasuan, %75. Elikagai hauetako zati bat gure dietan txertatzean, gaixotasun kardio-baskular bat izateko arriskua %7 hazten da, eta gaixotasun horien ondorioz hiltzeko arriskua, %9.

Zertan eragiten digute?

Mekanismoak ezezagunak dira oraindik, baina uste dugu azukrearen, koipe asearen eta gatzaren kontsumo altuarekin zerikusia izan dezakeela. Horrez gain, mendekotasuna eragin



Javier Sanchez Perona, liburuaren idazlea. MAR SANCHEZ (CSIC)

"SEGURUENIK, NIRE BIZITZAKO HITZALDI HUNKIGARRIENA IZAN ZEN ARRASATEN EGINDAKOA"

dezakete, burmuineko oreka mekanismoak estimulatu dituztelako.

Zein beste gaitz eragin ditzakete? Elikagai hauen kontsumoak Alzheimerrekin eta minbiziarekin erlazionatzen dituen datu batzuk ditugu. Halaber, depresioarekin eta bestelako buruko gaitzekin duten harremana ere ikertzen ari dira.

Kontsumoa gora egiten ari da?

Nahiko ebidentea da, baina ez daukagu datu eguneraturik. Espainia mailakoak 2010ekoak dira, eta Euskal Herri mailakorik ez dut ezagutzen. Osasun eta kontsumo arloko hainbat autoritatek ez dute terminoa onartzen, eta ultraprozesatuen kategoria ez dute txertatzen haien inkestak ofizialetan.

Nola saihestu beharko genituzke? Zaila da, leku guztietan daudenez gero.

Tailer bat ere egin zenuen Arrasaten. Zertan oinarrituta zegoen?

Ultraprozesatuak identifikatzea zen helburua, zegoen kategorian jarrita. NOVA sailkapenaren arabera da; lau talde daude. NOVA 1 taldean, prozesatu gabe dauden elikagaiak edo oso gutxi prozesatutakoak daude; NOVA 2 taldean, sukaldaritza osagaiak; NOVA 3 taldean, elikagai ultraprozesatuak, eta azkenengoan, ultraprozesatuak. Parte-hartzaile bakar batek ere ez zituen guztiak asmatu; oso zaila da identifikatzea.

Arrasatearra zara. Gaur egun, ze harreman duzu zure jaioterriarekin?

Zoritxarrez, nahi nukeena baino gutxiago. 23 urterekin joan nintzen eta 50 urte ditut. Edozelan ere, beti esango dut arrasatearra naizela. Han jaio eta hazi nintzen, eta, familiaren gain, hango lagun asko ditut. Ahal dudana guztietan itzultzen naiz, nahiz eta inoiz ez den nahikoa.

Hemengo hitzaldia ere berezia izango zen, beraz.

Noski. Sekulako ilusioa nuen eta, seguruenik, nire bizitzako hitzaldi hunkigarriena izan zen. Hainbeste senide eta lagun ikustean oilo-ipurdia jarri zitzaidan.



NIRE USTEZ

ANDER GARAY

Batzordeak

Legealdi berri guztietan bezala, udaleko antolaketa berriekin etortzen dira batzorde berriak. Arrasateko kasuan, aurreko legealdiko batzorde kopuru berarekin jarraitzen dugu, baina gauza batzuk aldatu dira.

Legealdia hasi denetik hiru hilabete pasata, gaur-gaurkoz ez da ez Hezkuntzako ez Kiroletako batzorderik deitu, Enplegu eta Merkataritzako bakarra, baita Euskarakoa ere, eta bilerako gai guztiak landu gabe zeudenean, Euskara zinegotzia bileratik joan eta bertan behera geratu zen.

Ez dugu uste lan egiteko moduak direnik lehen hiruhilabetea pasata Kirola eta Hezkuntza bezalako batzordeak deitu gabe egotea, 30 gaitik gorako batzordeak izatea, eta zinegotzi ordezkariak gaiak jorratu aurretik joan eta batzordea bertan behera geratzea. EAJko ordezkariok oposizio eraikitzailea egin nahi dugu eta batzordeei garrantzia handia ematen diegu, informazio trukaketa eta lanketarako foro garrantzitsuak baitira. Mesedez eskatzen diogu Arrasateko alkateari batzordeen funtzionamenduari garrantzi handiagoa emateko.



ARRASATEKO DENON BIZITZAK ERDIGUNEAN

Lehen asanblada mistoa

Greba Feminista Orokorriari begirako lehen asanblada mistoa egin dute asteen, eta "arrakastatsua" izan zen, Arrasateko Denon Bizitzak Erdigunean taldeko kideen esanetan. Hurrengo bilera urriaren 18an egingo dute, Etxaluzeko Solozar gelan, 18:30ean. "Herritar guztiei zabaltzen diegu parte hartzeko deia", nabarmendu dute.

Ekin Emakumeen hainbat ikastarotan lekuak geratzen dira

Ekin Emakumeak Elkarteak antolatzen duen yogaterapia ikastaroa urriaren 10etik abenduaren 19ra egingo dute, martitzenetan, baina ordu aldaketa dago. Izan ere, 14:30ean egin beharrean, 19:30ean egingo dute. Bestalde, *static dance*, yin tao eta joskintza ikastaroetan hainbat plaza libre daudela ohartarazi dute elkartetik.

1943an jaiotakoak urriaren 28an elkartuko dira

12:30ean elizkizuna izango dute San Juan Batailatzailearen parrokian eta, ondoren, argazkia aterako dute, urtero moduan, parrokiaren kanpoaldean. Poteoaren ostean, 14:30ean dute bazkaltzeko hitzordua, Buenena jatetxean. Izena emateko, hiru telefono zenbaki jarri dituzte: 665 72 25 12, 667 86 90 84 eta 688 68 84 88.



Txikiteroak ondo zainduta daude

Arabar Errioxatik etorritako ardo guztia dagoeneko prest dago eta, eguraldia lagun, arrasatearrek ez dute aitzakiarik elegante jantzi eta kalera irteteko; Maritxu Kajoi Komisiñuak berrogeita laugarrenez prestatu du txikiteroen ama birjinaren egun handia

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Iritsi da eguna. Guztia prest dute Maritxu Kajoi egunerako. "Ardorik ez da faltako gaur. Tabernariak egin beharreko eskariak egin dituzte aste honetan eta banatzaileak ere gelditu barik aritu dira lanean. Maritxuk berak ere miraria prest izango du dagoeneko; beraz, guztia prest daukagu", nabarmendu du Jokin Zubiriak, Maritxu Kajoi Komisiñoko kideak.

Badu zerbait berezia gaurko egunak. "Kuadrillako Whatsapp taldeak asaldatu egiten dira azken egunotan, eta aspaldi ikusi bako lagunak ere agertzen hasten dira Maritxu Kajoiaren aitzakian. Bazkaltzeko tokia bermatu ostean, norbere etxeko trajeriak dotoreenak kalera aterako dituzte arrasatearrek", gaineratu du Zubiriak.

Gaur goizean hasi eta bihar goizera arte luzatuko dute festa. Izan ere, egubakoitza hasteko, txokolate beroa jan dute goizean goiz, 06:00etan, "pintxo-poteko nostalgikoendako". Etxafuegokin festarako txinparta piztu ostean, 12:00etan irekiko dute Monteazpiko txosnagunea, txi-

kiteoaz gozatzeko. Bazkalostean, haurrendako aisialdi eskaintza hezitzailea egongo da, 17:00etan hasita. Horri dagokionez, Zubiriak azaldu du Txatxilipurdirekin duten elkarlana zabaldu egin dutela aurten. "Hala, ludoteketako hezitzaileekin batera, eskaintza hezitzaileago bat egin saiatu gara, umeen beharrak eta jolasteko gogoak erdigunean jarriko dituen". Ondoren, Oria txarangaren doinuak izango dira entzungai Herriko Plazan eta inguruan, Maritxu Kajoiaren miraria iritsi bitartean. 20:30ean izango da hori, lore eskaintzarekin batera. Elektrotxarangaekin beste apur batez jarraitu ostean, Luhartz taldearen emaldia egongo da 23:00etan plazan eta, hori bukatzean, bihar goizera arte luzatuko da festa. "Gau osoko festaren ostean, eta etxera joaten ez dakienarendako,

GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS'-EN ZUZENKO SAIOA IKUSI AHAL IZANGO DA, 20:00ETAN HASITA

Izenbarikuak txarangak girotuko du bihar goizalde, txosnagunetik abiatuta", dio Zubiriak.

Argazki herrikoia 13:30ean

Aurten eskapulario berdea izango da, eta atzeko mezua azaroren 30ean egingo duten Greba Feminista Orokorriaren keinu bat egiteko baliatu dute: *lanbide eta langintza, feminismoa baldintza, geldituz bagabiltza; gurea bada hitza, greba da gure ekintza: jarri erdian bizitza!*. Era berean, Greba Feminista Orokorriaren aldeko argazki herrikoia aterako dute 13:30ean txosnagunean, "aldarrikapena eta festa eskutik doazela erakutsiz", Arrasateko Denon Bizitzak Erdigunean taldeko kideek azaldu dutenez. "Egun berezi eta dotore honetan ere feminista guztiena izango da hitza eta ekintza denon bizitzak erdigunean jartzeko, eskapularioko mezuak dioen bezala. Animatu grebarekin bat egitera!", gaineratu dute.

Eskapularioari dagokionez, azkenik, tabernetan salgai jarriko dituzte eta gaur goizean Arbolapetan eskuratu ahal izan-



Hiru kartel, laguntasuna ardatz

laz moduan, aurten ere Ane Agirrek eta Miren Barrenetxeak egindako kartelak irudikatuko du gaurko eguna eta, azaldu dutenez, kartelaren gai nagusia laguntasuna da. "Orainaz gozatzeko momentua. Maritxutan, maite ditugun pertsonen inguratzen gara mahai baten bueltan, eta horrelako momentu simple baina polita islatu nahi izan dugu gure proposamenean", diote. Halaber, diseinurako txuri-beltzeko argazki bat erabiltzea ere neurtutako erabakia izan da. "Bi laguneren arteko besarkada hori ez da berriro berdin emango, denboran izoztuta dago. Unean unekoa bizitzeko deia egin nahi dugu, maite ditugun pertsonekin eta nahi dugun modura".

Perspektibarekin jolasten

Une bera hiru perspektiba ezberdinetatik ikustea interesgarria iruditu zaiela aitortu dute. "Izan ere, gertaera bat, une bat, era ezberdinetan interpretatu daiteke, bakoitzak berera. Batekin edo bestearekin gehiago identifikatuta sentitu gaitzke eta horren guztiaren lotura interesgarria iruditzen zaigu".

Bi egileen bide profesionalen diseinua oso presente dago, diseinu grafikoa eta web diseinua, alegia. "Beraz, diziplina ondo menperatzen dugu. Gainera, txikitatik ezagutzen dugu elkar; oso konexio ona dugu, eta oso erraz ulertzen dugu elkar", diote.

go dira. Arratsaldean, berriz, kalean salduko dituzte komisioko kideek, agortu arte.

Inbutu preziatua, AGAKOrentzat Urteroko ohiturari jarraituz, Maritxu Kajoi eguna baino

astebete lehenago, hau da, joan den egubakoitzean, *nobenaixua* egin zuten Herriko Plazan eta AGAKOk jaso zuen inbutu preziatua, Arrasateko Gazte Alternatiboaren Kofradia Organizatuak. Antolatzaileek Ma-

Gora Maritxu Kajoi!

Adara

ILE-ARRASATE

Tel: 943 08 10 68
Biteri etorbidea 15 beheak
adarailespaindegia@gmail.com
Arrasate

PARLANCE LANGUAGE SCHOOL

IRLANDAN
hizkuntza egonaldiak

Ferrerias kalea 26 • Arrasate • 943 77 06 83
www.parlance-idiomas.com

GALLAS
Leiho eta pertsiana konponketak

Gora Maritxu Kajoi!

PVC eta aluminioa
Ardatz aldagarriko leihoak
Pertsiana motorizatuak

617 81 38 02
gallasleiho@gmail.com



Maritxu Kajoiak mirari egin zuen unea, iaz. Ohi moduan, jendetza batu zen Herriko Plazan. GOIENA

ritxuk AGAKOri zuzendutako gutuna irakurri zuten ekitaldian, eta hala azaldu zuen komisioko kide Jokin Mendizabalek zergatik erabaki duten aurten AGAKO omentzea: "32 urtez herritik eta herriarentzat lanean dabilen eragilea da, beti egitarau zabal bat eskaintzen. Jaietan ere beti izan dugu elkarlana, eta oso eragile inportantea da".

AGAKOko kide Beñat Barrenak nabarmendu zuen "ohore bat" dela inbutua jasotzea: "Pozgarria da. Beti egon da harreman ona komisioren eta AGAKOren artean; elkarlanerako joera naturala daukagu. Gaztetxea denondako lekua da, baina ez parrandarako bakarrik; bestelako ekintzetarako ere etorri beharko litzateke jendea. Gero eta jende gehiago, orduan eta hobeto".

Goienak, zuzeneko saioa

20:30ean izango da eguneko momenturik berezienetako bat, Maritxu Kajoiak orduan egingo baitu miraria, eta Goiena telebistako kamerak Herriko Plazan izango dira, han gertatzen dena bertatik bertara erakusteko. Ordu erdi lehenago hasiko dute zuzeneko saioa, 20:00etan, kaleko giroaren berri emateko, eta egunak emandako guztia ere jasoko dute saio horretan, Goiatz Arana, Aitor Agiriano eta Andrea Gonzalez kazetarien eskutik. Modu horretan, Agirianok eta Gonzalezek herritarren esperientziak jasoko dituzte. Horrez gain, hurrek loreak nola saltzen dituzten ere erakutsiko dute eta Mondragon Hoteleko bazkariak emandakoaz ere gozatu ahal izango dute ikus-entzuleek. Goiena telebistan ez ezik, *Goiena.eus* webgunean ere ikusi ahal izan-

go da saioa. Era berean, gonbidatu bereziak egongo dira, Maite Albes estilista eta Ane Goikoetxea dietista, esaterako. Ondoren, esan moduan, txikite-roen zaindariaren miraria zuzenean jarraitu ahal izango da.

Eraso matxistak prebenitu guran

Arrasateko Udaleko Berdintasun Sailak urteak daramatza herriko jaien bueltan izan daitezkeen indarkeria matxistei aurre egiteko baliabideak herritarren eskura jartzen, eta aurtengoa ere ez da salbuespena izango, Emakume Txokotik azaldu dutenez. "Maritxu Kajoi jaiari begira, indarkeria matxistarik gabeko aldarriarekin batera, euskarri edo askotariko baliabideak plazaratuko ditugu".

Arbolapetako gunea, 18:00etatik 00:00etara

18:00etatik 00:00etara Arbolapetan kokatuko duten *Indarkeria matxistaren prebentziorako eta sentsibilizaziorako gunea* da baliabide horietako bat, "herritar oro indarkeria matxistaz kontzientziatzeko jai eremuan kokatutako informazio gunea", hain zuzen. "Indarkeria sexistan eta autodefentsa feministan adituak diren emakumeak egongo dira, gerturatu nahi duten emakumeak* eta neskak* zein LGTBI+fobia pairatu dezaketen pertsonen askotariko erasoen gaineko bizipenak eta iritziak jasotzen", azaldu dute. Horrez gain, *Eraso matxistak ez gertatzeko gizon eta mutilak ohartarazteko gunea* ere egongo da.

Arreta puntua eta telefono zenbaki bat ere bai

Bestetik, *Eraso matxisten aurrean arreta eta esku-hartzerako puntua* ere izango da Gazte Bulegoan, 00:00etatik 08:00etara. "Jaietan gertatzen diren edozein intentsitatetako eraso matxisten aurrean, erasoa jasan duenari aurrez aurreko nahiz telefono bidezko arreta emozionala zein bide-laguntza eskaintzea du xede arreta puntuak", azaldu dute. Halaber, aholkularitza ere eskainiko dute.

Azkenik, jaietarako propio sortu duten arreta telefonoa egongo da 18:00etatik 08:00etara. Telefono zenbakia 688 809 137 izango da eta hainbat lekutan egongo da ikusgarri.

Goienaren 'photocall'-a plazan

Urtero moduan, Goienak *photocall*-a jarriko du Herriko Plazan, alfonbra gorri eta guzti, herritarrek haien jantzi dotoreak erakusteko aukera izan dezaten. 12:30etik 14:30era eta 17:00etatik 19:00etara egongo da horretarako aukera. Gainera, haien argazkia gaur bertan jaso ahal izango dute herritarrek, Whatsapp bidez. *Goiena.eus*-en ere ikusi ahaliko dira.



Lagun talde bat, iaz, plazako *photocall*-ean. IMANOL SORIANO

Gualbi
aholkularitza
Eraña aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOALKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Gora Maritxu Kajoi!

Jokin Zaitegi plaza 6 (Arrasate) • 943 79 83 95 • erana@aserana.com • www.gualbiasesores.com



"2017ko eskapularioa da bildumako bereziena"

NAGORE LLODIO ARRASATEARRA

Gaur, egubakoitzean, ospatuko dute arrasatearrek 2023. urteko Maritxu Kajoi eguna, eta, ohiturarekin jarraitzeko, Nagore Llodio aurtengo eskapularioa ere gordeko du

Julen Murua Mesonero ARRASATE
Iritsi dira 2023. urteko Maritxu Kajoi jaiak eta, urteroko legez, eskapularioak eramango dituzte arrasatearrek kolkotik zintzilik. Nagore Llodio (Arrasate, 1980) tradizio bat jarraitu du urte askoan zehar: eskapularioak urtez urte gordetzea. Haren esku egon den bakoitzean lortu du bilduma osatzeko eskapularioa; aurtengo ere, ez du huts egingo.

Noiztik egiten duzu eskapularioen bilduma?

1989. urtetik aurrerako eskapularioak gordetzen ditut, kalera irteten hasi nintzenean hasi nintzen eskapularioak gordetzen, eta gaur arte.



Nagore Llodio haren eskapulario bildumarekin. NAGORE LLODIO

Zerrek bultzatu zizun eskapularioak gordetzera?

Nire lehengusu nagusiek gorde egiten zituzten eskapularioak, eta, hori dela eta, nik ere tradizio berbera jarraitzea erabaki nuen.

Urteren baten hutsik egin duzu?

Azkenengo bi urteetan ez da eskapulariorik egon, beraz, horiek ezin izan ditut lortu, baina gainontzeko guztiak badituzte gordeta. Kalera irtetea ezinezkoa izan zaidan horietan ere lortu dut eskapularioa etxera ekarri eta gordetzea.

1989 aurreko eskapularioak lortu dituzu?

Nire lehengusuak ba omen du baten bat gordeta, baina ez, ez naiz saiatu lortzen.

Zein garrantzia du honek guztiak zuretzat?

Polita iruditzen zait. Azkenean, herritik eta herriarentzat sortutako jai bat da. Eskapularioak, gainera, sinbolo oso garrantzitsuak dira jai honetarako. Sinbologia berezi hori izatea oso polita iruditzen zait eta horregatik gordetzen ditut.

Baduzu gordeta bereziki gustuko duzun eskapulariorik?

Nire alabaren urtebetetze eguneko eskapularioa da gordeta ditudan guztietatik niretzat garrantzia handiena duena –2017koa da eta egitaraua ere gordeta du—. Aurtengo ere jaso beharko genuke, baina kontu ezberdinak direla eta ez nuen inprimakia garaiz bidali eta, beraz, aurtengo ez da zerrendan agertu. Hala ere, lagun baten bitartez lortu dut niretzat egitaraua inprimatuta lortzea. Beraz, aurtengoa ere oso ondo gordeko dugu, nahiz eta nire alaba agertuko ez den.

Datozen urteetan ere tradizio berearekin jarraitzeko asmorik ba al duzu?

Bai, noski. Orain arte 1989. urtetik aurrerako guztiak gorde ditut, eta, beraz, hemendik aurrerakoak ere gordeko ditut, edo hori espero dut.

Zure alabari belaunaldiz belaunaldi tradizio honekin jarraitzeko testigua emango diozu?

Bai, emango diot. Ez da erraza horrenbeste urtetan zehar tradizio honekin jarraitzea, eta, beraz, ez dakit zenbat iraungo duen tradizioarekin –asko irautea espero dut—. Baina bai, emango diot testigua.



EZ DUGU IZATERIK ASKE HAIEK GABE
Unai, Arbe eta Peixoto Arrasateara!
 IRATI · TAUPA · BASATI · ILUNTZ
 JAI ZALE · DAT · OSORIK





Rafa Etxabe eta komisioko gainontzeko kideak, 1985eko Maritxu Kajoi egunean. ARRASATE PRESS

Garai bateko Maritxu Kajoi egunak gogoratzen

1977an ospatu zen lehenengo Maritxu Kajoi eguna Arrasaten, eta, orduetik, milaka istorio eta bitxikeria bizi izan dituzte herritarrek. Ohiturak ere aldatu dira urte hauetan guztietan, baina badago zer kontatu urteetan zehar bizitakoaz

Julen Murua Mesonero ARRASATE
Familia eta lagun talde ugari elkartzen ditu Martixu Kajoi egunak urtetik urtera. Aurten ere horrela izango da, eta jaia egiten hasi ziren urtean ere – duela lau hamarkada baino gehiago dagoeneko – horrela izan zen. Maritxu etako tradizio nagusia belaunaldiz belaunaldi igaro da, eta gaur egun ere jarraitzen dute arrasatearrek zein inguruko herrietatik etorritakoek Arrasateko kaleak apaintzen haien jantzi beltzean, eskapularioa ere kolortik zintzilik dutela.

Hala ere, badira hamarkadak hamarkada joan eta hamarkadak etorri, hainbat arrazoi tarteko, alde batera uzten diren ohiturak. Hori bai. Noizbait ohitura horiek izan dituenak ez ditu erraz ahazten orduan bizitakoak.

1985eko Maritxu Kajoi

Rafa Etxabe arrasatearra eta haren komisioko gainontzeko lagunak, esaterako, diligentzia batekin eta zaldi batekin irten ziren Maritxu Kajoi egunean. Etxabek dio hasiera batean urtero egiten zutela horrelako zerbeit: "Hau 1985ekoa da. Liza-

rrako antigoaleko gauzen denda batetik hartu genuen diligentzia, eta zaldia nirea zen".

80ko hamarkada hasieratik gauzak asko aldatu direla dio Etxabek: "Orduan goizetik gu bakarrik irteten ginen, eta gainontzekoak arratsalde partera batzen ziren. Garai hartan jendeak ez zuen jai hartzen Maritxu egunerako".

Urteroko miraria

Bazkalostean gertatzen zuten "mirari" gisa ezagutzen dutena. Urte bakoitzean gauza ezberdin bat egitea bururatzen zitzairen, eta, ostean, txupinazora joan eta *Maritxu nora zoaz?* abesten zuten. Mirari ezberdinak egin zituzten urtetik urtera: iturri batetik ura atera beharrean ardoa atera, dirua jaurti, leiho batetik elurra jaurti... Baina badago bat bereziki gogoratzen duena: "87an, Elizarekin talka bat izan genuen; isilean, Ama Birjinaren ordezkari eskaiolazko bat jarri genuen, eta motor bat jarri genion; miraria zen txupinazoa jotzen eta abesten hasten ginenean koreografia bati jarraitzea".

ALDEDI

Gora Maritxu Kajoi!

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84



Iñigo Arizmendiarieta, Oxel Luengo eta Andoni Etxeberria, Azkoagainen gola ospatzen. GOIENA

Bidea luzea da, baina ezin hobeto hasi dira

Ligako lehen hiru jardunaldietan Aloña Mendi, Soraluze eta Anaitasuna menderatu eta gero, Gari Nuñezen Mondra Gorengo mailako lehenengo postuan kokatu da. Aitor Azkarate *Aiti*-rekin egon da GOIENA, taldeko kapitainarekin

Xabier Urzelai ARRASATE

Mondrak lehenbailehen nahi du ekainean galdutako kategoría errekuperatu, alegia, Ohorezko erregional mailara bueltatu. Eta horretarako egin beharreko lanak ondo hasi dituzte. Hiru partidu jokatu dituzte, eta hirurak irabazi. Hala, Mondrako lehenengo taldean 13 denboraldi beteko dituen Aitor Azkarate garbi dauka Aloña Mendiren kontrako partidua irabazi izana garrantzitsua izan dela bolada onari heltzeko. "Derbia irabazteko motibatuta geunden, eta ondo hastea beti da lagungarri. Gero etorri dira Soraluzeren (2-0) eta Anaitasunaren (2-0) kontrako garaipenak, eta taldea orain konfiantza handiarekin ikusten dut, eta jokalaria ikusituta".

Jokalariai konprometituta

Azken hori ez da gauza berria, Azkaratek ondo gogoan duela iaz zelán amaitu zuten urtea. "Azkeneko postuan geundean,

eta maila galduko genuela jakinda ere, 25 jokalariai batzen ginen entrenamendu saioetan. Horrek erakusten zuen zein zen jokalarien konpromiso maila, eta hori ez da aldatu; iazko bloke berdinari eusten diogu". Mondrako kapitainak aitortu du iaz zela futbola uztekoa. "Baina ezin nuen Mondra arantza horrekin utzi, mailaz jaitsita. Beste urtebetez jarraitzeko erabakia hartu dut, eta berriro ere taldea dagokion tokira igotzen lagundu nahiko nuke".

"MOJATEGIN BAI, BAINA KATEGORIAKO ZELAI TXIKIETAN ERE PUNTUAK BATU BEHAR DITUGU"



AITOR AZKARATE
MONDRAKO
KAPITAINA

Aurreko postuetan

Azkaratek badaki urte osoan lidergoari eustea ez dela izango erraza. "Baina hori egon behar dugu, lehenengo postutik gertu. Ez da izango erraza, kategoría honetan beti egoten direlako bi edo hiru oilar, eta horrekin batera Antzuolako, Soraluze edota Zestoako moduko zelai txikietan irabaztea ez delako erraza; kontrarioak edozein momentutan harrapa zaitzake ezustean. Gure ezaugarriengatik Mojategin ondo moldatzen gara, baina beste zelai horietan ere jokatzeko jakin behar dugu, eta puntuak batu".

Intentsitateaz jokatzeko

Hori da Gari Nuñez entrenatzaileak eskatzen diena. "Ideia nagusia da atea hutsan mantentzea, horrek gutxienez puntu bat ematen duelako. Eta intentsitatez jokatzeko eskatzen digu, erasoan agresiboak izateko". Hurrengo geltokia Zumaian dute zapatuan, 18:15ean.

Etxeko lehen jokatu du Mugarri Ingouk domekan

Ane Herreroren mutilek Hondarribia Bidasoaren kontra jokatu dute etzi, 13:00etan, Iturripen

X.U. ARRASATE

Gipuzkoako Ligan egingo duten bigarren denboraldia hasi dute Mugarri Ingou taldeko senior mailako mutilek, eta ligako estreinua ez da nahi bezalakoa izan. Donibaneren kantxa beti da zaila, eta ligako lehenengo jardunaldia ez da salbuespena izan, arrasatearrek joan den astean 31-21 galdu zuten eta.

Domekan (13:00, Iturripen) kosaldeko beste talde bat izango dute aurrean, hain zuzen, joan den astean bergararren kontra 27-22 irabazi zuten Hondarribia.

Gazte mailako neskek, gertu

Gazte mailako Ingouko neskek, berriz, liga hasteko gogoz daude, joan den asteko lehenengo jardunaldian atsedena izan zuten eta. Domekan estreinatuko dute, horrenbestez, liga txapelketa, eta 10:00etan hasita Oriokoak izango dituzte aurrean, Iturripen.

Eta jarraian jokatu dute, Iturripen baita ere, Ingou Arrasate taldeko gazte mailako gizonetakoek. 11:30ean, Legazpiko Karibe Zaharrekoak izango dituzte aurrean. Joan den astean arrasatearrek 14-32 galdu zuten.



MONDRATEK

Taldeak aurkeztu ditu Mondratek

Mondrate areto futbol klubak talde argazkiak egin ditu Monterronen. Arrasatearrek guztira lau talde dituzte: talde nagusia maila nazionalan dago, hirugarren mailan, eta Gipuzkoako bigarren mailako taldea ere badute. Harrobian, berriz, gazte mailako eta kadete mailako taldeak. Guztira 36 jokalaria dituzte aurtan –argazkian, kategoría guztiak batera–.

'Control Freak' ikuskizuna, domekan JAMEn (19:30)

Zuzeneko musika, umorea, zirkua eta puntako teknologia batzen ditu *Control Freak* izeneko ikuskizunak, eta hori guztia egiteko artista bakarra igotzen da taula gainera. Kulu Orr artistak 25 urte daramatza antzerkian, zirkuan eta musikan. Eta fisika eta informatika ezagutzak ere batzen ditu ikuskizunean. Sarrerak 10 euro balio du.

Danimarkako The Movement Koolturen, urriaren 12an

Datorren egunean, hilak 12, The Movement iritsiko da Arrasateko gaztetxera, Kooltur egitasmoaren barruan (22:00, sarrera 7 euro). Danimarkako rock banda hau biran dago, eta urriaren zehar zenbait emanaldi egingo dituzte inguruan. Bartzelonatik zuzen iritsiko dira Arrasatera, eta hurrengo egunean Bilbon joko dute.

Hasi dira datorren urteko egutegiko argazkien bila

Aramaioko Udalak 2023ko argazki lehiaketara lanak aurkezteko epea zabaldu du: urriaren 25era arte aurkez daitezke argazkiak, udaletxean, liburutegian edo emailaz bidalita. Sari nagusiaren irabazleak 200 euro eta azalean agertzea irabaziko ditu

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Aramaioko Udalak 2023ko argazki lehiaketa martxan jarri du. Argazkiak aurkezteko epea zabalik dago urriaren 25era arte. Lanak udaletxean, liburutegian edo emailaz euskara@aramaio.eus helbidera bidalita aurkeztu behar dira.

Pertsona bakoitzak, gehienez, hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu lehiaketara. Gaia librea izango da, baina argazkiak Aramaion egindakoak izan beharko dira.

Nola aurkeztu argazkiak

Formatu horizontalean aurkeztu beharko dira argazkiak lehiaketara, eta lan bakoitzak izan beharko du: argazkiaren izenburua, argazkiaren ageri den tokiaren izena, eta noiz egindako argazkia den. Jpg formatuan aurkeztu behar dira pendrive batean edo aurrez esandako helbidera emailaz bidalita. Parte hartzailearen izen-abizenak, harremanetarako telefono zen-

bakia eta helbide elektronikoa gehitu beharko dira mezuan.

Argazkiaren neurriak 1 MG baino gehiago izan beharko du. Argazki-moldaketak egitea onartuko da, baina jatorrizko konposizioa aldatu gabe. Argazki-tan pertsonaren lehen planoak agertzen baldin badira, pertsona horren baimena aurkeztu beharko da –umeak badira, gurasoen baimena–.

Banatu dituzten sariak

Argazki lehiaketak balio du Udalak argitaratzen duen egutegia ilustratzeko; hau da, aurtengo lehiaketako argazkiekin 2024ko egutegia osatuko dute. Irabazle nagusiaren argazkia azalean joango da; horrez gain,

IRABAZLE NAGUSIAK 200 EURO IRABAZIKO DITU, ETA GAINERAKOEK 100 EURO IRABAZIKO DUTE

urtaro bakoitzak irabazle bat izango du. Banatuko dituzten sariak izango dira: sari nagusiari 200 euro; eta, neguko onenak, udaberriko onenak, udako onenak eta udazkeneko onenak, bakoitzak, 100 euro irabaziko ditu.

Saritutako argazkiez gain, egutegia ilustratzeko erabiliko diren gainerako argazkiak ere –hilabete bakoitzeko bat– aukeratuko dira.

2022ko sarituak

2022ko lehiaketako argazkiekin 2023ko egutegia osatu zuen Udalak. Irabazle nagusia Julen Abarrategiren *Anboto lainoen gainetik* argazkia izan zen. Horrez gain, neguko saria irabazi zuen Izar Elorzak *Abenduko Amillena* argazkiarekin; udaberrikoa Julen Axpek *Bidea zuzen* argazkiarekin; udakoa Ainara Inuntziagak *Gaueko argi zaratsutsuak* argazkiarekin; eta, udazkenekoa Izar Elorzak *Urriko pantaila* argazkiarekin.



ALAIK ERRETIRATUEN ELKARTEA

Bazkideen Eguna ospatu zuten

Bazkideen Eguna ospatu zuten zapatuan erretiratuek. Eguna "betea eta goxoa" izan zutela adierazi dute. Ongietorri beroarekin hasi zuten eguna: meza, Martin Abarrategi eta Manex Agirrerren bertsoak, eta dantzak izan zituzten. Ondoren, bazkaria izan zuten eta lau erretiratu omendu zituzten; irudian, Rosalia Abarrategi.

San Martin pilota txapelketako lehiak, gaur eta etzi

Dagoeneko martxan da IX. San Martin pilota txapelketa. Gaur, barikua, 18:15ean hasita, Kadete A eta Kadete B taldeetako pilota partiduak jokatu dituzte. Domekan jarraituko dute txapelketarekin: 10:00etan hasiko dituzte lehiak, eta jokatu dituzte Infantil A, Infantil B, Alebin A, Alebin B eta Benjamin mailako partiduak.

Aste bukaera honetan jokatu dituzten partiduetan, hiru bikote aramaioarrak izango dira: Alebin B mailan, Xuban Altuna eta Jakes Valoria bikotea, eta talde bereko Oxel Astola eta Itsaso Urribarren; eta Benjamin mailan, Oinatz Bailes eta Amets Garcia.

Euskal Herriko hiru txirlo txapelketa Etxaguenen hasiko da


Euskal Herriko 33. hiru txirlo txapelketa zapatuan hasiko dute; Etxaguengo bolatokian, hain zuzen. 17:00etan izango da lehia, eta parte hartu ahal izateko 5 euro ordaindu beharko da. Banatuko dituzten sariak izango dira: lehenengoak 65 euro; bigarrenak 50 euro; hirugarrenak 35 euro; laugarrenak 20 euro; eta bosgarrenak 10 euro.

Sei jardunaldi izango ditu Euskal Herriko txapelketak. Aramaion bi jardunaldi izango dira: bihar Etxaguenen egingo dena eta azaroaren 4an Untzillan egingo dena –laugarren saioa–. Besteak izango dira: Mallabian, Azkoitian, Markina-Xemeinen eta Itziarren.

Untzillako jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran

Untzillako jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran. Gaur hasiko dituzte jaiak, etxafuegoekin. 21:00etan, bertso afaria izango dute elkartean Andoni Egañarekin, Maialen Lujanbiorekin eta Xabi Igoarekin. Aurrez eman behar zen izena. Bihar, 12:00etan meza izango dute; 14:00etan auzo bazkaria elkartean, eta ondoren, mus txapelketa. Parte hartzeko,

bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu. 17:30ean, Txan Magoaren txanda izango da; 18:30ean, txokolatada izango dute; 19:00etatik aurrera, dantzaldia Elustondo anai-arrebekin; 20:30ean, parrilla piztuko dute, eta afari zerbitzua emango dute elkartean. Afalostean, dantzaldia izango dute indarrak agortu arte. 23:00etan, bolo txapelketa –parte-hartzea 10 euro–. Domekan, 12:00etan meza, eta ondoren, bermut dantza Elustondo anai-arrebekin.



2022ko eta 2023ko egutegiko argazki sarituak. ARAMAIOKO UDALA

Kuarteleko musikariak herria girotzeko gertu

'Kuartela herrira!' izena jarri diote ekimenari, eta helburua da aretxabalarrei erakustea zeintzuk eta zertarako batzen diren eraikin horretan; hamahiru sortzailek kontzertuak eskainiko dituzte hiru zapatutan, herriko hainbat gunetan

Mirari Altube ARETXABALETAKO


Azken urteotan herriko musikarien eta dantzarien topagunea da guardia zibilena izandako eraikina, eta han sortzen denaren berri emateko festa antolatu dute Kuartela kultur elkarteko kideek, hirugarrenez. *Kuartela herrira!* leloa jarri diote oraingoan, eta taldeek kalean eskainiko dituzte emanaldiak urriko hiru zapatutako arratsaldetan: 14, 21 eta 28.

Hamahiru talde

"Iaz *Kuartela Fest* izenarekin kuartelean egin genuen jaia eta herritarrak bertara gonbidatu genituen. Oraingoan, geu joango gara haiengana eta herriko gune ezberdinetan joko dugu, ikus dezaten eraikin honetan zer sukaldatzen den", azaldu du Nhil taldeko Aitor Ruiz de Austri.

Kuartelean batzen dira 25 bat talde eta bakarlari, ehun lagunik gora; gehienak dira musikaren bueltakoak, eta Jaiki dantza taldea ere badago. "Horietako asko agertu ziren kontzertuak emateko gertu, eta horregatik, egun bakarrean beharrean hirutan banatuko ditugu emanaldiak".

Urriaren 14an ekingo diote jaialdiari eta "egunik garrantzitsuena" ere izango da. Bazkal-



Aitor Ruiz de Austri eta Beñat Abasolo kartela eskuartean dutela. MIRARI ALTUBE

tzeko elkartuko dira kuartelean bertan, eta lehen emanaldia ere hantxe izango da Jo ta Be bikotearen eskutik. Bazkaltzeko txartelak Urbaltz tabernan dituzte salgai edonorendako, eta eskuratzeko azken eguna urriaren 8a izango da.

Askotariko musika estiloek egingo dute bat kaleetan: "Bakarlarriak, taldeak eta DJak egongo dira, hasiberriak eta eskarmentua dutenak, estilo ezberdinak... Herritarren gehiengoaren gustuak asetzeari espero dugu".

Diskoaren salmenta

Helburu berarekin *Kuartela* izeneko diskoa argitaratu berri dute irailean. Kuarteleko talde eta bakarlarien hamazortzi kantutatu eta dantza bat jaso dituzte hor, eta sanmigeletan jarri salgai, kamisetarekin batera. Pozik agertu dira egindako harrera beroarekin: "Diskoak zein kamisetak 100dik gora saldu genituen aste bukaeran bertan. Ez genuen halako erantzunik espero, eta eskertuta gaude". Disko hori urriaren 28an aurkeztuko dute, Mitarte kalean.

"Leku kuttuna da guretako, eta ez dugu hemendik alde egin gura"

BEÑAT ABASOLO KUARTELA KULTUR ELKARTEKO PRESIDENTEA

Zein da Kuartelaren dinamika?

Ehun lagunik gora batzen dituen kultur elkarte bat gara. Zuzendaritza batzordea dugu osatuta, baina edonork parte har dezake.

Eta zelan funtzionatzen duzue?

Barne araudi bat dugu zehaztuta funtzionamendu egokirako. Hala ere, Udalarekin hartu-emanen gaude, eta zerbait formalagoa adostea litzateke asmoa.

25 bat talde zaudete, badago guztiondako lekua?

Egia esan, nahiko beteta dago eta gelak partekatu egiten ditugu hainbat talderen artean. Dena den, atek ez dizkiogu inori ixten, eta ongi etorria da edozein sortzaile; horretarako ez dugu aparteko baldintzarik jartzen.



M.A.

Eraikinaren egoera zein da?

Ona ez da; ez dute honen aldeko apustu garbirik egin oraingoan. Leku kuttuna da guretako, eta bertako erabiltzaileek ez dugu hemendik alde egin gura.

***Kuartela herrira!* ekimenarekin zer erakutsi gura duzue?**

Kultura edo kontrakultura harrobi polita dagoela eraikin honetan eta bultzatu egin behar dela. Herria girotu gura dugu, herriaren eta Udalaren erantzuna bueltan jaso nahian.

Egitaraua

URRIAK 14

- **Bazkaria** Kuartelean –txartelak Urbaltz tabernan–.
- **Kontzertuak** Jo ta Be (kuartelean), Kaparrak, Los del Garaje, Youth United eta DJ Karapaixo; erdiguneko tabernetan.

URRIAK 21

- **Kontzertuak** Orei, Berandu baino lehen eta Hiru leño; Portasolen.

URRIAK 28

- **Diskoaren aurkezpena** Mitarte kalean.
- **Kontzertuak** Bixentak, Txerrikumeak, Eten eta BRGS & Margu Mission; Mitarte kalean.

Greba feminista antolatzen bilera dago astelehenean

Azaroaren 30erako deitutako greba feminista antolatzen bilera egiten dihardute azken asteetan eta urriaren 9rako lehenengo komite irekia deitu dute; 18:00etan izango da, udaltxe zaharrean. Bizitzak erdigunera ekarriko dituen zaintza eskubide kolektiboa aldarrikatzea da grebaren helburua, eta ordu-rako pausoak zehaztuko dituzte.

'Hemen ez du inork ordaintzen' lana eskainiko du Dokek

Arrasateko antzerki taldea Dario Fo idazlearen *Hemen ez du inork ordaintzen* liburuan oinarritutako antzezlanarekin etorriko da domekan, urriaren 8an, Arkupera. 19:00etan da emanaldia, eta sarrerak (5 euro) salgai dituzte leihatilan eta *online*. Idazle italiarrak 1974an idatzitako lana Jose Mari Velez de Mendizabalek egokitu du.

Gipuzkoako Karate Txapelketa jokatu da domekan

Kadete eta gazte mailetakoko eta 21 urtez azpiko Gipuzkoako Karate Txapelketa jokatu da domekan, 10:00etan hasita, Ibarra kiroldegian. UDAko ordezkari izango da han; bost kide kumite modalitatean arituko dira lehian, eta beste batek katan jardungo du. Herritarrak gonbidatu dituzte bertatik bertara jarraitzera txapelketa.

PATXI CASTRO

Era guztietako aukien konponketa

- Tapizatu lanak
- Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta
- Besaulki, mahai, saskiak e.a

943 78 71 65
639 01 69 69

Mobiliario ARENAZA

ALTZARIAK DISEINUA APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO



Kadrilla bat abesten egubakoitzeko kantu-afarian. A. AGIRIANO



Familia bat behi bati begira. A. AGIRIANO

"Sekulakoa" jendearen parte-hartzea jaietan

Mirari Altube ARETXABAETA

Sanmigelak iritsi orduko joan dira askorendako, baina ondo zukuruta. Antolatzaileak, Udala zein eragileak, bat etorri dira esatean jende asko batu dela ekitaldi guztietan: kantu-afaria, elkartasun bazkaria, dantza eta musika emanaldiak, besteak beste. "Giro oso ona izan dugu, eguraldiak lagunduta, eta kaleak bete egin dira. Bazkalosteko

txarangak hutsune bat bete zuela uste dut, eta zerbait nabarmentzekotan esango nuke erromerietara itzuli egin direla gazteak", adierazi du Ibai Zangitu zinegotziak.

Gazte Mugimenduko kideek berretsi egin dituzte hitzok, eta pozik daude kontzertuetan zein txarangaren kalejiran batutako jendetzarekin. Ildo beretik, Loramendi elkarteko kideak oso

eskertuta agertu dira talo-txosnan lanean jardun zutenekin zein bertara erostera gerturatutakoe-kin. Plaza, ostera, txiki geratu zen, ehun lagunetik gora elkar-tu zirelako dantzan egiteko.

Pilota partiduek eta herri kirolek erakustaldi politikak eskaini zituzten; eta bola-txapelketak eta Basotxok antolatutako doke norgehiagokak umorea izan zuten lagun lehiakideen artean.



Dantzariak, plazan. I. SORIANO



Doke txapelketan parte hartutako sei elkarteetako ordezkariak. M. ALTUBE



NIRE USTEZ

JULEN ABASOLO

Auzolana

Eguraldiek atzeratu euskun auzolana zintzo asko egin dou Arientzan. Atxabaltatik Arantzazurako peregrinaziño egunen aurretik egin biherrekue izeten zan hau, eta udaletxeko jentie ikusten pasetan ei zan frailiei erueteko zerbaitzuk batuaz.

Biher baten aurrien, bide konponketie gehixenetan, auzoalkatiek deittute etxe bakotxetik bat etorten dala auzolanera ikusi dot mutikotatik. Udalak ardaue jarten euela eta akabautekuen bakotxa bere mokautxuaz etxe baten, inoiz geurien, elkarketan ziela.

Oingo aldien sarri izeten zien lanok, eta diruik ikusten ez zan sasoi be bakotxak bere denborie jarten euen auzorako. Izengo zien purrustarak be, etxien aurretiko lanak baezelako.

Orain badie beste auzolan batzuk: Errigora, erreka garbiketa... Auzolanak antolaketako gida be argitaratu da. Non bolondresak daukaten onena jarten dauen ekimen baterako. Gure auzolanak, barrez, obligaziñotik be badauko.

"EJ, Euskadi, Auzolana", dixo iragarkixek. Etxat gustetan. Auzolana beste gauza bat da.

Ikastaro sorta dute aukeran Basotxo elkarteko bazkideek

Memoria tailerrak, euskara eta pintura eskolak, dantza eta kantu entseguak eta beste hainbat daude zabalik

M.A. ARETXABAETA

Ikasturtea hasi dute Basotxo erretiratuen elkarteko kideek, eta ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago. "Zahartze aktiboa eta osasungarria gartzera bideratutako jarduerak dira guztiak", adierazi du Migel Elortza presidentek. Hala, burua aktibo mantentzeko memoria tailerrarekin hasita daude; egunetan elkartzen dira Zainduzen duten lokalean (17:30).

Aisialdiari dagokionez, kantu taldea dago batetik; eguaztenetan batzen dira (18:00) Zainduzeko

lokalean. Eta dantza taldeak daude bestetik; aretoko dantzak martitzenetan (17:00) egiten dituzte kuartelean, eta euskal dantzak, eguaztenetan (17:00). Pintura taldea ere sortu dute; astelehen eta eguaztenetan elkartuko dira Arkupen (14:30).

Euskaraz trebatzeko iaz hasi zen lanean talde bat udal euskaltegian, baina beste bat sortzeko ateak zabalik dituzte.

Izena emateko, Zainduzeko lokaletik pasa daitezke bazkideak, astelehenetik egubakoitzera bitartean (11:00-12:00).

**INPLANTOLOGIAKO
ESPEZIALISTAK 3D
TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN**

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN
ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABAETA • TEL.: 943 79 93 55

Euskararen erabileran eredu izateko ariketa

Helduen eta haurren arteko euskararen erabileran eragiteko eta umeekiko hizkuntza eredugarritasuna bultzatzeko 'Haurren aurrean, helduok heldu' ekimena Eskoriatzan ere egingo da. Ekintza ugari antolatu dituzte urriaren 19tik 29ra bitartean

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Euskaltzaleen Topaguneak 2021ean aurkeztu zuen *Haurren aurrean, helduok heldu* dinamika, eta ekimenaren bigarren edizioa izango da urriaren 19tik 29ra bitartean. Aurtengo ekimenak helburu bikoitza du: batetik, helduen arteko hizkuntza ohituretan eragitea eta, bestetik, helduek haurren hizkuntzaren ikaskuntzan eta sozializazio prozesuan duten era-

ginaz sentsibilizatzea. Hala, Eskoriatza ere animatu da egitaspora, eta 0-12 urte bitarteko umeekin harremana duten helduen artean euskararen erabilera aktibatzeke egitarau ederra prestatu dute.

Gurasoei zein zaintza lanetan aritzen diren bestelako senide eta herritarrei zuzendutako ariketa da *Haurren aurrean, helduok heldu* dinamika, eta Euskal Herri osoko hainbat

herritan antolatu da. Ariketa aurrera eramateko, Eskoriatzako Udalak guraso talde bat deitu du, eta haiekin batera antolatu ditu urriaren 19tik 29ra bitarteko ekintza guztiak. "Eskoriatzako Udaleko Euskara Saitetik, ausaz zenbait guraso batu genituen, eta bilerak egin ditugu irailean, programa osatzeko. 0-12 urte bitartean dituzten haurren gurasoak dira, eta beraiekin lanketa egiteaz bate-

ra, egitaraua osatzeko protagonistak ere bertako eragileak izatea nahi genuen...", adierazi du Mari Carmen Arrietak, Eskoriatzako euskara teknikariak.

Yoga, familian eta euskaraz

Antolatutako ekintzen artean, yoga familian da, esaterako, nabarmentzeko hitzorduetako bat. 4 eta 8 urte arteko haurrei zuzenduta, izena bikoteka eman behar da, heldu bat eta haur bat; hala, ordu eta erdiko saioa izango da, eta Maider Herce eskoriatzarra izango da gidaria. "Aisialdian familian egiteko ekintza gutxi daude; helduei zuzendutakoak daude, edo hau-

rrendakoak; beraz, elkarrekin egitea pentsatu dugu. Gainera, garapen pertsonaleko ikastaro asko gazteleraz dira, eta euskaraz lantzeko aukera gutxi daude...", adierazi du yoga irakasle izateko ikasketak egiten ari den Maider Herce.

Ariketan parte hartzeko

Eskoriatzan osatutako programako ekintzetan egin nahi da hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa soziala. Alde batetik, euskaraz ondo moldatzen direnek lehen hitzak euskaraz egingo dizkiete euskara ulertzen duten ezagunei zein ezezagunei, eta ulertzen duten kideekin euskarari eusteko eskatzen da ariketa ondo egiteko, baita haiek erdaraz hitz eginda ere. Bestetik, euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituenak baina ulertzen duenak ingurukoak gonbida ditzake euskaraz jarrai dezaten edo hala aritu daitezen.

ANTOLATZAILEEK HERRIKO ERAGILEEKIN OSATUTAKO PROGRAMA EGIN NAHI IZAN DUTE



Euskaraldia ariketa sozialaren hirugarren edizioan, Fernando Eskoriatza plazan haurrak zein helduak batu zireneko. I. BELOKI

Urriaren 19tik 29ra arteko egitaraua

URRIAK 19

- 18:00 Mahai informatiboa txokolatearekin, plazan.

URRIAK 20

- 18:00 Familien arteko olinpiadak, Luis Ezeizan.

URRIAK 22

- 18:00 *Oink oink* filma, Zaldibar antzokian.

URRIAK 25

- 17:30 Yoga familian (4 eta 8 urte bitarteko haurrekin), Maider Herce-rekin, kultura etxean.

URRIAK 26

- 18:00 Altzo jolasak: *Beldurraren aurkako pilulak familian*, 0-4 urte bitarteko haurrekin, kultura etxean.
- 18:00 Ipuin kontaketa: *Zaku bete ipuin* Dorleta Kortazar ipuin kontalariarekin, bibliotekan.

URRIAK 27

- 18:00 Gaba beltza: Arropa tailerra familian.

Etkez etxeko langileek hitzarmen propioa lortu dute

Eskoriatzako etkez etxeko zerbitzuko langileek aste honetarako deituta zuten greba bertan behera utzi zuten, astelehenean, ELA sindikatutik jakinarazi duten moduan. "Eskoriatzako etkez etxeko langileek lehen hitzarmen propioa lortu dute. Hobekuntza oso garrantzitsuak lortu dituzte Eskoriatzako etkez etxeko zerbitzua eskaintzen du-

ten 16 langileek. Lehen aldiz, hitzarmen propioa izango dute; horri esker, bizi zuten prekarietate egoerari aurre egingo diote".

Esaterako, %30eko soldata igoera izango dute bi urtetan. 1.592 orduko urteko lanaldia izango dute; kontratazioak arautzeko neurriak lortu dira, eta lizentzia eta baimenak hobetu. Eskoriatzako Udalak azpikontratutako zerbitzua izanda, zerbitzuaren lizentzia hilabete hauetan jarri nahi du martxan Udalak.

Urriaren 19 eta 26ko saioekin abiatuko da irakurketa kluba

Eskoriatzako bibliotekak antolatzen duen irakurketa kluba martxan da berrito, eta interesa duenak izena eman dezake biblioteka@eskoriatza.eus helbidera idatzita. Monika Leivak (gazteleraz) eta Mikel Antzak (euskaraz) gidatutako saioak izango dira; beraiek gomendatutako liburuak irakurri, eta solasaldia egingo da.

OHARRAK

Hitzaldia: 'Rompiendo armarios desde la decada de los 70'

GayLur elkarteak antolatutako hitzaldia izango da gaur, gazteleraz, 17:00etan, kultura etxean. Hizlaria Imanol Alvarez (sexu askapenaren aldeko militante aktibista) izango da, eta sarrera hiru euro ordaindu behar da. Kafea eta pastak izango dira bertaraten direnentzat.

Urriaren 13an, udal bulegoak itxita

Urriaren 13a, jai egunaren biharamuna eta egubakoitza izanik, Eskoriatzako Udaleko bulegoak eta Erregistro Nagusia itxita egingo dira.

Ehiza denboraldia hastear, zozketa gaur

Gaur, egubakoitza, 17:00etan izango da aurtengo ehiza postuen lehenengo zozketa Aldaype Ehiza eta Arrantza Elkartearen lokalean. Hala ere, datorren astetik aurrera, azarora arte, martitzenetan egingo dutela jakinarazi dute elkarteko ordezkariak

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Aldaype Ehiza eta Arrantza Elkarteak antolatzen duen ehiza postuen zozketa, gaur, egubakoitza hasiko da, eta azaroaren 17an amaitu. Hala, gogoz gaude Aldaypeko kideak aurtengo ehiza denboraldiari ekiteko. "Iaz baino 12 lagun gutxiago ditugu Aldaype elkartean. Hala ere, 190 bazkide ditugu, guztira, eta aurreikusten dugu horien erdiak-edo etorriko direla zozketetara. Gainera, aurtengoa, adineko jendearentzat sei postu berri egin ditugu Apotzaga aldean", adierazi du Nuno Monteirok, Aldaypeko presidentea.

Ehiza postuen zozketari dago-kionez, ez dagoela aldaketarik adierazi dute. 17:00etan hasiko dira zozketak, parte hartzeko derrigorrezkoa izango da Gipuzkoako Ehiza Federaziotik bidalitako zozketa txartela aurkeztea, eta pertsona bakoitzak txartel bat bakarrik aurkeztu ahal izango du. Joaten denak postu bat bakarrik eskura dezake, eta gerta liteke postu barik geratzea.

Zozketak martitzenetan

Ehiza postuen zozketa astero egingo dela jakinarazi dute Aldaypeko batzordekideek. "Gaurko zozketa urriaren 7an, 8an, 9an eta 10ean ehibitatzeko izango



Aldaype elkartearen lokalean zozketa egun bateko irudia. IMANOL BELOKI

ADINEKO PERTSONEI ZUZENDUTA, SEI EHIZA POSTU BERRI EGINDITUZTE APOTZAGA ALDEAN

da, eta, hilaren 10etik aurrera, martitzeneko egingo dugu zozketa Aldaypeko lokalean".

162 postutik, onenaren bila

Aldaype elkarteak 162 ehiza postu kudeatzen ditu, eta bi ere-

mutan banatzen dira: batetik, Lete, Apotzaga, Marin... elizateen inguruan dauden 89 postuak; eta bestetik, Aizkorri Aratz parkean, Alabita-Aranguren bitartean dauden 73 postuak. Zozketan, eremu bat edo bestea aukeratu beharko du ehiztariak, eta zortea izan postu bat tokatzeko eta, bide batez, ehizarako ona izateko. "Marin elizatearen aldean uso gehiago pasatzen dela diote, eta, Alabita aldean, berriz, birigarro gehiago. Ea aurtengoa nondik jotzen duen haizeak... zorte kontua da".

LEINTZ GATZAGA | 19



Gatzagan, Zirkun zirkuko ikuskizuna izan zenekoa. GOIENA

Euskarazko antzerkia balioan jartzeko taldea osatuta

Eider Sanz Debagoieneko Antzerki Plataformako kideak eskainiko ditu saioak, urriaren 13an hasita

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Debagoieneko Antzerki Plataformako kideek bailarako herrietan formakuntzak eman nahi dituzte, euskarazko antzerkia eta arte eszenikoak eragin, indartu eta saretzeko proiektu kulturala eskaintzeko, eta Leintz Gatzagako udal ordezkariak atek ireki dizkiete bertako gaztetxoek antzerkiaren diziplina gertutik ezagut dezaten. Hala, urriaren 13an izango dute formakuntza saio irekia gatzagarrek, liburutegian; bertan, izena eman ahal izango dute interesdunek, eta dituzten zalantzak argitu.

Sei laguneko taldea osatuta

Eider Sanz izango da tailerra eskainiko duena eta gogoz dago ikasturteari hasiera emateko: "Gatzagako haurrak animatu dira egitasmora, eta jolasen bitartez landuko dugu antzerkia. Errealitate ezberdinak bizitzeko

aukera ematen digu antzerkiak, eta sentimenduak ateratzeko aukera ematen du horrek. Nire ustez, hegan egiteko aukera bat da, baina baita lurrera ekartzen gaituena ere. Beraz, asko ikasteko, jolasteko eta gozatzeko batuko gara. Antzerkiak berak gure ahalmenak potentzializatzen dituela uste dut, eta bertaratzen direnen gustuko saioak eskaini nahi ditugu". Euskarazko antzerki ikastarora urritik ekainera artekoa izango da, eta Leintz Gatzagako antzerki taldea osatuko duten gaztetxoak, egubakoitzetan, 17:30etik 18:45era bitartean batuko dira.

'Gorputzu Gatza'

DAPen helburua bailarako arte eszenikoei tokia egitea izanda, urriaren 22an, Gatzaren Egunean *Gorputzu Gatza* izeneko performancea ere izango da DAP-eko eskutik.

Oyarzabal, Gipuzkoako txapelketa

Aldaype Ehiza eta Arrantza Elkartekoek beste urte batez antolatutako ehiza txikiko txapelketa jokatu zen joan den asteburuan Zanbranan (Araba). Bertan, Rafa Oyarzabal bigarren postuan sailkatu zen, eta, horrekin batera, Gipuzkoako txapelketarako sailkatu eta lehenengo postua lortu. Hala, Euskal Herriko txapelketarako sailkatu da.



Rafa Oyarzabal garaikurrarekin. ALDAYPE EHIZA ETA ARRANTZA ELKARTEA

Bigarren enkantea, libre dauden postuak aprobetxatzeko

Hastear da ehiza denboraldia, eta zaleek postu onena eskuratu nahi dute aurtengo ekinaldirako. Hala ere, zaila da aurreikustea zein eremutako postua izango den onena, edo zeinetatik pasako diren txori gehien. Gauzak horrela, Gatzagako Udalak ehiza-postu bakoitzari alokairu prezio bat jartzen dio –prezioak udal webgunean ikusgai–, eta

horren arabera eskaintza egingo dute interesdunek.

"Lehenengo enkantea jarri genuen jendaurrean, eta ez ziren postu guztiak saldu; ohikoa izaten da, eta bigarren enkantea atera dugu. Hala, proposamenak aurkezteko epea: 9ra artekoa da, eta 14:00ak aurretik egin behar da. Proposamen ekonomikoak irekitzeko ekitaldia, berriz, urriaren 10ean egingo da, 10:00etan", adierazi du Juanito Bengoak, Leintz Gatzagako Mendi zinegotziak.

Bergararren laurdenen zaintzan jarri dute arreta

Adinekoen Nazioarteko Egunaren bueltan, gogoratu dute lau bergarretik batek 60 urtetik gora dituela, eta aldarrikapenak zaintzari dagozkionak izan dira aurten; gainera, asteon aurkeztu dute adinekoen kontseilua eta ate irekiak ere egin dira Arin eguneko zentroan

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Adineko Pertsonen Nazioarteko Eguneko egitarauaren barruan hainbat zita garrantzitsu izan dira asteon Bergaran. Astelehenekoa aldarrikapenerako eguna izan zen; San Joxepe elkarteak presidente Nestor Inurrietak eta Duintasuna elkarteak Maite Guridik nabarmendu zuten %24 baino gehiago direla Bergaran 60 urtetik gora dituzten herritarrak, eta gaineratu zuten, azken urtean "larriagotu" egin dela adinekoendako arreta.

Gainera, Osakidetzaren eskaintzan "atzerakada" egon dela adierazi, eta osasun "publikoa eta kalitatezkoa" eskatu zuten, baita zerbitzu sozio-sanitario eta publiko "onak" ere. Egungo gutxieneko pentsioak 1.080 eurora arte osatzeko, eta pobrezia-ziaren eta genero arrakalaren aurkako politika "eraginkorrak" ere eskatu zizkieten erakundeek.

Zaintza eta autonomia

Zaintzan jarri dute arreta aurten bereziki, eta hainbat eskubide aldarrikatu zituzten: beharra duten pertsonen autonomia bermatuko duen kalitatezko zaintza zerbitzua; etxeko zaintza profesionalizatuak, integralak eta kudeaketa publikokoak; zaintzaren kalitatea bermatuko du-



Asteleheneko aldarriaren ostean talde argazkia atera zuten. TXOMIN MADINA

ten egoitzak, eguneko zentroak eta bestelakoak; hurbileko zerbitzuak familien eta erabiltzaileen parte-hartzearekin; eta gizonen eta emakumeen erantzunkidetasuna zaintza-lanetan.

Kontseiluaren aurkezpena

Bestalde, martitzenean Irizar jauregian egindako ekitaldian aurkeztu zuten Adineko Pertsonen Kontseilua, Arrasateko, Amurrioko eta Zumarragako kontseilu etako kideekin mahai-inguru bat egin ostean. Kontseiluaren helburuen artean

dago, besteak beste, adineko pertsonen autonomia, parte-hartzea eta protagonismoa sustatzea prozesu eta erabaki guztietan, are gehiago haiei zuzenean eragiten dieten gaitetan. Udaletzeko osoko bilkuren aretoan egin zuten aurkezpena eta araudiaren berri ere eman zuten.

San Joxepe, Nagusilanek, Duintasuna elkarteak eta Udalak elkarlanean antolatutako egitaraua borobiltzeko, Bergara Oinez ekimena eta txotxongiloak protagonista dituen *Trapos* antzez-lana izan zituzten atzo.

GORA ETA BEHERA



Garbiketarako premia dago Koldo Eleizalden



Koldo Eleizalde kaleko 38-40 atarien atzeko patioan putzuak sortu ohi dira: "Euria egiten duenean estolda-zuloek ez dute ura hartzen, eta ingurua lagata dago. Garbitzeko premia galanta dauka".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo [688 69 00 07](tel:688690007).

Askotariko ekintzak gaur eta bihar Espoloiko jaietan

Gaur patata tortilla lehiaketa (19:30) eta bingo musikatua (22:00) izango dituzte. Bihar, berriz, egun osoko egitaraua: Espoloitxoren jaitsiera eta jarraian Potx magoa (12:00); auzo bazkaria (15:00) eta bazkalostean helduendako jolasak; karro poteoa (19:00); eta, amaitzeko, Good Vibes taldearen kontzertua eta DJ Espoloitxoren saioa.

Euskal pegatineroen topaketa bihar, Kartzela zaharrean

Euskal Herriko Pegatineroen Elkarrekin (EHPE) 21. topaketa antolatu du Kartzela zaharrean, biharko. 11:00etan topaketa egingo dute eta ondoren elkarrekin bazkalduko dute (14:30); asistentzia ziurtatu behar da pegatina-topaketa@gmail.com idatzita -aukera beganoa egongo da-. AHTren kontrako pegatineren erakusketa bat ere jarriko dute.

OHARRAK

Teknologia burujabetzaren gaineko hitzaldia

Ehunduk eta ZTB jardunaldiek *Teknologia jabeak* izeneko hitzaldia antolatu dute urriaren 10erako Seminarixuan (18.30). Teks, Onaro eta Zibergara egitasmoak izango dira protagonista.

Odol Emaileen Elkarteak: hurrengo ateraldia

Hurrengo odol ateraldia urriaren 11n izango da, San Joxepe elkartearen dagoen Arin eguneko zentroan, 16:30etik 20:30era.

Zuzeneko musika Gorrako kantuan

Bihar, urriak 7, Islabat eta Ellie Jensen taldeek joko dute (18:30).

1942an jaiotako urteko ospakizuna

Urriaren 28an Zumelagan bazkalduko dute (14:30). 13:30ean Egon tabernan elkartuko dira; izena emateko 40 euroko ordainketa egin behar da honako kontu korrante zenbakian, urriaren 18a baino lehen: ES61 3035 0009 1800 9116 3051 (Laboral Kutxa).

1960an jaiotako urteko ospakizuna

Azaroaren 4an Zumelaga jatetxean bazkalduko dute; urriaren 15erako eman behar da izena, Igarza harategian (Alicia) edo Barrenkaleko estankoa (Josefina).

Arin zerbitzuan izena emateko aukera

Ekintzen artean, San Joxeperen egoitzan dagoen Arin eguneko zentroa ezagutzeko ate irekiak egin dituzte. Baldintzak honako hauek dira: 65 urte edo gehiago izatea; mendekotasun egoera arina izatea; bakardade edo isolamendu egoeran egotea; eta Bergaran erroldatuta egotea. Zerbitzuan izena emateko argibide gehiagorako Udaleko gizarte zerbitzuetan galdetu behar da.



Adineko herritar bat Arin eguneko zentroa bisitatzen, ate irekietan. J.B.L.



Emakumeak botanikan erakusketaren aurkezpenan egin zuten bisita gidatuko une bat. TXOMIN MADINA

Emakumeen botanika ilustrazioak protagonista

XVII. mendetik gaur egun arte botanika arloko ilustrazio zientifikoak egin dituzten zenbait emakumeren lanak ikus daitezke urtarilaren 6ra arte Laboratorium museoan zabaldu duten 'Emakumeak botanikan' erakusketan

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
Emakumeak botanikan erakusketak ikusgai egongo da 2024ko urtarilaren 6ra bitartean Laboratorium museoan. Laboratoriumek Madrilgo Complutense Unibertsitatearekin elkarlanean egindako erakusketak da; ilustrazio zientifikoak, zientzia, artea nahiz generoa lotzen ditu, eta XVII. mendetik gaur egune-

ra arteko emakume ilustratzaile zientifiko botanikoen lanak daude. Martitzenean egin zuten inaugurazio ekitaldia, eta han, Bergarako Udaleko zein Laboratoriumeko ordezkariak gain, erakusketaren komisario lanak egin dituzten Complutense Unibertsitateko Arte Ederren fakultateko kideek ere hartu zuten parte, bisita gidatua eskainiz.

Lucia Moreno da erakusketaren hiru komisarioetako bat, eta hark azaldu du arteari eta botanikari buruzko beste erakusketak batetik sortu dela orain Bergaran ikus daitekeena: "Horretarako ikertzen ari ginela, emakume ilustratzaile pila bat ezagutu genituen. Hortik sortu zen erakusketak hau egitea, eta ondorioz asko ikertu behar izan

dugu. Hasieran gutxi, ez genituelako ezagutzen, baina gero ehunka agertu dira, eta zaila izan da erakusketan dagoen kopurura mugatzea".

Zergatik botanika?

Emakumeen obren tematika botanika izatearen zergatiak galdetuta, Morenok adierazi du kontuan izan behar dela emakumeak XVII. mendean ez zuela akademietan onartuta, eta, gainera, ezin zutela biluzirik margotu. Landareak marraztea ondo ikusita zegoela dio, eta horregatik daudela hainbeste emakume ilustratzaile botanikako lanak.

Bestalde, estiloa garaiari eta helburuari lotuta dagoela ikusi du: "Ikusi dugu XVII. mendearen hasierako egileak artisten familiako emakumeak direla. Geroago, zientzialari familetakoak ziren. Horregatik dituzte botanikari buruzko jakintzak. XIX. mendean, berriz, klase sozial altukoak ikusi ditugu".

Mendetik menderako eboluzioari dagokionez, hasierako lanetan bodegoi edota natura hil asko berrinterpretatzen zizutela dio: "Bukaeran, sintesi totala ikusiko dugu. Xehetasun handiagoko ilustrazioak daude, eta prestatutako bodegoitik aterako gara. Batik bat, teknikarekin. Teknika berriak daude: digitalak, konbinazioak, teknika zaharren berreskurapena...".

Laboratoriumen ekarpena

Erakusketak Donostiako Cristina Enean egon zen ikusgai, eta Laboratoriumeko arduradun Rosa Errazkinek dio ikustera joan zirenean Bergarara ekartzea erabaki zutela. Gainera, ekarpena ere egin dute: "EHUko Ilustrazio Zientifikoaren Mas-

terrekin dugun elkarlana dela eta, ilustrazio zientifikoak dagoeneko museoaren izaeraren zati da. Nola aberastu pentsatzen jartzean, museoaren zientzia bilduman dauden pieza batzuk erabili ditugu. Ale didaktikoak dira: zientzia instrumentuekin edo anatomiarekin egiten den moduan, desmuntatu daitezkeen eta osagaiak erakusten dituzten loreak. Botatzera zihoazela eta dohaintzan eman zizkigun Oñatiko institutu batek, eta guk zaharberritu egin ditugu".

EHUko Ilustrazio Zientifikoko Masterraren koordinatzaile Vega Asensiok, berriz, azpimarratu egin du erakusketak honen atzean dagoen ikerketa lana: "Ikusten da atzetik ikerketa lan oso potentea dagoela, eta eduki aldetik ikus dezakegu ilustrazio botanikoak historian izan duen ebo-luzioa, baina emakumeak protagonista izanda. Hori oso garrantzitsua da. Zergatik? Ilustrazio zientifikoak oraindik ezaguna ez den diziplina delako, eta, beste alde batetik, emakumezko oraindik nahiko isilduta jarraitzen dugulako zientzian eta ilustrazio zientifikoan".

Bisitak eta tailerrak

Urtarrilaren 6ra bitartean egongo da ikusgai publiko orokorren antzeko erakusketak, baina ikasketxei ere egin diete eskaintza. Tailerrak ere egingo dituzte. Horren adibide da hilaren 21ean Europako Ondarearen Jardu-naldien baitan egingo dutena.

LABORATORIUMEK EKARPENA EGIN DU MUSEOAREN ZIENTZIA BILDUMAKO ZENBAIT PIEZAREKIN

Herbehereetatik bisita berezia

Warnsveld-eko (Herbehereak) 46 ikasle eta 4 irakasle Bergaran izan dira urriaren 1etik 5era bitartean, Mariaren Lagundia Ikastolarekin duen elkartruke proiektuari esker. Herria eta inguruak ezagutu, eta euskara ikasteko ikastaroa jaso dute. Duela 10 urte sortu zen bi eskolen arteko proiektu hau, eta bergararrak 2024ko martxoan joango dira Herbehereetara.



BERGARAKO UDALA

'Escape the museum', urriaren 7an eta 13an Laboratoriumen

Bergarako Udalak eta Laboratoriumek antolatuta, urriaren 7an eta 13an, 11:30ean, haur nahiz helduek museoaren misterioa ezagutu eta Elhuyar anaiei helburua lortzen lagundu beharko diete jolasaren bitartez. Aurrez izena eman behar da 943 76 90 03 telefonora deituz edo laboratorium@bergara.eus helbidera idatzita. Hiru euro balio du.

"Atzeko sendotasunean oinarritu behar gara"

IÑAKI MARDARAS BERGARAKO GAZTE MAILAKO ENTRENATZAILEA
Liga Nazionalera egokitzen dabilta gazte bergararrak; joan den astean Getxoren kontra irabazi izanak (3-1) konfiantza emango dio talde mahoneroari

Xabier Urzelai BERGARA

Bergarako atezain izateri utzi zionetik, Iñaki Mardarasek (Bergara, 19) gazte mailako taldearen ardura izan du. Dagoeneko bost urte pasa dira, eta taldearekin maila nazionaleraino iritsi da. Egitura profesionala daukaten taldeen kontra jokatzen dabilta, Realaren, Athleticen edo Alavesen kontra, esaterako. Eta hasi dira mailari neurria hartzen.

Zer moduzko hasiera izan duzue?

Ezin gara kexatu. Pena izan zen ligako lehenengo partiduan Realaren kontra azken momentuan galdu izana. Ostegun batean jokatu genuen eurek Japoniara joan beharra zeukatelako, eta taldea nahiko txukun ikusi nuen. Gero bai, Alaves gainetik pasa zitzaigun (0-4). Ez genuen partidua prestatzeko tarte handirik izan, Bergarako jaiak izan ziren tartean... Partidu horretan ez ginen gu izan. Eta gero etorri dira Beasainen eskuratutako puntua (0-0), eta Getxoren kontrako garaipena (3-1). Beasain talde indartsua iruditu zitzaidan, eta puntu ona izan zen hura. Kanpoan eskuratutako puntu bakoitza garrantzitsua izango da. Eta Getxoren kontra zapatuan partidu ona egin genuen, gure ligako talde baten kontra Bergarak neurria eman zuen.

Liga honetan talde batzuk oilarrak dira, baina Bergarak izango ditu bere mailako taldeak aurrean...

Eta horien kontra batu behar ditugu puntuak. Egitura profesionala duten taldeek edozein momentutan goiko taldeko jokalariek jaitzi ditzakete. Baina beste talde askoren maila berean egon gaitezke, eta hor egon behar dugu ondo.

Zelan jokatu behar du Bergarak?

Hasteko, gauzak oso garbi izan behar ditugu. Gurea talde ona da, baina badakigu badaudela gureak baino talde hobek, diferentzia markatzen duten jokalariekin. Horrenbestez, defen-



Iñaki Mardaras, aste barruan Agorrosinen. BKE

"IKUSI DUGUNA DA INDARRAK OSO PAREAN DAUDELA, INORK EZ DU ERRAZ IRABAZTEN"

tsa lanean sendo ibiltzea izan behar da lehenengo eginbeharra, eta hortik aurrera taldea eraiki. Partiduetan, guk ere izango dugu gola egiteko aukera, eta hor asmatu behar da. Baina halako kategoriatan ezin gaitezke jokaldi erasokorretan bakarrik oinarritu, horretarako badaude beste batzuk. Eta partidu guztietan izan behar dugu lehiakor, liga amaierara arte; ezin gara opariak egiten ibili.

Euskal Ligan hainbat urtez egon eta gero, berriak zarete maila honetan. Zer ikusi duzu orain arte?

Lau jardunaldi hauetan ikusi duguna da maila oso parekatua dagoela, irabazten dutenek ere tarte txikiarekin irabazten dutela. Alegia, Realak eta Athleticek ere zailtasunak dituztela partiduetan irabazteko. Berdinketa asko egoten dira; puntu bakoitza garesti dago hemen.

Gazte mailako taldea horren goian egonda, klub barruan ze taldek du lehentasuna?

Ohorezko erregional mailako taldeak; ez dugu zalantzarik. Goiko taldeak edozein momentutan gure taldeko jokalarien beharra badu, gure jokalariek gora joango dira. Ez luke izango zentzurik goiko taldea ez zaintzeak, gazte hauek pare bat urtean goiko taldean egongo direlako; eta goiko taldea ahalik eta goren egoten saiatu behar gara. Egia da liga aurrera joan ahala, ohorezko erregional mailako taldea ez badago arriskuan, eta gure taldea mailari eusteko borrokan badabil, ba, ez daukala zentzurik jokalariek garrantzitsuak gora igotzea. Logikak aginduko du hor.

Ibarreko herri batek maila nazionalen taldea izatea ez da gauza txikia...

Oso maila ona da hau, baina gurearen moduko herrietan belaunaldi kontua ere izaten da, alegia, urte hauetan jokalariek onak batu direla taldean. Hori garrantzitsua da, baina jarraitkortasuna eman behar zaio horri, harrobian lan egin behar da behe-behetik.

Eskubaloiak hartuko du Labegaraieta asteburuan

Bergarako ia talde gehienek etxean jokatuko dute; gizonezko seniorrek domekan Urnietaren kontra (13:00)

X.U. BERGARA

Eskubaloiek izango dute non aukeratu asteburuan, etxeko talde gehienek Labegaraietan jokatuko dute-eta. Senior mailako taldeak joan den astean ez zuten izan amestutako hasiera Hondarribian (27-22), eta horri buelta ematen saiatuko dira domekan (13:00). Bergararrak ez ziren txarto hasi Hondarribiaren kontra, lehenengo 20 minutuak onak izan ziren (11-10). Baina, lehenengo zatiko azken 10 minutuetan eta 2. zatiko lehen 10 minutuetan ez ziren ondo ibili; zailtasunak izan zituzten, eta Hondarribikoek aurrera egin zuten orduan (19-11).

Hala, mahoneroek lortu zuten kantxan jokoa zuzentzea, baina berandu zen markagailuko aldea txikitzeko, eta errentari eustea lortu zuten Bidasokoek. Bada, euren moduan joan den astean



Bergararrak erasoan. GOIENA

galdu egin zuen Urnietaren izango dute domekan aurrean.

Neskek, zapatuan

Joan den astean Lezokoei 21-43 irabazi eta gero, Goizper Bergarako neskek zapatuan jokatuko dute Ordiziaren kontra (17:00).

Bizikleta Festa egingo du Lokatzak bihar Seminarixean

Udazkena iristearrekin batera, badator Lokatzaren Bizikleta Festa. Zapatuan 17:00etan egingo dute jaiak Seminarixean, eta adin guztietako gaztetxoak daude gonbidatuta. Antolatzaileek, baina, parte hartu behar duten gazteak apur bat lehenago batu nahi dituzte, 16:30 inguruan. Bizikleta eta kaskoa norberak eraman behar ditu.



Ziklista gazte bat. GOIENA

Bi pilota partidu gaur, egubakoitza, 19:15ean hasita

Gipuzkoako Eskuz Binakako Txapelketako partiduetan jokatuko dituzte gaur, egubakoitza, arratsaldean Bergarako udal pilotalekuan (19:15ean hasita), eta biak izango dira senior mailako norgehiagokak. Lehenengoan, bergararrek Oiartzungo pilotariak izango dituzte aurrean, eta bigarren partiduan, Lazkaoak.

Saskibaloiko neskek Astigarragan hasiko dute denboraldia

Emakumezkoen senior mailako Goizper Group BKE taldeak Astigarragan hasiko du liga zapatuan (18:00), Mundaroren kontra. Bergarako taldea Gipuzkoako lehenengo mailan dago, eta guztira hamabi taldek osatuko dute multzoa. Bada, Debagoieneko bi talde izango dira liga horretan, bergararrekin batera MUK ere taldea duelako hor.

Beart-eko artisten lanak domekako bermuterako

Beart elkarteko hainbat artistak euren lanak aterako dituzte domekan Irala kalera, 12:00etatik 14:00etara, Beart Eguna dela-eta. Ekimenaren helburua da Boluko egoitzan agiten duten lana kalera ateratzea; aurten Jesus Zabaleta 'Sanson' omenduko dute

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Beart elkartearen urteko egun handia izango da domekan. "Beart-ek hasieratik landu eta sustatu du pintura zaletasuna. Ez dakit buruz zenbat urte da-roagun Beart Eguna ospatzen baina izango dira urte batzuk honezkero, eta helburua beti da gure lana kalera ateratzea. Mota, maila eta adin guztietako lanak jarriko ditugu ikusgai kalean", adierazi du aurtengo otsaila ezkerko Beart-eko presidente den Xabier Agirrek.

Erakusketarako lehen aukera beti izan ohi da Irala, eta dome-

kan bertan egitea espero dute; euria egingo balu, San Martin plazako arkupeetan ikusi ahal-ko dira lanak. 11:00etan hasiko dira erakusketa muntatzen eta, gutxienez, 12:00etatik 14:00etara koadroak ikusgai egongo dira.

Omenaldia Jesus Zabaletari

Kalean erakusketa jarri ostean, Zumelaga jatetxean bazkalduko dute; aurreikusten dute 15 bat lagun elkartuko direla. Gainera, egun berezia baliatzen dute elkarteko kideren bat omentzeko. "Aurten Jesus Zabaleta *Sanson* omenduko dugu, elkartean urte

mordo bat egin ditu-eta. Erretiratuta egonda eta adinean aurrera badoa ere, ilusio eta gogo handiz etorri ohi da margotzera; beti adierazten du esker ona eta alaitasuna, eta uste dugu merezi duela gure partetik keinu txiki bat izatea", dio Agirrek.

Ehun bazkidetik gora

Beart-ek zenbat bazkide dituen galdetuta, Agirrek ez du zenbaki zehatza, baina dio Boluko egoitzan badagoela mugimendua: "Buruz ez dakit esaten zenbat garen baina bagara 100 bazkidetik gora. Elkartean ume, gaztetxo zein helduendako tailerrak ematen ditugu, eta gaur egun badira lauzpabost talde astero hiru orduko saioak egiten dituztenak". Hala, Agirrek herri-tar guztiei egin die gonbidapena domeka eguerdian Irala kaletik pasatu eta bertan ikusgai egongo diren askotariko margolanez eta bestelako arte-lanez gozatzeko.

Irala kaletik Aroztegi aretora

Irala kaleko erakusketaren ondoren, Agirrek gogoratu duenez, aukera ederra da Aroztegi aretotik pasatzea. Joxe Migel Zumalabe margolari ezagunaren koadro ezezagunenak daude ikusgai Aroztegin. "Aroztegi



Koro Zumalabe, aitaren erakusketaren irekieran azalpenak ematen. L.Z.L.

Zumalabe eta Arrieta, lagun handiak

Joxe Miguel Zumalabe (Donostia, 1906-1992) margolariaren 30 koadro daude ikusgai Aroztegin urriaren 25era arte. Irailaren 29an egindako irekiera ekitaldian egon ziren artistaren alaba Koro Zumalabe eta haren biloba Maddi Zumalabe. Artista donostiarrak Bergararekin izan zuen loturaren seinale da Elementalean matematika eta marrazketa irakasle zela ezagutu zuela Bergarak eman duen pintore handienetakoa, Simon Arrieta. Koro Zumalaberen arabera, "lagun handiak" egin ziren eta badago istorio eder bat koadro batekin: "Gerraostean, gure aita ezkondu egin behar zenean, Simon Arrietak gure ama izango zenari koadro bat margotu zion, erretratu bat. Koadro hori beti izango dugu etxean, eta Beart elkarteak Arrietaren omenez Donostiako Koldo Mitxelena ireki zuen erakusketa batean ere erakutsi genuen; harreman berezi bat zuten".

egutegia osatzeko batzordean gaude eta saiatzen gara kalitatezko erakusketak ekartzen. Zumalaberen erakusketa hau oso interesgarria da; margolari prestigiduna zen, baina bere azken garaiako lan hauek ez dira oso ezagunak. Bere alabari esker hau Bergarara ekartzea ederra da, pintore honen beste dimentsio bat ezagutzeko aukera dugulako", dio Agirrek. Ezin da ahaztu, gainera, Zumalabek Bergararekin izan zuen

lotura berezia. Garai hartako Elementaleko matematika eta marrazketa irakaslea zen eta harreman berezia egin zuen ordurako: "Gure Simon Arrietaren gidatzaile bat izan zen Joxe Migel. Elementaleko irakasle zenerako abangoardiako pintoreen artean bazuen bere lekua; Gipuzkoako artista gazteen saria birritan irabazita zuen ordurako, eta esan dezakegu Zumalabe haize freskoa izan zela Simon Arrietarendako".



Beart-eko koadroen erakusketa Iralan, 2021eko ekainaren 6an. IMANOL SORIANO



NIRE USTEZ

AINHOA PARDINA

Musikala, idazteko zaletasuna berpizten

Memoria daukadanetik ezagutu ditut musikalki antzeztuak Bergaran. Gogoan dauzkat umetan, *Miserableak*-erako azken entsegu orokorren hurrengo goizetan, ikaskide batzuk makillajea guztiz kendu gabe agertu ziren egunak. Harrezkero beste hainbat musikalki egin dira, eta gehienak ikusi ditut. Memoria daukadanetik ezagutu ditut nire eskuak

ipuinak idazten. Gogoan dauzkat txikitako piratari buruzkoak nahiz nagusiagotako kontu politikoei buruzkoak. Zoritzarrez, denboraldi bat pasa dut idazteko gogorik gabe, irudimenik gabe. Zorionez, Bergaran egin den azken musikalki ikusi dut: *Bretxa*. Zalantzarik gabe, *Miserableak*-ekin batera, nire gogokoena. Zerbait mugitu zidan barrenean. Idazteko gogo,

irudimena, guztia itzuli zidan. Kulturak kultura nahia berpiztu du. Betiko ikaskide izandakoa eta bere gurasoak, beste askoren artean, eszenan horren lan ona egiten ikusteak idazteko zaletasuna esnatu dit. Eta nola eskertu?

Gutxienez, zutabe hau zuentzat izan dadila. Eskerrik asko, bihotzez, herria kulturaren sakon murgiltzeagatik!

'Bretxa' Seminarixoko zineman ikusi ahal da etzi (11:30), doan

Bergarako Antzerki Musikala (BAM) elkarteak *Bretxa* proiektatuko du domekan Seminarixoko zineman (11:30). Sarrerak doan eskatu ahal dira leihatilan, agortu arte. "ETBk emititu zena ikusi ahal da; aitzakia polita izango da partaide guztiei, berriz ere, publikoki eskerrak emateko eta herriaren aurrean gure lana erakusteko", diote.



2023ko Antzuola Saria lasterketako boluntarioak, Aiastui elkarteak banatutako kamisetarekin, uztailearen 9an. KARLOS BALEZTENA

Mende erdiz gurpilei eragiten

50 urte bete ditu Aiastui Txirrindulari Elkarteak, eta bizi izandakoaren berri eman dute Joseba Lezeta eta Santi Aiastui elkartekideek. Antzuola Saria, Uzarragako Igoera eta 'challenge' probak antolatzen dituzte. Hala ere, oztopoak gero eta ugariagoak dira

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarría ANTZUOLA

1973ko azaroaren 12koa da Aiastui Txirrindulari Elkartearen eratze agiria. 50 urte igaro dira ordutik, eta asko izan dira elkartekideek eginiko urratsak txirrindularitzarekiko zaletasunak herrian iraun dezan. Bizikleta gainean izan ala ez, mende erdi igaro dute gurpilei ematen, eta, egun, oztopoak gehiago izan arren, aitortu dute lanean jarraitzeko gogoz daudela. Alabaina, lekuko aldaketaren beharra ere nabari dute.

Elkartearen aurrekariak, ordea, lehenagokoak dira, Santi Aiastui elkarte kideak eta txirrindulari ohiak azaldu duenez. "Gogoratzen dut 1970ean kanpoan nengoela lasterketaren batean, eta etxera itzultzean esan zidaten talde bat zegoela eginda: *Peña Aiastui*". Kuadrilla bat joaten zen Aiastuik parte hartzen zuen lasterketak ikustera, KAS taldean aritu baitzen 1973tik 1974ra. Egunpasak egiten zituzten. "Oilaskoa-eta hartuta joaten ziren! Pentsa, astean behin txuleta bat jateko dirua ere

ematen zidaten!", kontatu du umorez, lasterketa baten aurretik arroza eta txuleta jatea beharrezkoak zirelako. "Joxeren harategira joaten nintzen txuletaren bila; pagatuta izaten nuen. Joan eta hartu!".

Herritar batzuek, beraz, ordurako bazuten txirrindularitzarekiko zaletasuna, edo, bai, behintzat, Aiastui animatzeko gogo. Hala ere, lehenagokoak dira urratsak herrian, lasterketa batzuk egiten zirelako.

1946tik aurrera

Errepublikara garaian lasterketaren bat egiten zenaren esanak baldin badaude ere, Antzuola Saria da herriko txirrindulari lasterketarik zaharrena. 1946an antolatu zuten lehen aldiz, eta bergararrak ziren antolatzaileak, Joseba Lezeta Aiastui Txirrin-

"ELKARTEA 1973AN SORTU ZEN, BAINA 'PEÑA AIASTUI' AURRETIKOA DA"

SANTI AIASTUI AIASTUI-KO KIDEA

dulari Elkarte kideak azaldu duenez. Udala zuten horretan lagun, baina elkartea sortzarekin batera, lekuko aldaketa egin zen antolaketan. Hasieratik, 2020an izan ezik, urtero egin da lasterketa, eta 77. aldiz izan du aurtengoan. Are gehiago, duela 30 urtez geroztik, Iñaki Lete memoriale izena ere badu sarietarak. "Antzuolarra zen, eta asko lagundu zion elkarteari. Hainbat txirrindularitza lasterketa antolatzen aritzen zen; hiltzean bere izena gehitu genion Antzuola Sariari; gainera, alkatena zen", azaldu dute elkartekideek.

Urte asko dituen lasterketa da Uzarragako Igoera ere, eta Aiastui elkarteak du antolatzearen ardura gaur egun; hala ere, aurretikoa da. 1961ean egin zen lehen aldiz bergararren ekimenez. "Ez dakit zenbat edizio egin ziren, baina etena izan zuen. Elkarte ofizialki sortzean ekin genion berriro ere lanari", esan du Aiastuik. Izan ere, Lezetak gaineratu du lasterketak eta bestelako ekintzak antolatu ahal izateko sortu zutela ofizialki



Antiguako ziklo-kross proba, 1967an. IRINMODO

elkartea. Bada, horri esker, aurtun, 49. aldiz antolatu dute Uzarragako Igoera.

Iraun duten lasterketako bi dira horiek, eta elkarte kideak dira antolatzaileak, herriko *challenge* probekin batera. Baina badira jada antolatzen ez diren txirrindulari lasterketak ere; esaterako, 1978tik 1982ra, Antigua Saria antolatu zen. Are, lehenago, ziklo-krosa ere egin zen auzoan, baina beste batzuk ziren antolatzaileak.

Hamaika bizipen

Bizipen ugari dituzte bi elkartekideek, eta ondo gogoan dituzte horietako gehienak, baina bat batik bat: Euskal Herriko Itzulia, 1986an. "Lehenengo etapa hasi eta bukatu zen Antzuolan, eta baita bigarren eguneko hasi ere. Aiastui el-

"HERRI MAILAKO LASTERKETAK EGIN NAHI DITUGU, BAINA EGUN ZAILAGOA DA"

JOSEBA LEZETA AIASTUI-KO KIDEA

karteak antolatu zuen", adierazi du Aiastuik, eta Lezetak gaineratu du oraindik arrastoak ikus daitezkeela. "Lapatza baserriaren parean bukatu zen, eta oraindik hor omen dago pankarta jartzeko erabili zen postea ere sartuta".

Ordutik, ordea, 37 urte igaro dira, eta are gehiago lehen lasterketak egiten hasi zirenetik herrian. Ondorioz, asko aldatu da txirrindularitza bizitzeko era. "Gu gazteak ginenetik asko aldatu da. Guk entrenamenduak egiten genituen irten eta ordu pila bat, baina ganorarik gabe; orain, serieak-eta egiten dituzte. Elikagaiak ere ez dira berdinak... orain txuletarik ez da izango!", kontatu du Aiastuik. Haren arabera, lehenengo ziklismoa "esklusiboki ia europarra" zen, baina orain nazionalitate gehiagoko txirrindulariak daude. Horrez gainera, etxeetan ez zen ia txirrindularik. "Egune-roko behar baterako zen; orain autoa dena, lehen bizikleta".

Urteek aurrera egin ahala, ordea, garatu egin da txirrindularitza, eta elkartekideek argi



Uzarragako lehen igoera, 1961ean. BERGARAKO UDAL ARTXIBOA, TORIBIO JAUREGI FONDOA.



Euskal Herriko Itzulia, 1986an, Olamendi baserriaren aurrean. EL DIARIO VASCO

dute bide ona egin dutela herrian hori ahalbideratzeko. Alabaina, elkartearen osasunaz kezkatuta daude.

Bideko oztopoak

Lezetaren arabera, bazkide batzuk badituzte, baina babesleekin-eta aritzen direnez, ez dute "indarririk jarri" gehiago lortzeko. Bost lagunek osatutako taldea aritzen da lanean batik bat, baina baita inguruko herrietakoak ere. "Legazpiarrek, oñatiarrek eta bergararrek esku bat botatzen digute, eta lehen baita arrasatearrek ere; bestela, ezingo genuke". Data zehatzetarako herritarrek ere prest egoten dira, baina jende gehiagoren beharra dutela ohartarazi dute.

Halere, gero eta nekezagoa da ekintzak antolatzea. Herritarrekin eta laguntzaileekin funtzionatu izan dute; boluntario. "Meriendaren baten truke-edo laguntzen ziguten; soldatarik gabe. Beti bizi izan gara miserian! Baina tira...", aipatu du umorez Aiastuik. Baina lasterketak horrela antolatzeko oztopoak dau-

de orain, Lezetak salatu duenez. "Orain, profesionalizatzen ari da kontua. Herri mailako lasterketak egin nahi ditugu, baina egun zaila da horrela egitea".

Azaldu dutenez, baldintza batzuk bete behar dira lasterketetan; esaterako, ertzainek hamar motorista eskatzen dituzte, eta errepide batzuetatik ezin da igaro. "Alde horretatik, konplikatu egin da", esan du Lezetak, eta Aiastuik gaineratu: "Tourrari hamabi mila euro eman ei dizkiote, baina gero dena da oztopoa. Hor gastatu duten diruarekin Euskal Herriko lasterketa guztiak egin daitezke bost urtean". Uste du profesioaletara iritsi baino lehen, beste kategorietatik igaro behar dela, eta "trabak" egonda, hori zaila izango dela. "Piramide bat da: behean lan asko egin behar da gora igotzeko, baina hemen gauza handiak nahi izaten ditugu". Halere, Lezetak azpimarratu du euren eskemetan jardutea dutela asmo datozen urteetan ere; herri lanean. "Gu gauden artean, saiatuko gara horri eusten".

Etorkizuneko hilerriaren nolakotasuna hizpide

Hilerriak "geldi-geldi" daudela eta, etorkizunekoaren nolakotasunaz aritu da herritar talde bat aste honetan. Hiru galdera izan dituzte eskuartean: norentzat izan beharko litzatekeen, zein zerbitzuekin eta nolakoa. Hala ere, ideia gehiago jasoko dituzte

A.R.K. ANTZUOLA

Etorkizuneko hilerriaz jarduteko asmoz, gogoeta parte hartzailea abiatu dute aste honetan Hil Arte Bizi egitasmoak, Antzuolako Udalak eta EHU Euskal Herriko Unibertsitateko Parte Hartuz ikerketa taldeak. Astelehen arratsaldean egin zuten lehen saioa Olaran etxean, eta hamabost lagun inguruko taldea batu zen, Nere Erkiaga egitasmoa kidea gidari zela. "Aipatu dugu hilerriak geldigeldirik daudela. XIX. mendean sortu ziren gehienak, eta ordutik hona ez gabiltza pentsatzen komunitate bezala ea beharrak asetzen dituzten edo aldatu egin behar diren; beraz, planteamendua da nolako hilerria nahiko luketen irudikatzea".

Hasieran dinamika jolas bat egin, eta taldeka banatu ziren parte-hartzaileak, hiru galderari erantzun ahal izateko. Hilerria norentzat izan behar-

ko litzatekeen aipatzearekin bat, gogoetagai izan zuten zer izan beharko lukeen eta nolakoa izan beharko litzatekeen. "Ideia pila bat agertu dira. Gero, teknikoki posible direnak-eta ekarri beharko dira, baina gehienak izan dira aniztasuna,

naturarekin bateratzea, leku atsegina izatea, joateko modukoa, irakurtzeko lekua dena; dena bat izatea, ez banatzea hildakoen lekua. Azken batean, naturalizatzea".

Hurrengo urratsak

Alabaina, gogoetak aurrera jarraituko du, eta, beraz, proposamen gehiago jasoko dituzte datozen asteetan. "Orain, beste tailer eta ariketa batzuk egingo ditugu ezaugarri ezberdinak dituzten taldeekin, ideiak jasotzeko. Eta azaroan, jasotako ideia guztien sintesia egingo dugu". Hain justu, saio horretara gonbidatuko dituzte martitzenekoan parte hartu zuten herritarrek ere; hala ere, irekia da, eta, horrenbestez, nahi duenak har dezake parte.

Lehentasunak markatuko dituzte laburpenean, eta asmoa da martxoan aurkeztea emaitzak. Ondoren, Udalak jasoko du ondutako txostena.



Martitzeneko saioa. A.R.K.

GORA ETA BEHERA



Iraingo iturria apurtu dute

1941ean jarri zuten Iraingo iturria martxan, baina herritar batek salatu duenez, apurtuta agertu da. Alabaina, pozarren, iragarri du Frantses iturria konpondu dutela.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Txotxongiloez gozatzeko aukera izango da domekan

Rosa Martinezen eskutik, *Nora-ren sekretua* ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da domeka arratsaldean, Torresoroan. 18:00etan izango da emanaldia, eta hiru euro balio ditu sarrerak. Bibe plataforman eskuratu daitezke, baina egunean bertan ere eskuragarri egongo dira.

Ikuskizuna "familiarra" dela dio egileak. Nora umea da protagonista; amonarekin bizi da, eta Aingeru laguna ere alboan du. Hala ere, dena aldatuko da Gotzon ikaskidea eszenan agertzean. Era horretan, eskola jarpenaren gaia landu nahi du artistak, problematika "modu atsegina eta eskuragarri" batean islatuta.



Iñaki Arenazaren liburua eta *Beste aldea. Gizona ez den hori* dokumentala aurkezteko Espaloian egindako ekitaldia. L.Z.L.

Domekan, Memoria Eguna

Antzeztutako bisita gidatua iragarri dute Elgetako Udalak eta Intxorta 1937 Kultur Elkartek etzirako. Jarraian egingo dituzte lore-eskaintza eta aureskua 36ko gerrako biktima zibilen omenez Salvador ermitan dagoen oroitarrian

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA Egunotan betetzen dira 87 urte Intxortako frontea ezarri zela, eta domekan egingo dute Memoria Eguna Elgetan.

Aurreko egunotan liburu bat eta ikus-entzunezko bat aurkeztu dituzte bai Angiozarren bai Elgetan. Liburua Iñaki Arenazak idatzi du, eta *Angiozar 1936. Gerrateko kontuak* du izenburua. Ikus-entzunezkoa, berriz, Itziar Juaristik, Lorea Elorriagak eta Irati Alvarezek sinatzen dute, eta *Beste aldea. Gizona ez den hori* du izena. Bai bata zein bestea Intxorta 1937 Kultur Elkartearen zein Elgetako Udalaren bitartez lor daitezke.

Domekan ekitaldi gehiago

Etzi, domeka, izango dute amaiera urriko memoria ekitaldiek. 11:00etarako, antzeztutako bisita gidatua prestatu dute elgeta-

rrek. "40 bat lagunek hartuko dute parte", azaldu du Intxorta 1937 elkarteko kide Nerea Villak. "Errekreazio tailerra egin dugu aurten, eta zortzi bat lagunek hartu dute parte. Gainerakoan, Gipuzkoako eta Bizkaiko hainbat boluntariorekin egingo ditugu domekako antzezpeneak". Lubakikoak elkarteko kideak ere izango dira tartean.

Antolatzaileek aurreikusten dute antzeztutako bisita gidatuak hiruzpalau orduko iraupena izango duela. Mendizaleen plazatik abiatuko da, eta bederatzi antzezpen-gune izango ditu. Lau,

**BISITA GIDATUA
11:00ETAN HASIKO
DA; LORE-ESKAINZA
13:30EAN IZANGO DA
SALBADORREN**

hasierakoak, plazaren bueltan kokatuko dira. Gainerakoak Zaldunbordako bidegurutzean, Asentzioko ermitan, Asentzioko lubakietan, Belga posizioan eta Salvador ermitan izango dira. Fronteko alde bietako protagonistak antzeztuko dituzte 1936ko erasoaldietako gertaerak bisitariari azaltzeko.

"1936ko urriaren 3an kokatuko ditugu bisitariak, eta antzeztutako bisita gidatuan ikusiko dute frankisten erasoaldirako prestatzen ari den herri bat", aurreratu du Villak.

Bisita gidatuan parte hartzeko izena eman behar da. Hainbat bide daude horretarako: udala@elgeta.eus, infoturismo@deba-goiena.eus eta 943 76 80 22.

Amaitutakoan, aureskua eta lore-eskaintza egingo dituzte Salvador ermitaren parean dagoen oroitarrian.

"Ikusi dugu historiaren transmisioa emakumeek egin dutela"

IRATI ALVAREZ IKUS-ENTZUNEZKOAREN EGILEETAKO BAT

Gerra irudikatzerakoan gizonak datozkizu berehala gogora, baina historiak erakusten du emakumeak ere izan direla gatazka armatuetan. Horrela izan zen inguruotan ere. Emakume horiek gogoan egin dute *Beste aldea. Gizona ez den hori* ikus-entzunezkoa Irati Alvarezek, Lorea Elorriagak eta Itziar Juaristik.



L.Z.L.

Hoge emakume erresistenten berri ematen duzue.

Horrela da. Historia irakasten digutenean gizonen gerra da beti kontatzen digutena. Kasu honetan, Elgetako eta Angiozarko emakumeen historia kontatu nahi izan dugu uste dugulako kontatzeko zegoela oraindik. Ariketa interesgarria izan da.

Nolako emakumeak dira?

Bakoitzak bere erara biziko zuen gerra, eta egia da gehiengoak etxean gelditu zela, baina egon ziren emakume milizianoak, etxean senitartekoak gorde zituztenak, umiliatuak izan zirenak, bortxatuak... Hainbat adibide ekarri ditugu dokumentalera.

Erraza izan da jendea kamera aurrean jarri eta etxeko istorioak kontatzea?

Intxorta 1937 Kultur Elkarteko kideek kontaktu asko pasa zizkiguten lan handia egin dutelako esparru honetan aurretik, eta Iñaki Arenaza ere laguntza handikoa izan da. Hasiera batean lotsa sentitzen zutela esaten ziguten elkarrizketatuek, baina hurbilketa ahalegin bat eginda konfiantza bat sortzen zen, eta erraz egin digute berba. Eskertuta ere agertu dira bat baino gehiago urteetan etxean gordetako istorioei buruz hitz egiteko aukera emateagatik.

Aurkezpenetan esan duzue historia gizonena dela baina historiaren transmisioa emakumeek egiten dutela.


Lan honekin atera dugun ondorioetako bat da. Transmisioa, neurri handienean, emakumeek egin dute. Gizonezkoek gutxi hitz egin diete seme-alabei gerran pairatutakoei buruz. Latzak pasa eta gero, orokorrean, nahiago izan dute isilik egon.

'Angiozar 1936' liburua kalean da

"90 pertsona baino gehiagorekin egon naiz, eta liburuak guztira 130 pertsonaren ekarpena jasotzen du. Izena neuk jartzen dut, baina liburu guztion lana izan da", azaldu du Iñaki Arenaza egileak. 198 orriko liburu da *Angiozar 1936. Gerrateko kontuak*, eta bertan hainbat lagunek kontatutako pasarteak, han eta hemen aurkitutako dokumentazioa, eta artxiboko argazki zaharrak daude.

"Elgetako udal artxiboa iturri garrantzitsua izan da Angiozarko jende askoren jaiotze-agiriak bertan kontsultatu behar direlako. Intxorta 1937 Kultur Elkarteko kideak eta Iraitz Lazkano laguntza handikoak izan dira proiektu honetan", gaineratu du.

Fronteak iraun zuen zazpi hilabeteko tartean Angiozarren gertatutakoak jasotzen ditu liburuak. Salgai dago 15 euroan.



Liburuaren azala. L.Z.L.

Elkarlanean aritzea nahi du alderdi jeltzaleak

EAJ-PNV eta EH Bildu prest daude etorkizunean elkarrekin lan egiteko. Gaurkoz, jeltzaleek batzordeak birmoldatzea proposatu dute, baina Udal Gobernuak gai honekiko desadostasuna erakutsi du; aurre-akordio bat izatea ere ukatu du EH Bilduk

Julen Murua Mesonero ELGETA

Udal Gobernuari elkarrekin lan egitea proposatu dio alderdi jeltzaleak. Uztailaren 4ko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak batzordeen antolaketa eta karguen banaketa, baina EAJK "uko egin zion" karguen banaketa horretan arduraren bat hartzeari. Hala ere, zabalik utzi zuten "gobernu-talde berriarekin etorkizunean elkar ulertzeko aukera".

Gauzak horrela, Iker Lakak, jeltzaleen ordezkariek, akordio programatikoa bat lortzea proposatu dio EH Bilduri: "Helburua da batzen gaituen horretan arreta jartzea eta ikuspegi estrategikoa duen proiektu partekatua lantzea, egunerokoan sor daitezkeen desadostasunak albo batera lagata".

Akordio programatikoa

Alderdi jeltzalearen ustez, "herritarrek ordezkariek elkar ulertzeko eta udalerrria eraldatzeko ekimenak martxan jartzeko gaitasuna espero dute"; eta lortu nahi dute "Elgetari egonkortasuna eta etorkizuneko proiektu bat emango dizkion akordioa". Negoziazioekin hasiko dira hauteskunde-programetan jasotako proposamenak alderatuz, eta, horretarako, kanpainen aurkeztu zituzten "10 konpromisoak, 5 ardatzak eta 3 lehentasunak" eta "bi mailako akordio programatikoa egiteko planteamendua" helaraziko dizkiote EH Bilduri.

Akordioaren bi mailak honako hauek izango lirake: "Alde batetik, itun bat EAJ-PNVk eta EH Bilduk estrategikotzat jotzen dituzten hiruzpalau proiektuekin; konplexutasun handikoak, beste erakunde batzuen lankidetzara eskatzen dutenak, eta epe ertain eta luzera begirakoak. Bestetik, aurrekontu txikiagoa eta gauzatzeko denbora gutxiago behar duten baina bizilagunen



Uztailan egin zen osoko bilkura. GOIENA

BATZORDEAK BIRMOLDATZEAREN GAIAREN INGURUKO AURRE-AKORDIOA UKATU DU EH BILDUK

egunerokotasuna hobetzen laguntzen duten proposamen ugari adostea".

Batzordeen berregituraketa

Jeltzaleek Udal Gobernuari proposatu diote egungo hamaika batzordeak zortzi izatera igarotzea. Dagoeneko "aurre-akordioa" dutela aitortu du Iker Lakak, eta lortutako aurre-akordio hori "bi alderdien arteko ulermen-giro onaren adierazle" dela ere azaldu du. Akordioa azkar ixtea espero dutela ere jakinarazi dute. Proposatzen dituzten batzordeak hurrengoak dira: Ekonomia, Ogasuna eta Erakunde Gaiak; Obrak, Zerbitzuak eta Hirigintza; Ingurumena eta Baserritarrak; Memoria Historikoa eta Turismoa; Berdintasuna; Kultura, Euskara eta Jaiak; Hezkuntza eta Gazteria; eta Ongizatea eta Kirola.

EH Bildu, hitz egiteko prest

"Akordio eta adostasunetara iristeko" eta "benetako elkarrizketa zintzo bati ekiteko" prest daudela adierazi du EH Bilduk, baina horretarako "udal barruan sendo lan" egin behar dela adierazi dute.

Batzordeen birmoldaketari dagokionez, jeltzaleek adierazi duten "aurre-akordioa ukatu" nahi izan du Udal Gobernuak. Gainera, jakinarazi dute ez daudela ados "batzorde batzuekin egiten den korrelazioarekin"; zehazki "Ongizate eta Kirol batzordeak batzuekin" ez dutelako "zerikusirik bata bestearekin". Ildo beretik mintzatu dira "Ekonomia, Ogasuna eta Erakunde Gaiak Batzordeari buruz, gaur egun gai ekonomikoak Ogasuna eta Pertsonala Batzordean lantzen baitira".

Aurreko guztia kontuan izanda Ibon Unzetabarrenetxeak esan du ez dutela egoki ikusten "batzordeak berrantolatzeke egindako proposamena". Hala ere, adierazi du prest daudela "gai horiek, zein etorkizunean sor daitezkeenak ere, Elgetako EAJ-PNV udal taldearekin eztabaidatzeko".

Dantza ikastaroak izango dira urte osoan zehar Elgetan

Udalak adinaren arabera lau talde eratu nahi zituen, eta lortu du talde guztiak osatzea

J.M.M. ELGETA

Ikasturte honetan, aspadike partez, urte osoko dantza ikastaroak izango dira Elgetan. Irail amaieran zabaldu zuen izen-ematea Udalak, eta gutxienez 46 lagunek eman dute izena dagoeneko.

Kultura zinegotzi Maialen Arnedok jakinarazi du hilaren 20an hasiko direla saioak eta barikuro izango direla. HH 3-5 talderako, zortzi neska-mutikok eman dute izena; LH 1-3 bitartekoetan, hamalauk; LH 4-6 bitartekoetan, hamahiruk, eta DBH 1etik au-

rrerakoetan, hamaikak –eguzteneko datuak dira–.

Irakasleak Eibarko Kezka dantza taldeko bi kide izango dira, eta saioen ordutegia izango da: barikuetan, 16:15-17:15, HH 3-5 eta LH 1-3 bitartekoentzat; eta 17:15-18:15, LH 4-6 eta DBH 1etik aurrerakoentzat.

Euskara ikastarorik ez

Euskara ikasteko proposamena luzatu zuen Udalak, baina talde batean ere ez du pertsona kopuru nahikoak izena eman. Beraz, ez da talderik osatuko.



KANTSATZEKE MENDI TALDEA

Enaitz eta Zabalaitz ezagutzera

Abuztuan egindako geldialdiaren ostean, berriro ere ekin zieten Kantsatzeke mendi taldeko kideek hilero egiten dituzten mendi martxei. Aizkorriko mendi-lerroan dagoen Enaitz tontorra igo zuten lehenengo, eta, Urbiako fondan indarrak hartu ostean, Zabalaitz tontorrera igo ziren. Urtean zeharreko ohiturari jarraituz, urrian ere irteera egingo dute.

Hitez Pitz irakurketa taldeak hasi du aurtengo ikasturtea

Martitzenean, hilaren 10ean, hasiko du Hitez Pitz irakurketa taldeak ikasturte berria. Taldearen asmoa da martitzenero 19:00etatik 20:00etara elkartzera liburutegian. Lehenengo saiorako Nerea Ibarzabal bertsolari, kazetari eta idazle bizkaitararen *Bar Gloria* liburuko lehenengo bost atalak irakurri behar dituzte saioan komentatzeko.

ZUZENKETA

Joan den asteko GOIENAn (1007. alea), 27. orrialdean, adierazi genuen Urko Lozano mendi lasterkari elgetarrak jokatu zuen lasterketa izan zela Euskadiko Txapelketako azken lasterketa.

Hala ere, jokatu zuena ez zen Euskadiko Txapelketako azken lasterketa izan, Euskadiko Kopakoa baizik. Horretaz gain, Skyrhune Ttiki lasterketak berak ez zuen izan hamabost kilometroko luzera, hamar kilometro ingurukoa baizik.



Oñatiko bandak Sorotan Bele taldearekin egindako kontzertuak herritar asko erakarri zituen. JON GOIKO



Gaztetxoak herri kiroletan, plazan. GOIENA



Mozorro koloretsuak ikusi ziren kaleetan Errosario Bixamon egunean. GOIENA



Haurren parkean saltoka. GOIENA



Herriko abelburuak, barazkiak, frutak zein gaztak kalean Herri Egunean. GOIENA



Herritar askok elkarrekin bazkaldu zuten kiroldegiko herri bazkarian. GOIENA

Jendetsuak, ondo gozatutakoak eta beroak izan dira jai nagusiak

Joan den eguen iluntzetik astelehen gauera arte ibili dira jaietz gozaten herritarrak. Giro ona egon da kalean, eta musika kontzertuetan, adibidez, jende asko batu da

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Kalean gozatzeko egunak izaten dira jaiak, eta horrela gertatu da astean bukatu diren herriko jai nagusietan; jendetsuak izan dira. Jende asko elkartu da antolatutako ekitaldietan, pilota txapelketako finalean, herri bazkarietan, zein musika emanaldietan, adibidez.

Asurmendi eta Ordorika

Gustu ezberdinak asetzeko modukoa izan da aurtengo musika eskaintza, esaterako, eta igarri da, antolatutako kontzertu de-

netan egon da eta jende asko. En Tol Sarmiento taldeak jendez bete zuen herriko plaza, eta dantzan jarri zituen guztiak lehen abestitik; *Zuengatik topa* kantua erekin batera hasi eta bukaera arte, ordu eta erdiz, disfrutatu zuten joandakoek. Kontzertuaren momentu batean, gainera, Idoia Asurmendi abeslari aramaioarra igo zen oholtza gainera, eta taldeko abeslari Iñigo Etchezarretarekin batera abestu zuen *Zaindu nazazu* abestia. Txalo zaparradarekin erantzun zuen jendeak.

Lehen Lerroa eta Añube taldeek ere zale asko izan zituzten ondoan. Berdin Rukulak, Suak eta Puro Relajok. Adolfo Cabrales *Fito*-ren jarraitzaileek kantuan pasa zuten *Fito & Fitipaldis* taldeari tributu egin zion laukoteak Atzeka kalean eskainitako kontzertua. Ordu berean, domekan, 19:00etan, jo zuen Tapia eta Leturia Band taldeak txosnagunean. Hamaika laguneko taldeak ondo ase zituen aurrean zituzten entzuleak. Emanaldia bukatu aurretik, abuztuan hil zen Jonan Ordorika oñatiarrari –"askotan

ondoan izandakoa"– eskaini zioten kantu bat, hura gogoan: *Maitatzen zaitudalako*. Txalo asko entzun ziren eskaintzaren unean.

Horietan ez ezik, herriko musika bandak domeka gauean plazan Sorotan Bele taldeko lau kiderekin batera egindako kontzertuan ere gozatu zuten herritarrek. Egitarauan ikusi orduko zuten askok apuntatuta hitzordu hori; jendetza batu zen orduan ere plazan. "Oñatikoa ez dugu sekula ahaztuko. Bandako jendea, herri giroa, herria bera... guztia

ederra!", zioen martitzenean Sorotan Beleko Urbil Artola taldekideak.

Zorion mezuak

Jaietz gozatzeko gogoia zutela antzematen zitzairen herritarrei arpegieta, eta gozatu dute. Herri Egunean eta Errosario Bixamon egunean ere giro ona zegoen erdigunean.

Udalaren lehen irakurketa ere, ona da; Udalean zorion mezuak jaso dituztela adierazi du Kultura batzordeburu Iñaki Olalde. "Ikaragarri pozik gaude egin



Gaztetxeko kanpoaldea jantoki bihurtu zen Herri Eguneko bazkarian. GOIENA



Domeka iluntzean jo zuen Tapia eta Leturia Band taldeak txosnagunean. GOIENA




Iza eta Marquinez irabazle berakatz-zopa lehiaketan. GOIENA



Plaza lepo bete zen En Tol Sarmiento taldearen kontzertuan, San Migel egunean. SUSANA ALTUNA



Astelehen goizeko sokamuturrean. GOIENA



Ilunpetan taldekoen argazkia. GOIENA

Badator udazken kulturala

Udazkenean sartuta ospatzen dira herriko jai nagusiak, eta atsedenik ia hartu gabe egingo dira udazkenerako antolatuta dauden hainbat ekitaldi. Egingo diren kontzertuen artean, esaterako, Iker Martinez eta Zaldi Herrenak taldeak urriaren 15ean gaztelekuan egingo duena. Letagin eta Niña Coyote ere entzungo dira. Azaroko film laburren rallya, igande musikatuak eta trikiti jaialdiak ere egingo dira, baita umeendako zein nagusiendako antzezlanak ere. Gaztetxean ere egongo da zer eginga. Zine klubak ere hasi du denboraldia. Betiko moduan, eguenetan izango da, 20:00etan, zinema aretoan.

dugun lanaren emaitzarekin. Jaiak hasi aurretik esan nuen egitarauaren erdia inguru herriko eragileek antolatutakoa zela, eta eurekin partekatu gura ditugu jaso ditugun zorion mezua. Eragile askok ekintza puntualak antolatzeaz gain, egunero-egunero martxan egon den eragileetako bat Txosna batzordea izan da, eta denon arteko elkarriketa eta elkarlanaren ondorioz eskaintza bikaina, zabala eta indartsua eskaini dute. Aurten, uste dut musika, esaterako, familia giroan bizi



Eltziatik plazaraino entzun ziren danbor eta barril hotsak San Migel bezperan. GOIENA

eta partekatu ahal izan dela, belaunaldi ezberdinak elkar gozatu ahal izan dute, seme-alabetatik hasi ta gurasoengana, eta alderantziz". Udaltzaingoan ere ez dute "aparteko gorabeherarik" jaso, eta eraso sexistak salatzeke herritarren eskura jarritako telefono zenbakian ere ez dute deirik jaso.

Lehen balorazioa positiboa da, beraz, eta orain departamentu guztietako iritzia eta ekarpenak jaso, eta balorazio sakonagoa egingo dute hurrengoetara begira.

AUTLAN[®]
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.

"Txapelketa hasi zenetik gozatzeko saiatu nintzen"

IÑIGO ERLE PILOTARIA

Duela bi urte ere txapela jantzi zuen, orduan gazte mailan. Oraingoan, 23 urtez azpiko mailan, balentria errepikatzea lortu du, gertuko babesa alboan zuela

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI
Iñigo Erlek ez ditu berehalakoan ahaztuko igaro berri diren Oñatiko jaiak, eta ez bereziki parranda egiteagatik, San Migel torneoko txapela jantzi zuelako baizik. Final estu bezain lehian, Zubizarretarekin bikotea osatuz, 22 eta 19 irabazi zioten Oskoz-Oliden bikoteari. Pilotari oñatiarra "oso gustura" dago, eta sentazioak ere "oso onak" izan dituela azpimarratu du. **Badirudi San Migel txapelketarekin zerbait berezia duzula...**

(Barrez) Bi urtez jarraian ez bada ere, bi urtez irabaztea lortu dut. Egia da, Oñatiko txapelketa izanik xarma berezia duela niretzat, eta gertutasun hori sentitzeak aparteko berezitasuna ematen dio nire ustez txapelketari.

Hori da hori sufritzea txapela irabazteko...

Bai, hasieratik garbi nuen finala irabaztea oso zaila izango zela. Nire zalantzak izan nituen hasieran, lau egunetan hiru partida jokatu nituelako, eta tartean, gainera, herriko jaietako Herri Eguna zegoen; horregatik, zalantzak nituen ea finalaren egunera nola iritsiko nintzen. Egia esan, nahiko fresko iritsi nintzen eta eskuetatik ere konfiantza askorekin. Partidari dagokionez, detaile txikietan erabakitzen dira horrelako finalak, eta hor, guk zertxobait gehiago asmatu genuen amaierako zatian, baina orokorrean, lau pilotariok oso partida txukuna burutu genuen.

Harmailak beteta, etxekoak eta lagunak gertu... horrelakorik espero zenuen?

Ez nuen espero hainbeste jende etorriko zenik, eta zentzu horretan niretzat bultzada berezia izan zen; animo asko jaso nituen. Gainera, pilotalekua horren bete ikusteak kantxan gauden lau protagonistok gure onena ateratzea eragiten du.



Iñigo Erle domekan irabazitako txapela eskuan duela. IÑIGO ERLE

Ez zenuen zure aurrelariarekin jokatu finalean. Horrek beste balio bat ematen dion txapelari?

Bai. Ostegunean elkarrekin jokatu genuen eta antzeman nion ez zela aurrealdean behar beste sartzen jokoan, eta gero esan zidan ezin izango zuela finala jokatu. Horrelako kasuetan, azken orduko aldaketa horiek norberaren kalterako hartzen dira, baina ikasi dut horrelakoak jokoaren parte direla eta negatiboki beharrezkoak, positiboki begiratu behar zaiela aldaketa hauei.

Duela bi urteko txapelak eta oraingoak ze berezitasun ditu?

Hasteko, esango nuke txapelketaren maila igo egin dela. Duela bi urte ere maila ona zegoen, baina urtetik urtera Aloña Men-

di Pilota Sailaren lanaren bitartez, eta, Ander Biain tartean sartu dela kontuan izanik, maila aldetik beste puntu bat irabazi du txapelketak. Gainera, orain dagoen maila ikusita, irabazteak ere beste poztasun bat eman dit.

Eta duela bi urteko Iñigo Erlek eta oraingoak?

Mundu guztiaren moduan, norbera ere garatzen doa gutxinaka. Duela bi urte ondo jokatu arren, orain, batez ere aldatu dena gauzak hartzeko modua izan da. Txapelketaren hasieratik disfrutatzeko asmoarekin kantxaratu nintzen, eta finalaren kasuan ere, partidu normal bat gehiago bezala hartu dut, eta horrek gauzak beste modu batera bizitzeko lagundu dit.

Aurrerantzean zer dator?

Buru-belarri nabil orain Gipuzkoako txapelketan murgilduta, eta Tolosako txapelketa edo Diario Vasco torneoa ere begiz jota dut. Hortik aurrera suertatzen diren aukerak aprobetxatzen saiatuko naiz.

"OÑATIKO TORNEOA IZANIK XARMA BEREZIA DU, ETA GERTUTASUN HORI IZATEA BEREZIA DA"



NIRE USTEZ

HORACIO ARGARATE

Mikel Deuna

Jaiak amaituta, jatorriz oñatiarra eta Bergarako unibertsitatean Antropologia Kulturalaren irakasle bikaina den Felix Leturia Ibarrondok egindako ikerketa eta tesia dakart gogora: Gure inguruan San Mikelek izan duen, eta daukan, eragin kulturala. Aralar aparte utzita, Bizkaian 30 ermita eta 14 parrokia aingeruari dedikatuak daude; Iurretakoa eta Xemeingoa ezagunenak. Gipuzkoan, 14 ermita eta 14 parrokia. Gertukoak: Angiozar, Garagartza, Araotz eta Oñati, eragin bereziak duena. Felixek, usadioen mimetismo errepikakorraren bitartez, gizarte baten baloreen azalpen eta transmisioarekin batera, gizartearen aldakuntzarako sortzen diren balio berrietara zabalik aurkitzen ditu irudi eta erritual hauek. Era horretan, lehengo unibertsitate kokatuta sentitzen gara, eta, era berean, garaian garaikoan. San Mikelen inguruan, erlijioasunean izandako aldaketak (sekularizazioa eta fedearen pertsonalizazioa) irudipen eta sentimendu berrietara zabaldu daitezke, eta dagoeneko zabaldu dira. Ez duzue aurten ikusi txosnagunean San Mikelen irudi "koloretsua" jaietako buru?

Areto futboleko talde gorenak denboraldi berriari ekingo dio

Igoerarekin gertatutako afera alde batera utzita, aurten ere, goialdean egoteko asmoa dute txantxikuarrek

I.B.K. OÑATI

Coinbroker Aloña Mendik aste-buruan jokatu du denboraldiko lehen neurketa Euskalduna taldearen kantxan, zapatuan, 15:00etatik aurrera. Hasiera batean, pasa den asteburuan hastekoak ziren oñatiarrak, baina aurkaria izan behar zena ez da ligara apuntatu, eta, beraz, atsedena izan zuten. Iaz igoerarekin izandako afera alde batera utzita, Iñaki Igleciasen taldeak aurten ere goiko postuetan lehia-tzeko asmoa du: "Gure helburua Euskal Ligara igotzea da aur-

tengo denboraldian ere, eta jokalariek motibatu behar ditugu horretarako".


Helburu hori lortzeko asmatan, aurpegi berriak dituzte oñatiarrek, eta lehendabizi horiei taldearen jokamoldea zein den erakustea ezinbestekotzat jotzen du Igleciasek: "Jokalariek berriei gure jokatzeko modua erakutsi behar diegu, futboleko profila dutelako, eta, gainera, taldean integratu behar ditugu; hori lortuz gero, helburu nagusitik hurbilago egongo gara".

Aloña Mendi Mendi Sailaren irteera urriaren 15ean

Mendi irteera egingo dute datorren urriaren 15ean, domeka, Aloña Mendi Mendi Sailak antolatuta. Izena emateko azken eguna urriaren 12a, ostirala, izango da. Aloña tabernan edo alonamendi.mendi@gmail.com helbidera idatzita egin beharko da, eta bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte. Gainera, federatuta egon beharko da.

Ate irekiak egongo dira Igeriketan eta 'Aquatrainig'-en

Igeriketan eta *Aquatrainig*-en ate irekiak egingo dituzte kiroldegian. Urriaren 9an eta 10ean izango dira igeri egiteko ate irekiak, eta, astearte eta ostegunetan, berriz, *Aquatrainig* ikastaroak. Azken hori igeri egiten dakitenei zuzenduta dago. Izena kiroldegiko harreraren eman beharko da, eta plaza mugatuak izango dira.



19. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*

Banatu ditugu Udako Argazkien 19. Goiena Lehiaketako sariak. Lau saridun izan ditugu. **Iker Zubizarreta arrasatearrak Dolomitetan ateratako argazkiarekin lehen saria irabazi du – Kantabrian bi pertsonarendako gaua eta gosaria, Arrasateko eta Bergarako Halcon Bidaiak-en eskutik–. **Angel Ayastuy aretxabaletarrak Suaren irribarreak izeneko irudiarekin bigarren saria irabazi du –Samsung Galaxy A14 eskuko telefonoa, Eroski Arrasate Hipermerkatuaren eskutik–. **Irati Urzelai aretxabaletarrak Gironan ateratako argazkiari esker lortu du hirugarren saria –Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean bi pertsonarendako bazkaria edo afaria–. **Azkenik, Odei Vazquez aretxabaletarrak Dubrovniken ateratako argazkiak eskuratu ditu boto gehien, eta, beraz, Publikoaren Saria irabazi du –Bergarako Ereindajan-en eskutik otarra–.********

Zorionak guztioi eta hurrengo urtera arte!

1. SARIA



Iker Zubizarreta eta Halcon Bidaiak-eko Ailen Echaguibel.



2. SARIA



Angel Ayastuy eta Arrasateko Eroski hipermerkatuko Josebe Baztarrika.



3. SARIA




Irati Urzelai eta Gure Ametsa jatetxeko Josune Ibabe.



PUBLIKOAREN SARIA



Odei Vazquez eta Bergarako Ereindajan-eko Julia Pajares.



ANTOLATZAILEA

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
Restaurante • Jatetxea

BERGARA
**EREIN
DA
JAN**

Halcon BIDAIAK
ARRASATE BERGARA

Xabier Urzelai ARRASATE

Egindako denboraldi ona eta kontratu profesionala sinatu berri duela ospatzera Oñatiko San Migel jaietara etorri da egunotan Julen Arriolabengoa (Eskoriatza, 2001). Hain zuzen, Caja Ruraleko ziklistak Oñatin jaso ditu besoak azkeneko, duela hiru aste, Lehendakari Txapelketako azken lasterketa irabazita. Etxekoek Apotzagan daukaten baserriko atartearen erantzun ditu GOIENAREN galderak, gaur egun bera Araban bizi da-eta. Hala, Euskalteleko Mikel Aristik eta Julen Irizarrek bizikleta zintzilikatzerakoan ibarrean utzitako hutsunea betekoz du Arriolabengoa. Caja Ruraleko lehenengo taldera egingo du salto.

Merezitako oporrez gozaten?

Bai, parrandaren bat egin dut, feriaren batean ere izan naiz... Egutegi oso bete izan dugu aurten, eta atsedean hartzea ere garrantzitsua da, baita mentalki ere.

Bete duzu ametsa, txirrindulari profesional izango zara.

Halaxe da; Caja Ruraleko lehenengo taldera egingo dut salto. Txirrindulari batzuek ia ezustean ematen dute saltoa, ez da nire kasua. Umetatik nahi izan dut txirrindulari profesional izan, horretarako egin dut lan eta amets hori izan dut. Bada, lau urtez amateur mailan ibili eta gero, lortu dut.

ProTeam mailara pasako zara, gogotsu?

Bai, gogo handiz nago. Motibazioari eusteko aurrerapauso bat eman behar nuela sentitzen nuen. Orain, lasterketetan, telebistan ikusten ditudan horiek izango ditut ondoan, eta euren kontra indarrak neurtzea baino motibazio handiagorik ez dago. Gainera, oso gustura nago Caja Ruralen. Talde ona da, gaztetatik ezagutzen naute, eta egutegi polita egin ahal izango dugu.

Tartean izango dituzue Euskal Herriko Itzulia edota Donostiako Klasikoa moduko lasterketak... Baita nazioartean lehiatzeko aukera ere. Halaxe da, eta halakoren batean egoteko aukera izatea sekulakoa

"ERREGULARTASUNA IZAN DUT AURTEN, ETA AMATEUR MAILAN OSO GARRANTZITSUA DA HORI"

"Umetatik nahi izan dut ziklista profesional izan, eta lortu dut"

JULEN ARRIOLABENGOA CAJA RURALEKO ZIKLISTA

TXIRRINDULARITZA Amateur mailan urte ikusgarria egin du eskoriatzarrak, eta taldeak saritu egin du. Profesional mailara pasako da Caja Rural taldearekin



Julen Arriolabengoa, Apotzagako auzoan, Eskoriatzan. GOIENA

da. Taldean badakite txirrindulari bakoitzari zerk egiten dion ilusioa, esaterako, euskaldunondako Itzulia lasterketa berezia dela... Gure lehentasunak zeintzuk diren galdetzen digute, eta noski, gero ikusi egin behar da taldeak lasterketa horretarako ze txirrindulari mota behar duen, zeintzuk diren bakoitzaren ezaugarriak, sasoi onean ote zauden... Baina bai, halako lasterketetan egoteko aukera izan dezakedala pentsatzeak ilusio galanta egiten dit. **Denboraldi ikusgarria Oñatin errematatu duzu.**

Bai, garaipen batekin hasi nuen urtea, eta Oñatin ginga jarri nion. Berezia izan zen Oñatiko kaleetara ihes eginda iristea. Kuriosoa da, Lehendakari Txapelketan hiru lasterketa irabazi

ditut, baina ez naiz sailkapen orokorraren borrokan egon. Eta kontrara, Euskaldun Torneoa irabazi dut lasterketarik irabazi barik, erregularra izanda.

Hori da zure ezaugarrietako bat?

Baietz esango nuke, erregularitasuna. Igotzailea naiz eta malda gora amaitzen diren etapetan ondo moldatzen naiz. Bestalde, itzuli luzeetan ikusi dut gorpuzak ondo erantzuten didala. Amateur mailan erregularitasun horrek asko balio du. Akaso, profesional mailan normalagoa izaten da ziklista batek urtean bizpahiru aldiz sasoi puntu oso ona izatea, baina amateurretan garrantzitsua da puntutik ez pasatzea, eta hilabete askotan lehiakorra izatea.

Irailean, besteak beste, Garrastakuko maldetan erakutsi zenuen goraka duzun erraztasuna. Dena emanda iritsi zineten helmugara.

Gauza kuriosoa gertatu zitzaidan Baranbioko lasterketan. Azken igoeran bizikletako katea irten zitzaidan eta garaipenerako aukera denak galdu nituela pentsatu nuen. Bizikletatik jaitsi, katea sartu eta azken kilometro horretan dena emanda, aurrekoak harrapatu eta lehenengo helmugaratu nintzen. Uste dut inoiz ez dudala horrenbeste sufritu. **Ikustekoa da zuen mailan Caja Rural Aleak egin duen urtea...**

Bai, talde moduan amateur mailan 32 lasterketa irabazi ditugu, ziklista asko nabarmendu gara eta ez da izan erraza gora egitea. Duela gutxi esan didate ofizialki gora igoko nintzela, ez pentsa. **Aurten ezingo duzu oporraldia askorik luzatu.**

Ez, talde berriarekin abenduan izango dut-eta urteko lehen kontzentrazioa, eta bertara txukun samar joan nahiko nuke [Bareak].



Arriolabengoa bost lasterketa irabazi ditu aurten. CAJA RURAL

Kategoria estreinatzen gogoz daude bi taldeak

SASKIBALOA Gipuzkoako Txapelketatik Euskadiko bigarren mailara igo dira Soralue BKE eta Biotz Aloña Mendi; denboraldiaurrea luzea egin zaie denei, lehiarako gogoz daude-eta. Bergarrek hasiko dute liga etxean, eta oñatiarrek Azpeitian

Xabier Urzelai ARRASATE

Gainontzeko kategoriek baino beranduago hasiko dute Euskadiko bigarren mailako liga, eta bergararrak eta oñatiarrek dagoeneko urduritzen hasita daude maila estreinatzen deuseatzen daudelako. "Batetik, Euskadiko Txapelketara igotzeko erabakia hartu genuenetik hilabeteak pasa direlako", dio Xabat Irazola bergararrak. "Eta, bestetik, gure jokalariei benetan gustatzen zaiena partiduak jokatzea delako", gaineratu du Aitor Ugarte oñatiarrek.

Hamarkada bat pasa berri da oñatiarrek herriko saskibaloien loraldia bizi izan zutenetik -2013ko maiatzean jaitzi zen taldea EBA mailatik-, eta azken urteotan bai mahoneroak eta bai txantxikuak Gipuzkoako lehenengo mailan lehiatu dira. Bada, aurtengo derbiak Euskadiko Txapelketan jokatuko dituzte.

Begararrak, indartuta

Irazolak dio Bergara ondo indartu dela Euskadiko Txapelketara begira. Venezuelatik etorri da Carlos Daniel Antivero, eta 22 urteko gazteak badaki Venezuelako selekzioaren elastikoa jantzea zer den -16 urtez azpikoan mailan-. "Eta horrekin batera azken urteotan Arrasateko Ointxe! klubean jokatzen ibili diren Josu Martinez eta Eneko Munarriz bergararrak ere etxera bueltatu dira. Horiek maila nazionalan jokatuko dute, eta EBA mailan ere inoiz lagundu izan diote lehenengo taldeari. Esperientzia hori oso baliagarria izango zaigu Euskadiko Txapelketarako".

Hala, mahoneroek Gasteizko ICS Ebaki Solutions-en kontra jokatuko dute domekan (18:30). "Ligako oilarretako bat izan daiteke; ez ditugu jokatzen ikusi, baina badakigu talde sendoa dutela. Aste batzuk beharko



Oñatiarrek eta bergararrak, iazko derbian. I.SORIANO

ditugu gure maila liga honetan zein den ikusteko".

Oñatiarrek, Iraurgiren kontra

Biotz Aloña Mendikoek ez dute liga hasiera erraza izango, Iraurgiren kantxan jokatu beharko dute-eta (zapatua, 18:00). "Taldea oso motibatuta dago, baina ez gaude momentu onenean, jokalariren bat gaixo dagoelako, beste bat min hartu berri... Ez da Iraurgi moduko talde indartsu baten kantxara joateko modurik onena; klub moduan ere Gipuzkoako onenetakoa da.


Baina ez dago aitzakiarik, daukagun onena ematen saiatuko gara", dio Ugartek.

Azpeitiarrek azkar jokatzen saiatuko direla aurreikusten du entrenatzaile oñatiarrek. "Eta guk ere halaxe jokatzen dugu, baina oraingoan jokoa lasaitzea komeni zaigu, euren erritmoa kutsatzen badigute... Ez dugu aukera handirik izango. Iraurgiko jokalariek ez dira bereziki altuak, baina intentsitate handiarekin jokatzen kapaz dira, ea guk barne jokoa baliatu dezakegun".



AITOR UGARTE BIOTZ ALOÑA MENDIKO ENTRENATZAILEA

"Liga hasierara begira azken orduko bajak izan ditugu, baina Azpeitira daukagun onena ematera goaz. Ea euren jokoa moteltzeko kapaz garen".



XABAT IRAZOLA SORALUCE BKE-KO ENTRENATZAILEA

"Ondo indartu dugu taldea, baina aste batzuk beharko ditugu non egon gaitzekin ikusteko. Domekako kontrarioa ligako oilarretako bat da".

UDAK eta Bergarak ondo hasi dute liga, aurrean daude jada

FUTBOLA Eibar da lau partiduak irabazi dituen bakarra; Bergarakoek eta UDAkoek hiruna irabazi dituzte

X.U. ARRASATE

Begararak eta Aretxabaletak ondo hasi dute Ohorezko erregionalean liga. Lau partidutatik hiru irabazi dituzte, eta horrek hasieratik kokatu ditu ligako oilarren artean. Baina, bistan da aurten ere Eibar besteak baino koska bat gorago egongo dela.

Oraingo asteburuan bailarako bi ordezkariak jokatuko dute kanpoan. Mahoneroek oraindik partidurik irabazi ez duen Real Unionen kontra (domeka, 17:00). Eta aretxabaletarrek eurek moduan liga ondo hasi duen Tolo-

saren kontra (domeka, 11:30). Gorengo mailan antzularrek jokatuko dute etxean, zapatuan (16:00), Seguraren kontra. Eta Mondrak -ikus 12. orria- eta Aloña Mendik kanpoan jokatuko dute. Txantxikuen kasuan, zapatuan, 16:00etan, Villabonan.

Debagoiena Bailarak Oñatin

Emakumezkoen mailan, berriz, etxeko taldea azken bi asteetako emaitza txarrak zuzentzen saiatuko da Azkoagainen. Urola izango dute bisitari, domekan (16:30).



ATAMA ESKORIATZA

Kenpo txapelketan bikain

Guadalajaran egin dute egunotan Nazioarteko Kenpo Kopa, eta bertan Debagoieneko zenbait borrokalari nabarmendu dira. Esaterako, Airam Duatek hiru domina eskuratu ditu, eta Leire Ratok beste hiru, tartean zilarrezkoak eta urrezko bat. "Txapelketa ikusgarria egin dute, kontrarioek 10 kilo gehiago zituzten-eta", adierazi du Rafa Carrietek.

BOXEOA Jaialdia egingo dute Bergaran, hilaren 28an

Sorabax-eko lagunek antolatuta urriaren 28an boxeo jaialdia egingo dute Bergarako Udal pilotalekuan. Jaialdia 18:00etan hasiko dute, baina lehenago, boxeolariak pisaketa egingo dute Etxagi tabernan (16:00). Sarrerak aurrez eros daitezke (15 euro) 676 866 922 telefono zenbakian, edo egunean bertan, leihatilan (20 euro).



GOIENA

"Arrasate Irratian egin nituen lehenengoak"

JON PLAZAOLA BAKARRIZKETA-EGILEA ETA AKTOREA

'Tu-Tum, Platz!' bakarkako ikuskizuna eskainiko du domekan, Eskoriatzako Zaldibar antzokian, 19:00etan; bost eurotan daude sarrerak eskuragarri, 'Bibe.me' atarian

Aitziber Aranburuzabala Juldain

ESKORIATZA

Telebistan, zineman eta askotariko antzokietan ibilbide "polita" egin du Jon Plazaolak (Urretxu, 1982). Orain dela 23 urte igo zen estreinakoz taularen gainera, eta, garai hartan, Arrasate Irratian ere egin zituen bere lehenengo bakarrizketa saioak. **Arrasate Irratiko atea jo zenuen zure hastapenetan; ze oroitzen dituzu?**

Oroitzen oso politikak ditut! 2000ko hamarkada hasi berritan izan zen; Mikel Aranbururekin eta Miren Arrietarekin *Lente-jazko izozkiak* izena zuen magazin dibertigarrian hartzen nuen parte, eta saio horretan atera ziren nire lehenengo pertsonaiak.

Gogoratzen dituzu zeintzuk izan ziren pertsonaia horiek?

Imitazioekin hasi nintzela gogoratzen dut, horien artean, esaterako, Anjel Alkainek ETBko *Sorginen laratza* saioan egiten zuen agure bat antzeztzen nuen, eta baita Etsaiak taldeko Auo abeslaria ere.

FM 107.7ko irratian gainera, tabernatan estreinatutako zinen monologista moduan.

Urretxun bizi zen Macrea Clarke umorista irlandarrak atera ninduen Fox tabernako barraren



Jon Plazaola Urretxuko aktorea eta bakarrizketa-egilea. ROMERO DE LUQUE

zerbitzarien aldetik beste aldeira, eta han zegoen eszenatoki txikira igotzeko gonbidapena egin zidan. Baietz esan nion, eta gerora saio gehiago egiteko eskaintzak heldu zitzaizkidan, gaztetxeetan eta beste hainbat tabernatan.

Zure hastapenak dituzu, domekan, Eskoriatzan eskainiko duzun *Tu-Tum, Platz!* umorezko saioaren kontakizuneko oinarri, ezta?

Hala da; garai hartako oroitzenak ekarriko ditut taularen gainera. Gure belaunaldikoei *-millennial-ek*-, bereziki, asko

gustatuko zaiela uste dut, batez ere, saioaren hasierako zatia, garaian kokatzeko egiten ditudan kontakizunak dituelako; baina ez da, bereziki, nire belaunaldikoei zuzendutako saioa, beste gai asko daude-eta mahaiaren gainean, ordubete eta inguru irauten duen umorezko kontakizunean.

Aurrez izandakoa zara Eskoriatzan.

Irabazi izeneko ikuskizuna egin nuen eta oso gustura egon nintzen; baina bestelako ikuskizuna zen hori, dekoratuarekin, eta honako honetan, ez dago esze-

natokian apaingarririk, ni neu naiz istorioaren protagonista. **Zerk bultzatu zaitu atzera begiratzera; adinak akaso?**

[Barreak]. Hortik ere badago zerbait. 40 urteak beteta ditut dagoeneko, eta konturatu naiz, unibertsitateko ikaskideekin edo aspaldiko lagunekin elkartzen naizenean, garai bateko kontuez aritzen garela gehienbat... Bagoaz urteetan aurrera, eta hori albiste ona da, duda barik. Baina atzera begiratzera horrek badauka beste motibo bat eta zera da, hau da, ikusten dudala euskaraz egindako gero eta bakarrizketa gehiago dardela gaur egun, hortaz, nolabaiteko loraldi bat dagoela ikusten dut, panorama edo eszena bat ari dela sortzen, eta, zalantza barik, izugarri poztzen nau horrek. **Izan ere, zure hastapenetan, gutxi zineten euskarazko bakarrizketa saioak egiten zenituztenak, ezta?**

Hala da, gazteleraz egindakoak ziren gehienak. Telebistako *El club de la comedia* saioak eraginda, boom bat sortu zen, hortaz, erreferente gehienak gaztelerazkoak ziren; euskarazko bakarrizketak bultzatzeko saioak batzuk izan ziren, baina eskola edo mugimendu bat sortzeko nahikoa ez, nire ustez. Egoera aldatzen ari dela ikusten dut gaur egun. ETBko *Barre libre* saioa egin dugunoi sarritan esan digute lagungarria izan dela ibilbidea abiatzeko akuilu moduan. Eta, egia esan, ilusio handia egiten digu saioan parte hartu zuten batzuen izenak orain aretoetako karteletan ikusteak. Geroz eta gehiago gara, eta hori ona da; kontu hori ere aipatuko dut Eskoriatzan.

Diozu, *Tu-Tum, Platz!* ikuskizunak ez duela berdin funtzionatzen gazteleraz eginda.

Ez duela *punch* bera konturatu nintzen orain dela gutxi egin nuen saio batean, nahiz eta txiste berri batzuk moldatu nituen. Badakit eskaintza gehiago etorriko direla, beraz, lana dut gidoia moldatzen gaztelerazko ikusleei ere barrea eta gozame-na eragiteko.

Urteek ausardia ematen dute. Hala ikusten duzu zuk ere?

Duda barik; ikuskizunaren sinopsian diodan moduan, 23 urte adintsuago eta 23 urte kabroia-go, baina zentzu onean esanda, noski.

Madrilen egin dituzu urte batzuk eta Euskal Herrian bizi zara orain, gustura zaude?

Azkeneko urteetan joan-etorrian ibili naiz, eta orain dela bost hilabete bizitzak opari polit bat ekarri dit, hau da, Teo izena duen semea, eta horrek Euskal Herrira ekarri nau berriz ere, erarik ederrenean. Bestelako abiada edo presarik gabe ikusten ditut gauzak orain; ez naiz anbiziotsua, eta gainera, aitatasun bajaran sortu dut *Tu-Tum, Platz!* eta bolo pila bat ari dira ateratzen. Horrek etxetik gertu mantentzen nau eta motibazio handiarekin ari naiz, oso pozik!

Zer geratzen zaizu orain dela 23 urteko Jon Plazaolatik?

Ganberro sena ez zait joan eta zirikatze gogoia ere ez. Badaude antzekotasun asko egiten nituenetik eta egiten ditudan artean, baina, tamalez, gaztaro-ko inozentzia galdu da; hala ere, esentzian, berbera naiz.

"EUSKARAZKO BAKARRIZKETEN LORALDIA BIZI DUGU ETA IZUGARRI POZTEN NAU HORREK"

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

XABI SOLANO

MUSIKARIA

'ELKARRIZKETTAP' SAIOA

URRIAREN 11N. 19:30 / 21:30 / 23:30

JONI UBEDAK EGINDAKO ELKARRIZKETA



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena

Zu hemen zaude.



Organo Erromantikoa protagonista duen zikloa

Gaur hasi eta urriaren 28ra bitartean egingo dute 24. Organo Erromantikoren Nazioarteko zikloa; Bergarako Santa Marina parrokiaren, Azkoitiko Amabirjinaren Jasokundearen parrokiaren eta Azpeitiko Loiolako basilikan izango dira emanaldiak

A. Aranburuzabala BERGARA
Bergarako, Azpeitiko eta Azkoitiko Udalek Fray Joseph de Echevarria Organoaren Adiskideen Elkartearekin elkarlanean antolatzen duten ekimena da.

Hamar emanaldik osatzen dute gaur, egubakoitza, abiatuko duten egitaraua Euskal Herriko eta nazioarteko puntako musikariak eta hasiberriak gonbidatuta; ohi moduan, kontzertu guztiak dohainik izango dira.

Bergaran, hiru emanaldi

Aurreko astean Azkoitian egin zuten musika ziklo berriaren aurkezpenan izan zen Bergarako Udaleko zinegotzi Maite Usabiaga, eta "horrelako ekitaldiak babesteko beharra nabarmendu" zuen. Era berean, gogorra ekarri zuen Bergarako San Pedro parrokiako Stoltz Freres organoa Lyon dagoela zaharberritze lanetan orain dela hilabete batzuetatik, eta gaineratu zuen, San Pedro elizako organo jole Aitor Oleak adierazitakoaren arabera, prozesua "ondo" doala, eta organoaren %40a dagoeneko eginda dagoela: "Orokorrean, organoaren 36 jokoetatik 24 birgaututa daude". Hori horrela, aurreikuspenen arabera, "2024ko ekainerako organo erromantikoa Bergaran izango da berriro, beraz, asmoa da datorren urteko Organo Erromantikoren zikloa, 25. aldia, San Pedro parrokiaren egitea".

Azkoitian, Mariatxen Urkia

Azkoitiko parrokiako Cavallé-Coll organoak 125 urte bete ditu, eta ospakizun horien baitan lau emanaldi proposatu dituzte. Organoa bada ere protagonista nagusia, instrumentu "preziatu" horren doinuak formatu ezberdinetan entzuteko aukera izango da: beste instrumentu batzuekin lagunduta eta abeslariarekin, beste batzuetan. Aretxabaletako Mariatxen Urkia

sopranoa, esaterako, Jose Luis Frantzesena organistarekin batera izango da urriaren 21ean, eta, agertoki berean, urriaren 28an, Bergarako Musika Eskolako organo ikasleen kontzertua iragarri dute.

Loiolako basilikan, gaur hasita
Egubakoitzetan izango dira Azpeitiko emanaldiak, eta Loreto Aramendi organistak Arv-voce abesbatzarekin batera eskainiko duen kontzertuarekin abiatuko dute musika zikloa.



Organo Erromantikoren 24. zikloaren antolatzaile taldeko kideak. BERGARAKO UDALA

Egitaraua

Bergarako Santa Marina parrokia | 20:00

- **Urriak 7** Oscar Rodriguez organista eta Martin Zulaika oboe eta korno ingelesa-jolea.
- **Urriak 14** Myriam Ulanga organista eta Roberto Nuño biola-jolea.
- **Urriak 21** Alberto Saez organista eta Eduardo Diaz tronpeta-jolea.

Azpeitiako Loiolako basilika | 19:30

- **Urriak 6** Loreto Aramendi organista eta ARV-VOCEM abesbatza.
- **Urriak 13** Michel Bouvard organista.
- **Urriak 20** Eric Lebrun eta Marie-Ange Leurent organistak.

Azkoitiako Amabirjinaren Jasokundearen parrokia | 20:00

- **Urriak 7** Esther Ciudad organista eta Juanjo Guillem perkusio-jolea.
- **Urriak 14** Olivier Latry organista.
- **Urriak 21** Jose Luis Frantzesena organista eta Mariatxen Urkia sopranoa.
- **Urriak 28** Organo ikasleen kontzertua.

Goienakideen txokoa

URRIKO SARIAK

Tableta

InnJoo Superb Plus tableta

Parte hartzeko sariaren izena: tablet



EROSKI
ARRASATE

Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

ARRIKRUTZ
OHAIKO BOKA

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremanetanda.org
Bidezko Merkataritza produktuak

PARTE HARTZEKO:

Poeta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE
"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzearen artean egingo da zozketa.

Interakzioak: 093 15 79 90 laguntza eskatu, jakinarazi eta lagunduta partekatzen dituzten konpainia bakoitzak zuzeneko laguntza eskatu behar du. Ditu-biletak honen helburu bakarra da: dagoeneko dagoen eta zuzeneko laguntza eskatu. Eskubide ongi dauden datuak erabiltzeko helburuetarako. Lehiakortasun datuak: goienakide@goiena.eus

Realaren eta Mallorcaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean



GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Mallorca norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuzen eta zuzeneko beste lagun batek: Real Arena futbol zelaiko tokirik onenetik. Partida urriaren 21ean, 14:00etan, izango da.

Parte hartzeko azken eguna: urriak 15



Irabazi bi lagunendako otordua

MAIALDE JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: urriak 10.

☎ 943 25 05 05

✉ goienakide@goiena.eus

📱 "Goiena app"-a / zozketa atalean.

🗨️ GOIENAKIDE Jatetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 45 €
Deitu: 943 25 05 05 + goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia.

OROIGARRIA

Beatriz Odriozola Saizar


2023ko irailaren 28an hil zen, 62 urte zituela.

Ederra izan da zu ezagutzea, ederra benetan zu lagun izatea. eta ederragoa izango da gure alboan bidea egiten jarraitzen duzula sentitzea.

Bergarako zure lagunak.
Bergaran, 2023ko urriaren 6an.



OROIGARRIA




Juan Carlos Mendizabal Sagastigutxia


2023ko irailaren 28an hil zen, 81 urte zituela.

Nola esan agur ezer eskatu gabe dena eman digunari Bergarako taila eskola

Bergaran, 2023ko urriaren 6an.



OROIGARRIA




Dionisio Larrañaga Iturbe


Urriaren 3an hil zen, 67 urte zituela.

'Dioni' beti izango zaitugu gogoan

Nagixak kuadrillaren partetik.
Bergaran, 2023ko urriaren 6an.



ESKER ONA




Maximo Crucelaegui Plazaola


2023ko irailaren 29an hil zen, 91 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana.

Aramaion, 2023ko urriaren 6an.



ESKER ONA




Juan Carlos Mendizabal Sagastigutxia

2023ko irailaren 28an hil zen, 81 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2023ko urriaren 6an.



ESKER ONA



Aitor Arsuaga Mendaratz

2023ko irailaren 28an hil zen, 60 urte zituela.

Lerro hauen bidez familiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Arrasaten, 2023ko urriaren 6an.



URTEURRENA

Txaro Arregi Aranburu

2022ko irailaren 27an hil zen, 63 urte zituela.

Eskaintzen dizugun olerkirik ederrena ixiltasuna da, zure animaren oihua hor baitugu entzuten eta maitatzen.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, urriaren 7an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiangeruaren parrokiari. Elizkizunetara joango zaretenoi eskerririk asko, sendikoen izenean.

Oñatin, 2023ko urriaren 6an.



URTEURRENA



Mari Tere Basabe Gorrotxategi

2018ko urriaren 10ean hil zen, 75 urte zituela.

Erakutsi zenigun ausardia eta kemena, motz gelditu zaigu zure ondoan behar genuena, zure maitasuna, gure oroitzapen hobereana, bizirik iraungo duzu, gure bihotzean barrena.

Bosgarren urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 8an, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerririk asko, sendikoen izenean.
Arrasaten, 2023ko urriaren 6an.



BABESLEA

Oroilore

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Gari deitu zuzenean edo, nahizago baduzue, jakinarazi zuen asaguru-kospainari gurekin nahi dituzela agurtu maite dituzena.

Marioen, Ibanen eta Maribiren partetik, besarkada magikoak zuzentzeko, bihotza sendatzeko baloak dituen horietakoak. Guk badinugu gordetu zuzentzeko, gure beharra ducenerako.

Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37



BERRI-ZAKUA



50 urte ezkontuta

Manuel Lopez eta Maite Salegi bergararrek gaur, barikua, urriak 6, dituzte urrezko etzeiak. "Besarkada bana etxeko guztien partetik! Asko maite zaituztegu".



Madril aldean
Bergarako Erraldioen Konpartsako kideek Torrejon de Ardozen pasa dute asteburua, Arrasateko gaitariekin, Elgoibarko dultzaineroekin eta Bergarako trikitalariekin.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN

**MARITXU KAJOI: MIRARIA ZUZENEAN**

Eguneko ekitaldirik misteriosuenak ematen duena zuzenean ezagutzeko aukera egongo da, Herriko Plazatik egindako saioan.

'Bereziak' Egubakoitza, 20:00

**GAIXOTASUN HEMORRAGIKO EPIZOOTIKOAREN GAINEKOAK**

Bereziki behiei eragiten dien gaitzaren ingurukoak landuko ditu Julen Murua kazetariak.

'Landara' Astelehena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**'DEBAGOIENDARRAK MUNDUTIK'**

Suitzan bizi den Maria Aranburu arrasatearrarekin egingo du berba Eneko Azurmendi kazetariak.

'Debagoiendarrak mundutik' Martitzena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**'DEBAGOIENEAN EGINA'**

Oñatiko Natra enpresara egingo du bisita Iñigo Barrenak, barrutik ezagutu eta arduradunekin berba egiteko.

'Debagoianean egina' Eguaztena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**XABI SOLANORI
ELKARRIZKETA**

Esne Beltza taldeko abeslaria elkarrizketatuko du Joni Ubeak, Bastero Kulturagunean.

'Elkarrizketa' Eguaztena, 11:30, 21:30 eta 23:30



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 6**OÑATI Janari bilketa**

Herriko janari dendatan egingo dute, Zaporeak GKEak Lesbosen duen proiekturako.

Dendatan, egun osoan.

ARRASATE Maritxu Kajoi

12:00etan, txosnagunearen irekiera; 17:00etan, aisialdi eskaintza hezitzailea; 19:00etan, Oria txaranga; 20:30etan, Maritxuri lore-eskaintza; 21:00etan, elektrotxaranga; 23:00etan, dantzaldia Luhartz taldearekin; eta 01:00etan, Dj Karapaixo.

Arrasaten.

OÑATI Odol ematea

Aurrez hartu behar da ordua, 943-00 78 84 telefonoan.

Enpresagintzan, 16:30etan.

ARAMAIO Untzillako jaiak

19:30ean, jaien hasiera eta kanpai errepikak; eta 21:00etan, bertso-afaria, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña eta Xabi Igoa bertsolariarekin.

Untzillako elkartearen.

BERGARA Espoloiko jaiak

19:30ean, patata tortilla lehiaketa; eta, 22:00etan, bingo musikatua.

Espoloian.

ZAPATUA 7**OÑATI Janari bilketa**

Herriko janari dendatan egingo dute, Zaporeak GKEak Lesbosen duen proiekturako.

Dendatan, egun osoan.

BERGARA Euskal Herriko pegatineroen topaketa

Ostean, 14:30etan, bazkaltzeko elkartuko dira.

Kartzela zaharrean, 11:00etan.

BERGARA 'Scape the museum' ekimena

Informazio gehiago eta izen-ematea 943-76 90 03 telefonoan.

Laboratoriumen, 11:30etan.

BERGARA Espoloiko jaiak

12:00etan, Espoloixoren jaitsiera eta Potx magoaren saioa;

15:00etan, bazkaria, eta ostean, helduendako jolasak; 19:00etan, karro-poteoa; eta 21:30etan, Good Vibes taldea eta ostean, Dj Espoloixoren emanaldia.

Espoloian.

ARAMAIO Untzillako jaiak

12:00etan meza auzoko elizan; 14:00etan, auzo bazkaria elkartearen; 16:00etan mus txapelketa; 17:30etan, Txan magoa; 18:30etan, txokolate-jana; 20:30etan, parrilla zerbitzua elkartearen; 22:30etan, dantzaldia; eta 23:00etan, 39. bolo txapelketa.

Untzillan.

ARRASATE Batasun Nazionalaren urteurreneko festa

Saharar komunitatearen eskutik

Biteri plazan, 13:00etan.

ESKORIATZA 'Rompiendo armarios desde la decada de los 70' hitzaldia

Imanol Alvarez Gartzia egingo du berba, GayLur elkarteak gonbidatuta. Sarrerak, hiru euro.

Kultura etxean, 17:00etan.

BERGARA Bizikleta Festa

Zirkuitu bati itzuliak eman beharko dizkiote partaideek, adinaren arabera banatuta. Debalde da izen-ematea, 16:30etan hasita, eta bukaeran opariak banatuko dituzte.

Seminarioko patioan, 17:00etan.

ARRASATE Irabiatuak prestatzeko ikastaroa

Gaztetxoendako.

Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

BERGARA Isla Bat eta Ellie Jensen taldea

18:30etan, Isla Bat taldea; eta, 19:30etan, Elli Jensenen zuzeneko.

Gorlako kantuan.

BERGARA Oscar Rodriguez organistaren emanaldia

Organo Erromantikokoaren Nazioarteko Zikloaren baitan. Rodriguezek Martin Zulaikaren laguntza izango du, oboea eta korno ingelesarekin.

Santa Marina parrokian, 20:00etan.

DOMEKA 8**BERGARA 'Bretxa' musikalaren proiektzioa**

Lanean parte hartu zutenak bertan izango dira. Sarrerak, debalde, ohiko lekuetan.

Seminarixoan, 11:30etan.

ARAMAIO Untzillako jaiak

12:00etan, meza nagusia Aramaioko abesbatzarekin; eta 13:00etan, bermouth dantza Elustondo anai-arrebekin.

Untzillan.

BERGARA Beart Eguna

Taldeko kideen lanak ikusgai egongo dira 12:00etatik 14:00etara; eta ostean, bazkaria.

Irala kalean.

ARRASATE Pelikula emanaldia

Gaztetxoendako.

Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

ESKORIATZA 'Tu-tum, Platz' bakarriketa saioa

Jon Plazaolaren saioa. Sarrerak, bost euro.

Zaldibar antzokian, 19:00etan.

ARETXABALETA 'Hemen ez du inork ordaintzen' antzezlan

Doke antzerki taldeak Dario Fo italiarraren lan ezagunenatariko bat taularatuko du.

Arkupen, 19:00etan.

ARRASATE 'Control freak' ikuskizuna

Umorea, zuzeneko musika, zirkua eta teknologia bateratzen dituen ikuskizuna, Kulu Orr taldearekin.


Sarrerak, hamar euro.

Juan Arzamendi Musika Etxean, 19:30etan.

ASTELEHENA 9**ARRASATE 'Aldaketa eta lehia geopolitikoak munduan, eta Azerbaijan eta Armeniaren arteko gatazka' hitzaldia**

EHUko geopolitika irakasle Asier Blasek egingo du berba Goienagusik gonbidatuta.

Kulturaten, 10:00etan.



KULU ORR

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
San Martin plazan, 12:00etan.

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

ARETXABALETA Odol ateratzea

Odola ematera gonbidatu dituzte aretxabaletarak. Bereziki, odol-emaila berriak behar dituzte.
Durana kalean, 16:45ean.

ARETXABALETA Greba feminista antolatzeke bilera

Hirugarrena izango da eta mistoa gainera. Irekia herritar guztiendako.
Udaletxe zaharrean, 18:00etan.

MARTITZENA 10**BERGARA** 'Teknologia jabeak' hitzaldia

Teknologia burujabetza kontzeptuaren zabalkundea eta eredu herritar ezberdinak erdigunean ipintzeko azalpenak emango dituzte. Irekia.
Seminarixoan, 18:30etan.

ELGETA Hitez Pitz irakurketa taldea

Lehen saioa egingo dute gaur. Izena emateko bideak dira:
elgetakoliburutegia@elgeta.eus,
688 72 96 03 edo 943-78 80 12.
Liburutegian, 19:00etan.

EGUAZTENA 11**ANTZUOLA** 'Etorkizuneko hilerrria marrazten' gogoeta parte hartzailea

Bigarrena eta azkena. Irekia interesa duten guztiendako.
Olaranen, 18:00etan.

ARRASATE 'Control freak' ikuskizuna

Umorea, zuzeneko musika, zirkua eta teknologia bateratzen dituen ikuskizuna, Kulu Orr taldearen eskutik, aktore bakar batekin. Sarrerak, hamar euro.

Etzi, domeka, Juan Artzamendi Musika Etxean, 19:30ean.

BERGARA Eguaztenetako azoka

Herriko baserriarren garaiko produktuak erosteko aukera.
Oxirondon, 18:00etan.

BERGARA 'El sol del futuro' pelikula

Zineklubean, jatorrizko bertsioan eta azpitoluekin. Sarrerak, hiru euro.

Seminarixoan, 20:00etan.

EGUENA 12**ARETXABALETA** 'Kurtzebarriko haitzak' ibilaldi historikoa

Zaraia mendilerroan barrera ibiliko dira, parajeak eta pasarteak ezagutzen, Loramendi eta Ixotu elkarten eta Atxabaltako gazte mugimenduaren eskutik
Herriko Plazan, 08:15ean.

LEINTZ GATZAGA 'Gatz Museoa, familian' bisita gidatua

12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Izena emateko:
infoturismo@debagoiena.eus edo 943-79 64 63.
Gatz museoan.

OÑATI 'Oñatiko altxorrek' bisita gidatua

Unibertsitate zaharra eta parrokia ezagutzeko aukera. Izena emateko:
943-78 34 53.

Turismo Bulegoan, 13:00etan.

OÑATI 'Bizi pottoka' ekimena

Zaldiekin hainbat ekintza egiteko aukera. Izena emateko:

infoturismo@debagoiena.eus edo 943-79 64 63

Pottokalekun, 16:00etan.

ARRASATE Kooltur Ostegunak: The Movement taldea

Mod-rock doinuak Danimarkako talde bateranoarekin. Sarrerak, zazpi euro.

Gaztetxean, 22:00etan.

EGUBAKOITZA 13**OÑATI** 'Arantzazuko santutegia, familian' bisita gidatua

Izena emateko: *infoturismo@debagoiena.eus* edo 943-79 64 63.
Arantzazun, 11:00etan.

BERGARA 'Scape the museum' ekimena

Informazio gehiago eta izen-ematea 943-76 90 03 telefonoan.
Laboratoriumen, 11:30ean.

OÑATI 'Oñatiko altxorrek' bisita gidatua

Izena emateko: 943-78 34 53.
Turismo Bulegoan, 13:00etan.

OÑATI 'Lehoiaren bila' bisita gidatua

Izena emateko: *infoturismo@debagoiena.eus* edo 943-79 64 63.
Arrikruzten, 16:30ean.

ARRASATE 'Guacamayo' erakusketa: azken eguna

Gaur da bilduma ikusteko azken eguna.
Kulturateko klaustroan, 17:30ean.

ZINEMA**BERGARA****SEMINARIXOA**

Oppenheimer
Egubakoitza, domeka eta astelehena: 19:30.

Abentura erraldoia
Zapatua: 17:00.

GASTEIZ**FLORIDA****Barbie**

Egubakoitza: 17:00.
Zapatua eta domeka: 11:45, 17:00.
Astelehena eta martitzena: 17:30.

Campeonex

Zapatua eta domeka: 11:30, 17:15.
Astelehena eta martitzena: 17:00.

Cerrar los ojos

Egubakoitza: 20:00.
Zapatua eta domeka: 17:30, 21:00.
Astelehena: 17:15, 19:30.
Martitzena: 19:30.

Chinas

Egubakoitza: 17:30, 19:00, 21:30.
Zapatua eta domeka: 11:30, 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 17:00, 19:30.
Martitzena: 17:00, 19:45.

Dispararon al pianista

Egubakoitza: 17:00, 22:00.
Zapatua eta domeka: 11:30, 17:30, 19:45, 22:00.
Astelehena eta martitzena: 19:45.

El osito Boom

Zapatua eta domeka: 12:00.

Golpe a Wall Street

Egubakoitzetik domekara: 17:15, 19:45, 22:00.
Astelehena eta martitzena: 17:30, 19:45.

Golpe de suerte

Egubakoitza: 17:00, 21:30.
Zapatua, domeka eta martitzena: 17:00, 19:15.
Astelehena: 17:00, 20:30.

La ternura

Egubakoitza: 17:15.
Zapatua eta domeka: 22:15.
Astelehena eta martitzena: 17:30.

Misterio en Venecia

Zapatua eta domeka: 19:45, 22:00.
Astelehena: 19:45.
Martitzena: 17:15.

Monstruo

Egubakoitzetik domekara: 19:15, 21:45.
Astelehena eta martitzena: 19:15.

Ninja turtles

Zapatua eta domeka: 12:00.

The creator

Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 11:30, 19:30, 21:15.
Astelehena eta martitzena: 20:00.

Richard la cigüeña

Zapatua eta domeka: 12:00.

KRITIKA**Dispararon al pianista** ★★★★★

Zuz.: Fernando Trueba eta Javier Mariscal. Herr.: Espainia (2023).
Iraupena: 103 minutu.

Dokumental koloretsua**ANTONIO ZABALA**

Fernando Truebak *Calle 54* filmarekin jazz latinoarekin lotutako dokumental musikala egin zuen. Urte batzuk beranduago, jazzarekin lotutako *Chico y Rita* animazio filma egin zuen. Orain dokumentala eta animazio zinema batu ditu *Dispararon al pianista* zuzentzeko.

Azken horretan, Eduardo Tenorio Jr. jazzeko piano-jole brasildarraren istorioa kontatzen zaigu. 1976. urtean piano jotzailea Buenos Airesera joan zen Vinicius de Moraesekin eta Toquinhorekin kontzertu batzuk ematera. Gau batean hoteletik irten zen eta ez zen gehiago agertu.

Truebak garai hartako jende piloa elkarrizketatu du musikaria nolakoa zen eta Buenos Airesen gertatutakoa

azaldu nahian; besteak beste, musikariak, Tenorioren familia eta lagunak. Proposamen honen bitxitasuna dokumental bat egiteko animazioa erabiltzean datza. Irudiak mugimendua izan arren, batez ere *Dispararon al pianista* ikusterakoan, mugimendua duen komiki baten aurrean egotearen sentsazioa sortzen zaigu. Planoek komiki-binetak ematen dute eta mugimendua gutxi dago. Dokumentalarekin batera fikziozko osagaiak era badira.

Trueba izan da ikerketa egin duena, baina filmean Bossa Novari buruzko liburu bat idatzi nahi duen idazle estatubatuar bat da Tenorioren historia ezagutu gura duena. Dokumental koloretsua da Truebarena eta Mariscalena.



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

Populismoen kaltea

Nire amari bihotzeko ebakuntza egin zioten 2013an Osakidetzan. Ez zioten, baina, ospitale publikoan egin ebakuntza hori, Donostiako Poliklinikaren baizik. Bihotzeko medikurik onenek eta baliabiderik onenekin. Donostia ospitalean, eta gainerako euskal ospitale publiko guztietan ere, medikurik onenak eta baliabide aurreratuak ditugu, baina amak lehenbailehen behar zuen ebakuntza eta Osakidetzak akordioak izan ditu beti bereak ez diren ospitaleekin gaixoak ahalik eta azkarren eta ondoen zaintzeko.

Nire amaren kasua ez da bakarra, noski, gure inguruan horrelako kasu asko daude eta inork ez du hau pribatizazio bezala ikusi. 2023an Osasun sailak 4.638,9 milioi euroko aurrekontua du eta 2013an 2.372,4 eurokoa izan zuen. 10 urtetan bikoiztu egin da aurrekontua eta inoiz baino baliabide, eraikin eta langile gehiago dauzkagu euskal osasungintza publikoan.

Osakidetza pribatizatzen ari direla dioten populistek kaltea egitea besterik ez dute helburu.

Nire amak bezala, ziur naiz gaixo guztiek jasoko dutela, ospitale batean edo bestean, zaintza egokia, eta hau da Osakidetzaren betebeharra.

BUKATZEKO



Alberto Iñurategi Annapurnako gailurrean, 2002an. A.I.

Alberto Iñurategi 14 zortzimilako barik?

8000ers webguneak egindako ikerketa baten arabera, 14 zortzimilako egin dituztenen zerrendan dauden mendizale gehienek ez dute Manaslu, Annapurna eta Dhaulagiri mendien puntarik altuena zapaldu; tartean egongo litzateke Iñurategi

Idoia Aranbarri ARETXABALETA
Erberhard Jurgalski eta Rodolphe Popier 8000ers webguneko dokumentalistek urteak pasatu dituzte zortzimilakoak egin dituztenen tontorreko argazkiak egungo tresna teknologikoekin hartutako neurketekin alderatzen. Ikerketako ondorioetako bat izan da hainbat mendizale ez zirela Manaslu, Dhaulagiri

eta Annapurna zortzimilakoen "benetako" tontorrera igo. Iazko uztailean argitaratu zituzten emaitzak, eta ikerketaren arabera, zenbait mendizale 14 zortzimilako egin dituzten zerrendatik kanpo geratuko lirateke. Tartean da, besteak beste, Alberto Iñurategi (Aretxabaleta, 1968), Edurne Pasaban eta Juanito Oiarzabalekin batera.

Erreferentzia teknologiko barik
Iñurategi bazuen ikerketa egiten ari zirenen berri; izan ere, berak ere bidali zituen argazkiak. Ikerketaz duen iritziaz galdetuta, hauxe dio: "Modu zuzenean egiten direnean oso ondo daude, eta ez daukat inongo zalantzarik esaten duten hori hala izango dela. Kontua da hortik norberak ateratzen dituen

ondorioak eta mendizale komunitateak egiten duen irakurketa".

Azpimarratu du zortzimilakoak egin zituen garaian ez zegoela egungo teknologiarik. "Ez genuen sateliteko neurketarik, ez GPS-rik. Gure erreferentziak liburutako testuak eta argazkiak ziren; kasurik onenean, gure aurretik egondakoen testigantzak. Horiek jarraituta iritsi ginen heldu ginen lekura, eta handik ikusten zenarekin ere ezin genuen pentsatu gorago gailurrik zegoenik", dio.

Jacson Groves australiarrek 2021ean drone bidez ateratako argazkian ikus daitezke Manasluko orain arteko gailurra eta "benetakoa". Argazkiak "justizia askorik" ez duela egiten irizten dio aretxabaletarrak ez dagoelako irudian islatzen den altuera diferentziarik: "Nik uste errealitatera egokitzen ez den beste angelu batetik ateratako argazkia dela. Bertan zaudenean, gailurra ez da ikusten. Bestela, ez litzateke ulergarria izango mila mendizale hara, gu igo ginen gailurrera, iritsi, oraindik beste tontor bat dagoela ikusi eta ez igotzea. Gainera, kontuan izan %90ak sherpak erabili eta dirua ordaintzen duela".

Egindakoa eginda

Guinness errekor liburuaren arabera, Reinhold Messner eta Edurne Pasaban ez dira 14 zortzimilakoak egin dituzten lehen gizon eta emakumea. Historia aldatu daiteke? "Ez dakit nork eduki dezakeen aldatzeko interesa, baina aldatu ahal du. Nik uste dut ikerketak ez duela aldatzen izen handiko mendizaleen pisua, egin dituzten erronkak eta gainditu dituzten mugak".

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

**MARITXU KAJOI,
ZUZENEAN**

URRIAREN 6AN, EGUBAKOITZEAN,
20:00ETAN HASITA
MIRARIAREN KONTAKETA
ZUZENEAN ARRASATETIK



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.

